Goienkaria

Egubakoitza / 2007ko abenduaren 28a / GOIENKARIAREN ARGITALPEN BEREZIA

















# ARRASATE

## URTEARI BEGIRATUA 2007

**ARAMAIO** > 14
**ARETXABALETA** > 17
**ESKORIATZA** > 35
**LEINTZ GATZAGA** > 44







ARGAZKIAK: GOIENKARIA

UDESIGN-SHOP.COM


Zorionak
eta urte berri on!
Amets
Bengoa
Branka
Express
Rumba
Gure Leku
Iamai
Itzala
Monte
Plus Ultra
Ostantz

# URTARRILA



**"Bake prozesua amaitu da eragileek ez dutelako elkartuta aurrera egin"**

**Mikel Irizar** > Herritarra



**"Ibarreko alkateek eskatu dugu AHTk geralekua izatea gurean"**

**Inazio Lakuntza** > Alkatea

## hileko esaldia

**"Emakume asko daude, herri hau jaso dutenak, pentsio ezin tristeagoekin"**

**Felipe Antonio Igartua** > Appalde-ko kidea

## hileko datua

**%30**

Biteri kaleko lur azpiko aparkalekuak espero baino gutxiago erabiltzen zituztela-eta, %30 jaitsi zituzten tarifak. Erabaki horrekin, bada, egoerak hoberantz egin zuen apurka-apurka.





GOIENKARIA

## Kale eraso batek kalte ugari eragin zituen

Urtarrilaren 5eko goizaldean kale erasoak egin zituzten banketxeen kontra. Larriena izan zen Jokin Zaitegi plazako La Caixa banketxearen kontra aerosolez eta gasolinaz osatutako lehergai batez egindakoa. Bulegoak su hartu zuen eta inguruko etxabeetako bizilagunak etxeetatik atera zituzten: 47 lagun. Haietako bat, 79 urteko Ambrosio Fernandez, Txagorritxun ospitaleratu behar izan zuten, arnas arazoengatik; otsailean oraindik ospitalean zegoen, ZIUn. Ume eta Loramendi dendek ere kalte handiak jasan zituzten; dendako produktuak likidatu egin behar izan zituzten.

## izen propioak



**Jim TNT**

MUSIKARIA

Arrasatearrak irabazi zuen Danbaka lehiaketako bakarlari onenaren saria. Jendearekin bat egitea lortu zuen.



**Jose Luis Iartza**

SAN FELIPE APOSTOL

San Felipe Apostoleko presidente izendatu zuten. Hileta zerbitzuez arduratzen da elkarte hori.



**Gaizka Barandiaran**

EUSKALTZAINA

Velez de Mendizabalek gogora ekarri zuen uztailean hil zen euskaltzain arrasatearra.

## AURKIBIDEA

**Urtarrila** > 03
**Otsaila** > 04
**Martxoa** > 05
**Apirila** > 06
**Maiatza** > 07
**Ekaina** > 08
**Uztaila** > 09
**Abuztua** > 09
**Iraila** > 10
**Urria** > 11
**Azaroa** > 12
**Abendua** > 13
**ARAMAIO** > 14
**ARETXABALETA** > 17
**ESKORIATZA** > 35
**LEINTZ GATZAGA** > 44

**Goienkaria**

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea
Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Erredakzioa** Iker Barandiaran, Mirari Altube, Ubane Madera, Oihana Elortza, Edu Mendibil, Aintzane Irizar, Arritxu Barruso, Larraitz Zeberio **Maketazioa** Alex Azkarate, Oxel Arrieta **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Itxaso Berezibar, Fausto Berezibar **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 13

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxatila
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 10.000 ale.

LAGUNTZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Aramaioko Udala · Leintz Gatzagako Udala

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzien erantzukizunik.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundutako aldizkaria

Urte berri on!

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ARRASATE IRRATIA · ASTELEHENEKO GOIENKARIA · GOIENA TELEBISTA · GOIENA.NET · GOIENKARIA

# OTSAILA



**"Alarguntasunean eta herentzian diferentziak daude bikoteetan"**

**Maider Morras** > Abokatua



**"Arrasaten, urtero, 15 bat etxebizitza sartzen dira Bizigunen"**

**Nerea Lazpiur** > Udal teknikaria

### hileko esaldia

"Inguru hau (Garaia) lorategi botaniko bilakatu gura dugu"

**Andoni Gartzia** > Garaiako kudeatzailea

### hileko datua

**251**

251.540,47 euroko aurrekontua zehaztu zuten Santa Teresako eliza berritzeko. Legeak zehaztutako irisgarritasun legeetara egokitu behar dute eliza. Lanok egiteko dirua batzen hasi ziren.



GOIENKARIA

## Jendetza handia ibili zen Merkemerkauan

Merkemerkaua izeneko azoka egin zuten Uarkapen. Arrasate, Bergara eta Aretxabaletako 23 komertziok ekarri zituzten produktuak (16 saltoki ziren Arrasatekoak).

Arropa eta bestelako produktuak prezio merkean erosteko aukerak jende asko erakarri zuen Arrasatera. "Eskualdean, aurrez, ez zegoen horrelakorik eginda, baina gainontzeko herrietan egindakoek arrakasta eduki dute, eta guk ere saiatzea erabaki genuen", azaldu zuen Marga Garmendiak, ekimena antolatu zuen udal teknikariak.

**Getariako izendapena, gureek ere**
Kostata baina onartu zuten Arrasateko txakolin ekoizleek ere Getariako Txakolina izen ofiziala erabiltzea.

**Apurketak eta bandalismoa**
Apurketak eragin zituzten hainbat ezezagunek; asteburuan bost dendatako kristalak apurtu zituzten.

> SENIDETZEA

### Sunchales (Argentina) eta Arrasate senidetu egin ziren

Sunchalesko ordezkaritza Arrasatera iritsi zen, bi herrien arteko senidetze prozesua gauzatzeko. Udalerrian izateaz gainera, inguruak bisitatzeko aprobetxatu zuten bisitariek; tatean, MCC bisitatu zuten.

Izan ere, Argentinako Santa Fe probintzian dagoen Sunchales udalerria Probintziako Kooperatibismoaren Hiriburua da. Nekazaritzan eta abeltzaintzan oinarritutako kooperatibak dituzte han inguruan. 2001eko erroldaren arabera, 18.757 lagun bizi dira Sunchalesen.

> ETORKINAK

### Etorkinendako zerbitzu gida argitaratu zuten

Ekin Emakumeak elkarteak etorkinendako gida kaleratu zuen. Etorkinek dituzten eskubideak batu eta azaldu zituzten gidan. Horrez gainera, zerbitzuen berri ere ematen dute gida horretan: osasuna, hezkuntza, lana eta beste. Esaterako, esplikatzen dute nora jo behar duen lan bila dabilen etorkinak. 200 gida argitaratu zituzten

Etorkin batek baino gehiagok asko eskertu zuten ekimena: "Guretako hau izugarria da", adierazi zuen Kolonbiatik etorritako Doris Ramirezek.

ION leihoak
PVC, ALUMINIOA ETA POLIURETANOA
• LEIHOAK • HORMA ARMAIRUAK
• ATEAK • ZOLUAK
20500 ARRASATE **Erakustoki eta lantoki berria**
Debagoiena industrialdea. Telleria kalea 4, 11.atea. P.K.172
Tel.: **943 79 11 35** Faxa: **943 77 31 20**
01003 GASTEIZ
Olaguibel 51
Tel./Faxa: **945 26 71 73**

Gabon zoriontsuak guztioi!
Posta elektronikoa: ion.a@euskalnet.net • www.ventaion.com

Jai zoriontsuak izan!
Garibai etorbidea z/g Arrasate
Tel.: 943 71 09 00
Faxa: 943 79 41 11
"la Caixa"
Errekabarren 3 Aretxabaleta
Tel.: 943 71 09 50
Faxa: 943 79 36 18

# MARTXOA



**"Literaturak, edozein narraziok, hobeto biziten laguntzen digu"**

**Nerea Altzola** > Irakaslea Mondragon Unibertsitatean



**"MUn Europako hezkuntza eredua finkatzeko lan egingo dut"**

**Josu Zabala** > Mondragon Unibertsitateko errektorea

### hileko esaldia

**"Proiektuak izan ditzakeen onurak sortuko dituen kalteekin alderatu behar dira" (AHT)**

**Eneko Karrera** > ELA sindikatua

### hileko datua

**53**

Gure ibarrean 53 kilometro zeharkatu zituen Korrikak. Jakina, tartean Arrasate zeharkatu zuen eta ezpeletarrek, konpartsaren izenean, aitonak, semeak eta bilobak parte hartu zuten.

## Iturbide egoitza berritzeko proiektua

Iturbide egoitza berritzeko proiektua onartu egin zuten. 3.170.742,35 euroko aurrekontua zehaztu zuten, eta bi urteko epea finkatu. Oro har, legeak esaten duenari egokitzeko obrak egingo dituzte Iturbide egoitzan. Obrak egin ostean, 104 lagunendako lekua izango dute Iturbiden (besteak beste, logela gehiago egingo dituzte lehen solairuan). Legeak zehazten duenari jarraituz, egoiliar horiek guztiak izango dira besteekiko mendekotasuna dutenak. Horrez gainera, besteak beste, Iturbiderako sarrera berria egokituko dute; hain zuzen ere, Abaroara sartzeko erabiltzen duten bera. Oraingoa, Zerkaosteta kalekoa, itxi egingo dute.



U.M.

**Ideia lehiaketa San Joseperako**

San Josepe harrobiak utzitako lekua betetzeko ideia lehiaketa abiarazi zuen herritar talde batek.

**Lapurretak Arrasaten eta ibarrean**

Maala, Seber Altube eta Olarteko dendetan lapurretak egiten ahalegindu ziren.

> HEZKUNTZA

### Mesedeetako eskolaren auzian, Udala bitartekari

Udaleko osoko bilkurak onartu zuen ezin izango dela Mesedeetako Andre Mari ikastetxeak duen lurzorua birkalifikatu. Modu horretan, Mesedeetako erlijio ordenak ezin izango du lur haiekin espekulatu eskola ixtea erabaki arren.

Erabaki zuten, baita ere, Udalak bitartekari lanak egitea erlijio ordenaren eta eskolako langile eta gurasoen artean, hezkuntza jarduerari jarraikortasuna emateko ahaleginean laguntzeko. Dena den, egoera aldatu ezean, ikastetxe hori itxi egingo dute 2008an.

> ETXEBIZITZAK

### Babestutako etxeen gaineko arauak, arreta zerbitzuan

Arau berriak zehaztu zituen Udalak babes ofizialeko etxebizitzen zozketan parte hartzeko. Gelman egiten dabiltzan 131 etxebizitzak eta Uribarriko 44 etxebizitzen zozketarako arauak dira, hain zuzen ere, onartu zituztenak.

Arauon artean, Udalak zehaztu zuen kontuan hartuko duela Etxebiden izena emanda dutenen zerrenda; 2006ko urriaren 31 baino lehenagotik edo egunean izena emanda dutenen zerrenda, alegia. Horrez gainera, jakinarazi zuen eskatzaile berriak ere onartuko zituela.



# APIRILA



**"Familia da umearen oinarria; han jaso behar du oinarrizko heziketa"**

**Josune Etxabe** > Arrasate Herri Eskolako zuzendaria



**"Hau ez da demokrazia, trantsizio frankistak ezarri duen demokrazia da"**

**Antxon Mendizabal** > Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea

## hileko esaldia

**"Japoniak eta Euskadik asko dute ikasteko elkarrengandik eta elkarren mesederako"**

**Jon Goikolea** > Goi-Hatako kidea

## hileko datua

# 1,8

Milioi euro inbertitu zituzten Garaia gunean mikrofabrikazioko laborategiak eraikitzeko. Espainiako Estatuan bakarrak dira mikrofabrikazioko laborategi horiek. Apirilean inauguratu zuten.




MBN COMUNICACION

## Lagun Arok 25. urteurrena ospatu zuen

Bilboko Euskalduna jauregian eta Kepa Junkeraren musikak lagunduta egin zuen Lagun Aro entitateak 25. urteurreneko ospakizuna. Horrekin batera, 2006ko datuak jakinarazi zituzten, esanez, "emaitza historikoekin" itxi zutela jardunaldia: 162,51 milioi euro fakturatu zituen, 2005ean baino %2,09 gehiago. Horrekin batera, 2007rako aurreikuspenak ere aurreratu zituen MCCko aseguru entitateak: 150 milioi euroko fakturazioa eta zerga aurreko 23,2 milioi euroko mozkina. Dena den, urtekari hau idaztean oraindik eskuratzeke geneuzkan 2007ko datu errealak, eta ezin dugu konparaziorik egin.

**Etxeko olioa batzeko edukiontziak**
Etxean erabilitako olioa batzeko poteak banatu eta hiru edukiontzi jarri zituen Arrasateko Udalak.

**Hizkuntza politikan, aprobatu justua**
Gabeziak aurkitu zituzten Arrasaten hizkuntza politikari dagokionez; adibidez, udal ordenantzarik eza.

> TOPONIMIA

### Parke, kale eta aparkaleku berriak Zerrajera gunean

Zerrajera gunea urbanizatzeko proiektuari hasierako onespena eman zion Udalak. Hain zuzen ere, parkeak (aisialdirako guneak), kale edo errepideak, lorategiak eta aparkalekuak eraiki behar dituzte.

Bestelakoen artean, bi noranzko dituzten lau errepide edo kale sortu behar dituzte. Eta sortuko dituzten kaleendako izenak aztertzen hasi ziren. Hala, erabaki zuten La Caixak etxeak eraiki behar dituen gunean sortuko den kaleari *Aprendices kalea* izena ipiniko diotela.

> INGURUMENA

### Aire kutsaduraren muga gainditutа du Arrasatek

Arrasaten airea behar baino kutsatuago dagoela erakutsi zuten Jaurlaritzako datuek..

Hain justu ere, erakunde publikoak emandako datuen arabera, Arrasate, Tolosa, Beasain, Donostia, Errenteria eta Azpeitia dira, Gipuzkoan, gomendatutako aire kutsadura mailak gainditzen dituzten herriak.

Europar Batasunak dioenez, urtean 35 egun baino gehiagotan ezin dira airean metro kubikoko 50 mikrogramo partikula baino gehiago egon, eta hor egin du kale Arrasatek.

JUBAR® ATEAK, S.L.

Kataide industrialdea 18 • Tel.: 943 79 10 20 • Faxa: 943 79 08 17
110 posta-kutxa • ARRASATE • jubarateak@ euskalnet.net

DQ certificación
E.R. 02/518
ISO 9001/00
ACREDITADO POR ENAC




• Garajeko ateak
• Segurtasunezko pertsianak
• Automatismoak
• Konponketak
• Urrutiko aginte tresna homologatuak
• Oinezkoen ateentzako sistema automatikoak













# MAIATZA



**"Vienako opera eskaintza izugarria da; 2 euro balio du opera entzuteak"**

**Gorka Rubiales** > Musikologoa



**"Umeen barraketan musika guztiak euskaraz izan behar du"**

**Jesus Calvo Peñalba** > Ferietako saleroslea

### hileko esaldia

**"Planetak jasan dezakeena baino kutsadura gehiago sortzen dugu"**

**Margarita Martin** > Metereologoa

### hileko datua

**80**

Legarreko pabiloiak bota eta haien lekuan 80 etxebizitza eraikitzea onartu zuen hasiera batean Tokiko Gobernu Batzarrak. Haiekin batera, 169 aparkaleku ere egin beharko dituzte.

**Gaztetxoak, ingurumenarekin kezkatuta**
Herriko gaztetxoak Udalean izan ziren, Agenda 21 barruan ur, zabor eta energiaren gainean jarduten.

**Herri eskolako gabeziei aurre egin behar**
Hiru idatzi aurkeztu behar izan zizkon Udalari herri eskolak, gabezien aurrean konponbidea eskatzen.

## Ibarreko dantzarien biltzarra

160 lagun eta bost dantza taldek bat egin zuten Arrasaten, ibarreko dantzarien biltzarrean. Dantza saio bereziak eta ezohikoak egin zituzten Antzuolatik, Oñatitik, Soraluzetik eta Arrasatetik etorritako bost taldek (Arrasatetik bi talde izan ziren). Bereziak ziren; izan ere, halako biltzarrei begira ohi dutenez, dantza talde bakoitzak dantza berezia prestatu zuen Arrasatera ekartzeko.

Irailean hasi ziren dantza taldeak entseguak egiten, bereziki lehen esandakoarengatik, dantza taldeek dantza berri ugari egin behar izan zituzten-eta.

Datorren urtean, 2008an, Antzuolan egingo dute dantzarien biltzar hori.



GOIENKARIA

> KULTURA

### Mondra taldearendako ereserki berria

Mondra futbol taldearen ereserki edo himnoa grabatu zuten Arrasate Musikaleko Bandak eta Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak. 80 lagun inguruk hartu zuten parte grabazioan. Iker Olazabal bandako zuzendariak eta Tere Gonzalez Izaskun Murgiako presidenteak zuzendu zuten grabazioa, Jose Ramon Vitoria musikariaren aholkularitzarekin. Hain zuzen ere, musika Vitoriak konposatutakoa da 1989. urtean. Bi hilabetez ibili ziren grabaziorako entseguak egiten. Ekainean argitaratu zuten emaitza.

> OSASUNA

### Iturrigorri elkartea Legebiltzarrean izan zen

Hezur-muin maileguak bultzatzeko Arrasaten sortu zuten Iturrigorri elkarteko kideek Legebiltzarreko Osasun batzordeari aurkezpena egin zioten. Hezur-muin maileguen eta transplanteen gainean dauden mundu mailako hainbat datu azaldu eta elkartearen asmoen berri eman zieten; hau da, Euskal Autonomia Erkidegoan maileguak gehitzea, beste herrialde batzuen mailetara iristeko. Australia, AEB eta Alemaniarekin alderatuta, EAEn hezur-muin emaileen kopurua oso txikia da.




egizabal
oinetakoak
Zorionak eta urte berri on
Camper Geox Stonfly Looky Panama Yack
Ferrerias Velletto Pedro Miralles Troppa
Nature Ejects Shoes
ARRASATE, Olarte 14 Tel: 943796601



BERGARA, Bidekurutzeta 13 Tel: 943761228

HORTZ KLINIKA
UARKAPE
Odontologia orokorra
Endodontzia
Inplantologia
Protesiak
Uarkape 16 • ARRASATE • Tel.: 943 79 87 90 - 943 79 10 85

# EKAINA



**"Argi dago inork ez duela energiari uko egiteko asmorik"**

**Juan Luis Azkarate** > Kazetaria



**"Kostakoak barneladeko herrietara bizi izatera erakartzea zaila da"**

**Egoitz Zubizarreta** > Langilea

### hileko esaldia

**"Hemen (Mojategi) jokatzen ez duenak futbolean ez dakielako da"**

**Jose Luis Azkarate** > Mondrako presidentea

### hileko datua

# 100

Zerrajerak 100 urte bete zituen; hori dela-eta, hainbat ekimen egin zituzten Arrasaten; tartean, 200 bat argazki eta bideo-elkarrizketarekin erakusketa egin zuten eta *Ama Zerrajera* liburua argitaratu zuten.



GOIENKARIA

## EAE-ANV irabazle hauteskundeetan

Maiatzeko azken asteburuko hauteskundeen emaitzaren ondoren, ekainaren 16an eratu zen udal gobernu berria. Ezusterik ez zen izan eta Ino Galparsoro aukeratu zuten alkate 2007-2011 agintaldirako, zortzi botorekin: EAE (7) eta Aralar (1). Gainerako alderdiek nork bere alderdiko zerrendaburuaren alde bozkatu zuten. Alkate berriak esan zuen "herritarren protagonismoa lehen lerrora eramaten saiatuko" direla. Negoziazio prozesuaren ostean, EB-Zutik koalizioak bat egin zuen gobernuan Eusko Abertzale Ekintzarekin.

**Leire Poyato gimnasta bigarren**
Arrasate Dragoi gimnasia erritmikoko taldeko kidea bigarren izan zen autonomien arteko txapelketan.

**San Antolingo proiektuari, ezetz**
Musakolako hainbat auzotarrek ez zuten onartu San Antolingo etxe berrien proiektua.

> ELKARTASUNA

### Presoen alde, Elkartasun Eguna 2007

Bigarren aldiz presoei elkartasuna adierazteko eguna antolatu zuten Arrasaten. Helburua zen preso politikoen eskubideak aldarrikatzea. 2007ko ekitaldian bereziki gogora ekarri zituzten honako presoak: Josu Uribetxeberria, Jose Inazio Gaztañaga, Jon Agirre, Gabriel Urizar, Jesus Mari Zabarte, Luis Mari Azkargorta, Unai Parot eta Amaia Arrieta.

Elkartasun egun hori babestu zuten, besteak beste, 25 erakunde, elkarte eta sindikatuk; besteak beste, EB, Aralar, Zutik, EAE eta Batasuna alderdiek.

> KIROLA

### Bigarren aldiz irabazi zuen Dribling taldeak Zaldibarko kopa

Kopan nagusitu eta gero, Dribling taldeak erakutsi zuen ligan ere jaun eta jabe zela. Final parekatua jokatu zuten Betrayerren kontra, baina azkenean, elastiko laranja jantzitako mutilak nagusitu ziren (4-2). Horrela, Betrayer taldea geratu zen bigarren eta Iluntz hirugarren.

Bestalde, hauek izan ziren, antolatzaileen ustez, txapelketako jokalari onenak: Antonio Frutos (Betrayer), Julio Hernandez (Iluntz), Roberto (Dribling), Egoitz Apraitz (Saukelu), Ito (Iriztu), Rivas (McAuen) eta Sabilo (AT Celaya).




ANE LASAGABASTER
HORTZ KLINIKA

- Odontologia orokorra
- Periodontzia eta inplantologia
- Ortodontzia
- Endodontzia
- Kirurgia
- Protesiak
- Ezarpenak
- Estetika
- Hortzen zuritzea

Otalora, 18 solairuartea D • Tel.: 943 79 13 68
20500 Arrasate

Goizez eta arratsaldez irekita

# UZT.-ABUZ.



**"Zapatilak beti eramaten ditut oporretara"**

**Maria Jose Gil** > Korrikalaria



**"Gutxienez liburu bat eroaten dut beti poltsan"**

**Oskar Arana** > Itzultzailea

**hileko esaldia**

**"Futbolean jokatzen jarraitzeko ilusioarekin noa Almeriara"**

**Aitor Lopez Rekarte** > Futbol jokalaria

**hileko datua**

**150**

Garagartza auzoko Leze Txiki kobazuloan aurkitu zuten orain dela 150.000 bat urteko edo lehenagoko pieza bat: harrizko una bat. Orain arte aurkitutako piezarik zaharrena da hori.

## Musakolako kiroldegiaren 30. urteurrena

Uztailaren 11n bete zituen Musakolako kiroldegiak 30 urte. Berez, eta kiroldegiaren aurrealdeko monolitoak dioen moduan, urte bereko (1977) ekainaren 24an inauguratu eta zabaltzeko gertu zuten, baina arazo bat izan zuten hodiekin, ura irten egin zen eta ezin izan zuten ordurako zabaldu. Beraz, 1977ko uztailaren 11n zabaldu zuten, eta inaugurazioa, berriz, egin zuten uztailaren 15ean. Lehenengo bazkideak izan ziren orduko udalbatza osatzen zuten zinegotziak eta alkatea.



GOIENKARIA

**UDAL GOBERNU BERRIA** > AKORDIOAREN AURKEZPENA

## Zabaletako proiektua eta Ikutixokoa, bertan behera

Udal gobernuak uztailaren amaieran aurkeztu zuen akordioa oraindik zeresana eragiten zebilen abuztuan. Izan ere, azken hilabeteetan herritarren artean ika-mika piztu zuten hainbat gairen gainean duen ikuspuntua azaldu zuen udal gobernu berriak (Eusko Abertzale Ekintza eta EB-Zutik koalizioak eratu zuten udal gobernua) akordio horren bitartez.

**ZABALETA ETA IKUTIXO**

Adibidez, jakinarazi zuten Zabaletako merkataritzagunearen egitasmoa bertan behera uzteko asmoa dutela, "gune hartarako erabilera erabakiko da azterketa egin ostean eta dagokion udal eztabaida egin ostean", jakinarazi zuten.

Ikutixoren gainean, berriz, zera jakinarazi zuten: "Ikutixoko jarduera esparrua ez hiritargarri bezala kalifikatzea proposatzen dugu". Hori horrela, Ikutixon ezingo da ezer eraiki.

Bestelako gaien artean, iragarri zuten Biteri plaza berriro diseinatzeko asmoa dutela eta, besteak beste, "garraio publikoa garraio motorizatu garrantzitsuena bihurtu" gura dutela.

Uarkape
jatetxea
2008a ere oparoa izan dadila!
Plater konbinatuak, bokatak, eguneko menuak, karta.
Otalora lizentziatua 10
Tel.: 943 77 20 04
ARRASATE

# IRAILA



**"Onena da oporren eta lanaren arteko haustura ez izatea bat-batekoa"**

**Eusebio Gonzalez** > Psikologoa



**"Hemendik gutxira gazteak hirueledunak izango dira"**

**Eamon Fagan** > Hizkuntza akademiako zuzendaria

### hileko esaldia

**"Merkatari txikiek kontsumo ohitura eta egitura berrietara egokitu behar dute"**

**Oihana Barrutia** > Arrasateko Merkataritzako teknikaria

### hileko datua

**275**

Txatxilipurdik antolatzen dituen udaleku irekietan 275 neska-mutiko ibili ziren, 2 eta 10 urte bitartekoak. Eta udaleku itxietan, berriz, beste 115 neska-mutiko ibili ziren, 10 eta 16 urte bitartekoak.



GOIENKARIA

## Olandixoko proiektua, onartuta

Uztailaren amaieraz geroztik jendaurrean izan zen Arrasateko mendebaldeko saihesbidearen proiektua, alegazioak jasotzeko epean, desjabetu beharreko lurren zerrendarekin batera. Eta irailaren 8an bukatu zen alegazioak aurkezteko epea. Bizpahiru alegazio jaso zituen Udalak, eta horrez gainera, erabaki zuen bost eskaera egitea Gipuzkoako Diputazioari. Kontuak kontu, proiektuari behin-behineko onaspena eman zion irailean eta handik gutxira etorri zen behin betiko onespena, Udalarena lehenengo eta Gipuzkoako Diputazioarena ondoren.

**Mondragon Lingua, EAE osora**
MCCko kide Mondragon Lingua hizkuntza enpresaren lana EAEko ikastetxe gehienek erabiliko dute.

**AHTren gaineko alegazioen epea bukatzear**
AHTrekin lotutako desjabetzeen gaineko alegazio epea bukatzear zenez, Udalak ezohiko bilkura egin zuen.

### izen propioak



**J. M. Plazaola**
ARTZAINA

Gipuzkoako Artzain Txakurren Txapelketa irabazi zuen Jesus Mari Plazaola arrasatearrak, *Linda* txakurrarekin, Legazpiko Artzain Egunean.



**A. Marteatxe**
IKERLARIA

*La Séptima bienaventuranza* lana gauzatu zuen. Alemaniako erregimenaren kontra egin zuten 100 opositore politiko eta erlijiosoren biografiak batu zituzten.



**Z. Ezpeleta**
KORRIKALARIA

Zuhaitz Ezpeletak hirugarren postua lortu zuen Zegama-Aizkorri maratoian, ezustean. Horri esker, Mendiko Lasterketen Euskal Kopa irabazi zuen.


LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK
AGR García Ripa
ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA
**Erakusketa eta biltegia:**
Kale txiki 3 behea (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC
Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia
Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua
Osagarriak
Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaiak eta aulkiak

S. CARRASCAL S.L.
Guk egindakoak:
- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak
Erakusketa berria
Ekutio kalea pab. 14-15
Uribarri auzoa 4
Tel. faxa: 943 79 01 82

LANDALUZE
HARATEGIA URDAITEGIA
ITURRIOTZ KALEA, 7 TEL. 943 79 14 86
ARRASATE
Ondo pasa Gabonetan!


Euskal soinu eta irudiak zure eskura!
SOINUAK: Bidali, SOINUE hutsunea KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP hutsunea KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL hutsunea KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ hutsunea KODEA
5767 zenbakira
SMS bakoitzeko: 1,2 € + BEZa
smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak
WEBGUNEAN www.smsoinu.com

ABESTIAK POLIFONIKOAK (SMS 1)
Abestiaren izena (Abeslaria) | KODEA
Trikitixa
Bexamela ta pastela (Maixa ta Ixiar) | BEXAMELA
Bokespok (Kepa Junkera) | BOKESPOK
Hik lan eta nik jai (Tapia) | HIK
Itsas ontzi baten (Kaxiano) | ITSAS
Kupela (Epelde eta Larrañaga) | KUPELA
Mila galdera (Alaitz / Maider) | MILAI
Nirekin (Gozategi) | GOZATEGI
Ny Hirahira (Kepa Junkera) | HIRA
Txanpon baten truke (Alaitz / Maider) | TXANPON
Himnoak
Eibar | EIBAR
Athletic Club | BILBAO
Osasuna | OSASUNA
Reala | REAL
Real Union | UNION
Herrikoiak
Bagare | BAGARE
Desde Santurce a Bilbao | DESDE
Ikusi Mendizaleak | MENDI
Pintxo-pintxo | PINTXO
San Simon eta San Judas | SAN
Jaietakoak
Artillero dale fuego | ARTILLERO
Marijaia (Kepa Junkera) | JAIA
San Fermin | FERMIN
San Martzialetako alardea | SAN MARTZIAL
Folk
Arratsalde honetan (Sorotan Bele) | SOROTAN
Bai euskarari (Pantxoa) | BAI1
Bakezaleak (Anje Duhalde) | BAKE
Bizkaia Maite (Benito Lertxundi) | BIZKAIA
Eperrak (Anje Duhalde) | EPERRAK
Euskal Herrian Euskaraz (Oskorri) | EUSKAL
Euskaldun berriaren balada (Oskorri) | EUSKALDUN
Ez da posible (Ruper Ordorika) | POSIBLE
Furra Furra (Oskorri) | FURRA

SOINUAK ERREALAK (2 SMS)
1,2,3,4…Real!! | REAL
Alboka | ALBOKA
Athletic Iuep!! | IEUP
Buztan bertsoa | BERTSO
Hartu…Aitaren ta semea.. | AITAREN
Hartu…Ansar | ANSAR
Hartu…Argentinarra | ARGEN
Hartu…Mexikarra | MEXIKO
Hartu…Miamol! | MIAMOL
Independentzia! | INDEPEN
Irrintzia | IRRINTZI
Jotake irabazi arte! | JOTAKE
Milazu! (pilota) | MILAZU
Suprinua | SUPRINU
Tobera | TOBERA
Txalaparta | TXALA
Txanbela | TXANBERA
Txoootx | TXOTX

LOGOAK (SMS 1)
KODEA



OHARRAK
1.BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragarri
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.
2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatzeko, jar zaitez zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Kb jaitsiera bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sisteman alta ematea doan dira.
* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora./ * Vodafone: deitu 123-ra./ * Movistar: deitu 609-ra.
3. ZALANTZAK: Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.
4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurrira egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.

# URRIA



**"Governors da 13 urteotan egin dudanaren laburpena"**

**Juan Sangre** > Governors musika taldeko abeslaria eta letra egilea



**"Arrasate ingurua erlijio krisiaren adierazle da modernitateak eraginda"**

**Xabier Andonegi** > Erlijio Zientzietarako ikastegiko zuzendaria

### hileko esaldia

**"Euskararen arloan lan asko geratzen da egiteko, hastapenetan gaude"**

**Dani Larrea** > EMUNeko zuzendari nagusia

### hileko datua

**30**

Maritxu Kajoi ospakizunaren 30. aldia izan zen, nahiz eta orain dela 31 urte hasi jaia ospatzen. Urte batean bertan behera utzi behar izan zuten ospakizuna, herrian izandako gertaera larri batzuengatik.

## Biona itxi egin behar dutela esan zuten

Arrasateko Zurgin kantoian dagoen Biona tabernako ugazabek tabernako ateak itxi egin behar dituela iragarri zuten. Esandakoaren arabera, 2008ko martxoan itxiko ditu ateak, kontratua orduantxe bukatzen zaielako. Maritxu Komisiñuek omenaldia egin zien urrian, itxiera dela-eta.

Taberna 1955a ezkero dago zabalik; aurretik ardandegia izan zen. 1977an, berriz, sei laguneko taldeak hartu zuen, tartean Sagra Lopezek. Halaxe azaldu zuen hark: "Taldean Bengoatarren iloba bi zeudelako utzi zigutelakoan nago".

Azken 30 urteotan arrasatear askoren topaleku izan da Biona taberna.



MIRARI ALTUBE

**Kanpoko landareen izurriteari aurre**

Kanpoko landareak bertokoak kaltetzen dabiltzala-eta, kentzeko neurriak hartzea erabaki zuen Udalak.

**Aprendizen Eskola egoera eskasean**

Itxi egin behar izan zuten Aprendizen Eskola, egoera eskasean dagoelako.

> KIROLA

### Besaide Mendi Elkartea, 50. urteurreneko ekitaldietan

Udaberritik udazkenera atzeratu zuten Besaide Mendi Elkartearen 50. urteurreneko ospakizun ekitaldiak. Eta udazkenean ondo asko ospatu zuten, gainera, urteurren berezi hori, urriaren 12an hasi eta urriaren 27ra bitartean.

Ekitaldien artean, besteak beste, diapositiba emanaldiak, mendi irteerak eta bazkaria egin zituzten. Horrez gainera, Jose Ramon Fernandez Urrategik idatzitako *Besaidek mende erdia betetzen du* izeneko liburua aurkeztu zuten hil bukaeran, Kulturaten.

> EUSKARA

### Lana euskalduntzeko EMUN kooperatibaren 10. urteurrena

Urrian 10. urteurreneko ospakizun ekitaldiak egin zituen lana euskalduntzeko EMUN kooperatibak.

Bestelako ekitaldien artean, hitzaldiak eta mintegiak antolatu zituzten, Arantzazun. Baina ekitaldi nagusia urriaren 24an egin zuten. *Elkarrekin bidea egiten…* izeneko ekitaldia egin zuten egun hartan Amaia Udal Antzokian, eta, besteak beste, 10. urteurrena dela-eta prestatutako ikus-entzunezkoa aurkeztu zuten. Eta horrekin batera, erakusketa bat ere ipini zuten.

K21 KALITATEA
UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK
arotz lanak orokorrean
leihoak
ateak
horma-armairuak








ZORIONAK
ETA URTE BERRI ON!!!

altzari denda
ikerleku zeharbidea · bergara
tel.: 943 03 46 30

erakusketa eta tailerra
san juan 1a · bergara
tel.: 943 76 54 91
faxa: 943 76 08 04

# AZAROA



**"Arrasate bihotzean gordeta daukat oraindik"**

**Mikel Gorosabel** > Musikaria



**"Oso pozgarria da Microsoft bezalako enpresa bat etortzea"**

**Andoni Gartzia** > Garaia Berrikuntza Guneko kudeatzailea



GOIENKARIA

## Azaroaren 13an, Fagor Arrasate sortu zela 50 urte

Urteurren berezia bete zuen Fagor Arrasatek azaroan: 50. urteurrena; izan ere, 1957ko azaroaren 13an Fagor Arrasatek Lan Ministerioko kooperatiben erregistroan eman zuen izena. Edozelan ere, bi urte lehenago hasi zuen jarduera.

Urteurren hori ospatzeko makinatxo bat ekitaldi antolatu zuten; barrura begira batzuk, langile eta bazkideekin ospatzeko; eta kanpora begira beste batzuk, herritarrekin batera ospatzeko. Ekitaldi nagusia edo instituzionala Amaia antzokian egin zuten (argazkian).

### hileko esaldia

"Aurreko lau urteetan Udalean ez egoteak bidea zaildu du erabat"

**Ino Galparsoro** > Arrasateko alkatea

### hileko datua

# 15

MCCk Kunshangen (Txina) industrialdea eraiki zuen. 15 milioi euro inbertitu dituzte industrialdearen lehen fasean. Egin beharreko hiru faseak eraikitzean, 100 milioi izango dituzte inbertituta.

**'Harutze eta honutze Mondragoen'**
AEDk estreinatu zuen Arrasateko historia ezagutzera emateko ekimen berria; arrakasta handia lortu zuen.

**Sonografoak herriko hainbat tabernatan**
Hainbat herritarren kexuek eraginda, sonografoak ipini zituzten taberna baten baino gehiagotan.

### izen propioak



**Jokin Labaien**
BERTSOLARIA

Gasteizko Hala Bedi irratiko *Bertxoko* irratsaiotik sortutako Bertxoko txapelketa jokatu zuen arrasatearrak. Finaleraino iritsi eta irabazi egin zuen.



**Unai Busturia**
KOMIKIGILEA

Mitologiaren gaineko *Numenak Alaba* komikiaren (trilogia) bigarren atala argitaratu zuten Unai Busturia eta Julen Rivas arrasatearrek.



**Jon Andueza**
GIDOIGILEA

Jon Anduezak zuzendutako *Trikitraka Trikitron* saioak Espainiako Telebista Zientzien eta Arteen Akademiaren eskutik saria jaso zuen.

ARBEL S.A.T 16
Garantiazko pentsu naturalak

Errotabarri 1,
Tel: 945 44 51 19
Aramaio

ITURRIOSTE
GARAJEA
Nekazaritza makinen eta autoen salmenta eta konponketa.
Olio, gurpil eta balazten konponketa
Ondo ibili Gabonetan!!!
Santi Kurtz plaza 14. Tel.: 945 44 51 28. ARAMAIO

Zorionak eta urte berri on herritar guztioi!
Untzilla (Aramaio) • Tel.: 945 44 51 46 Faxa: 945 44 59 10
www.uxarte.net • uxarte@euskalnet.net


# ABENDUA



**"AHT lehenbailehen egitea da dagoen alternatiba bakarra"**

**Andoni Gartzia** > Garaia guneko gerentea



**"AHTk Europatik datozen interes erraldoiei erantzuteko balio du"**

**Ino Galparsoro** > Arrasateko parrokoa

## hileko esaldia

**"Herri txikietako eskoletan emaitzak hobeak izan dira, modu esanguratsuan"**

**Iñaki Larrea** > Psikopedagogoa

## hileko datua

# 100

Santamas egunean ehun urte bete zituen Ceciaga dendak. Mende batean hiru belaunaldi pasa dira dendatik. Mertzeria eta lentzeria negozioarekin aitajauna hasi zen, gaur egun denda dagoen toki berean.

## Hitzarmena, San Josepe harrobia berreskuratzeko

Abenduaren 4an sinatu zuten hitzarmena Arrasateko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, San Josepeko harrobia berreskuratzeko. Hitzarmen horren bitartez, Gipuzkoako Foru Aldundiak 36.000 euro bideratuko ditu harrobia berreskuratzeko ideia lehiaketa antolatzeko. Hau da, harrobiko jarduna bukatu ostean geratu den zuloan zer egin erabakitzeko ideia lehiaketa antola dezan. Udalak beste 18.000 euro ipiniko ditu. Ino Galparsorok, Arrasateko alkateak, Carlos Ormazabalek, Garapen Iraunkorreko diputatuak eta Arantza Tapiak, Mugikortasuneko eta Lurralde Antolatzeko diputatuak, sinatu zuten hitzarmena, Donostian.




GOIENKARIA

**↑ Ezkontza zibilak eskatzeko baimena**
Egokitu egin zuten ezkontza zibilak eskatzeko baimena, epe aldetik aukera handiagoak emateko.

**↓ San Andresko Cordoba y Oro plaza**
Polmetasako etxeak Cordoba y Oro plazaren erdia hartuko dutela-eta, San Andresko auzotarrak kezkatuta.

## izen propioak



**'Loramendi'**
POETA

Juan Arana Ezpeleta jaio zela 100 urte bete ziren. Hori dela eta, sorlekuan, Bedoña auzoan, Santa Eulalia jaiak aprobetxatuz omenalditxoa egin zioten poetari.



**Ari Lethonen**
AKORDEOILARIA

Arrasate Hiria nazioarteko akordeoi lehiaketaren 25. aldian, txapela Finlandiara joan zen, Ari Lethonen akordeoi jotzailearen eskutik.



**Natale Landa**
ABOKATUA

18/98 sumarioan auzipetuta zegoen Natale Landa, eta abendu hasieran atxilotu zuen Guardia Zibilak ibarreko beste bi lagunekin batera.



dukiena
JATETXEA
Azkoaga auzoa. Tel.: 945 44 50 86
ARAMAIO
dukiena
dukiena
dukiena
dukiena




Anboto
ramaixo
aberna
Musika eta giro paregabea
Bixente Goikoetxea 10. Tel.: 615 70 45 98 ARAMAIO

artizar
latza
Label kalitatea duen esnea
Gabon zoriontsuak
Zabola-Azkoaga
ARAMAIO
945 44 51 58
679 162 499

# ARAMAIO
## URTEARI BEGIRATUA
# 2007


GOIENKARIA

> EKAINA

## Ezker abertzalea alkatetzan

Irauli egin zen Aramaioko Udalaren egoera 2007ko udal hauteskundeen ostean. Izan ere, demokrazia ezarri zenaz geroztik, EA eta EAJ nazionalistek gobernatu dute Aramaioko Udala. Oraingoan, baina, ezker abertzaleak lortu zuen alkatetza; Eusko Abertzale Ekintzak, alegia. Eta botoek gehiengo osoa eman zioten, gainera, bost zinegotzirekin. EAJ hirurekin geratu zen eta EA, berriz, bakarrarekin. Hala, ekainaren 16an, EAEko zerrendaburu Asier Agirre alkate izendatu zuten.

> URTARRILA

### Aho batez onartuta milioi erdi pasatxoko aurrekontua

Udalbatzak aho batez onartu zuen osoko bilkuran aurkeztutako aurrekontua: 1.761.664,81 euro; iazkoa baino %4 handiagoa. Udal zerbitzuendako bideratu zuten partida handiena: 598.747,97 euro. Eta zerbitzuen barruan, Udalaren garbitasunerako izango da diru kopuru handiena.

> OTSAILA

### Haur eskola inauguratu zuten, Masusta izenarekin

Otsailaren 5ean zabaldu zituen ateak haur eskola berriak. Masusta izena ipini zioten eta logotipoa ere sortu zuten eskola horretarako. Ateak zabaldu zituen egun berean hasi zen zerbitzua ematen. Bederatzi umek eta bi irakaslek estreinatu zuten eraikin berria.

> MAIATZA

### Lagun Artean dantza taldeari omenaldia, 50. urteurrenean

100 bat herritarrek bat egin zuten Lagun Artean taldeari omenaldia egiteko. Dantza saio erraldoia eta bazkaria (hori ere handia) egin zituzten, besteak beste. Gonbidatuen artean, Aramaioko dantza taldearen sorrera bultzatu zuen Gasteizko Oldarki taldeko ordezkariak izan ziren.

> APIRILA

### ASE, Aramaioko Sagarzaleen Elkartea ofizialki eratzen

Aramaioko 24 baserri bazkide egin ziren ASEko kide. Behin-behinerako lokala ere eskuratu zuten, Udalak utzitakoa, kultura etxearen azpiko aldean. Apirilean hasi ziren, beraz, elkartea modu ofizialean eratzeko pausoak ematen. Uda ostean, elkarterako makinak ekarri zituzten.

ARAMAIOKO UDALA
ARABA

"Aramaioko Udalbatzak Gabon zoriontsuak opa dizkizue aramaioar guztioi, eta bereziki etxetik kanpo zaudetenoi!"



AHT gelditu! ELKARLANA

Bizente Goikoetxea plaza 1 • ARAMAIO • Tel.: 945 44 50 16
• E-posta: udala@aramaio.org

EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA



ARRITXU BARRUSO

> URRIA

## Maider Unda Olinpiadetan izango da

Maider Unda borrokalari aramaioarrak 2008an Pekinen jokatuko diren Olinpiar Jokoetan parte hartuko du. Aramaioarrak bederatzi aldiz jarraian irabazi du Espainiako txapelketa eta mundu mailan ere emaitza oso onak lortu ditu. Oletarra 10 urterekin hasi zen borroka librea egiten eta 21 urterekin hartu zuen borroka profesionalean aritzeko erabakia.

> IRAILA

## %97k ezetz esan zuten AHTren galdeketan

Irailaren 30ean AHTren inguruko inkesta egin zuten Aramaion eta bozkatutako herritarren %97k azpiegitura horren aurkako iritzia eman zuten. Udaletik balorazio positiboa egin zuten lortutako emaitzen inguruan. Inkestak ez zuen legezko baliorik, baina Aramaioko Udalak herritarrek AHTren inguruan zeukaten iritzia jakin nahi zuen.

Espainiako Gobernuko ordezkariak, Paulino Luesmak, inkesta debekatu egin zuen, baina Udalak debekuaren gutuna inkesta egin ostean jaso zuen, astelehenean hain zuzen ere. Hori horrela, Asier Agirre alkateak Gasteizko Epaitegian deklaratu beharra izan zuela.



SAGARDOZALEEN ELKARTEA Makina berriekin lanean. ARRITXU BARRUSO

> URRIA

## Sagardozaleen Elkartekoek sagarren zukua atera eta pasteurizatzeko makina berriak erosi zituzten

Aramaioko sagardozaleek aurreko urteetan baino dezente samurrago atera dute aurten sagarren zukua, eta baita berau pasteurizatu ere. Makina berriak erosi zituzten horretarako eta Udalak utzitako lokalean jarri zituzten. Baina hau proiektu handi baten hasiera besterik ez da izan, etorkizunean lokal handiago batera aldatu eta sagarrarekin egindako produktu gehiago ekoiztea da asmoa.

> AZAROA

## Ibarra auzorako bi auzo alkate aukeratu zituzten azaroaren 25ean

20 urte inguru dira Ibarran auzoan auzo alkaterik ez zegoela. Udalbatza berriak, baina, Ibargoia eta Nardeagarako auzo alkate bi izendatzeko erabakia hartu zuen. Hilaren 25en egin zuten bozketa eta Jose Carretero eta Bizente Goikoetxea izango dira hemendik aurrera gune horietako auzo alkateak.

> AZAROA

## Juan Miguel Loitik EAJko zinegotzi kargua hartu zuen

Azaroari zegokion osoko bilkuran hartu zuen Juan Miguel Lotik EAJko zinegotzi kargua. Iñaki Nafarratek, zinegotzi ohiak, irailaren 7an aurkeztu zuen dimisioa Foru Aldundira joateko. Hori horrela, Txema Vilches da orain EAJko bozeramailea eta hirugarren zinegotziaren eserlekua Juan Miguel Loitik hartu du.

> ABENDUA

## Bertxoko txapelketan publikoaren saria lortu zuen Manex Agirrek

Etxabarri Ibiñan jokatutako bigarren finalerdian kanporatu zen bertsolari aramaioarra Gasteizen jokatu zen finalerako. Txapela Jokin Labaien arrasatearrak lortu zuen arren Manex Agirren ez zen esku utzik itzuli etxera. Bertxoko bertso txapelketako publikoaren sari berezia irabazi zuen aramaioarrak.











GABONETAN
EZ GAZ DANOK!
KEPA URRA
JON AGIRRE
JOSU URIBETXEBARRIA
LUIS MARI AZKARGORTA
PREMIN SANPEDRO
TXUS GOIKOETXEA
JOSU ARKAUZ
UNAI PAROT
ARATZ GOMEZ
JOSE I. GAZTAÑAGA
JESUS MARI ZABARTE
JOSE GABRIEL URIZAR
IGOR LETONA
KRISTINA GOIRIZELAIA
AMAIA ARRIETA
GORKA AZTIRIA
GAIZKA OLABARRIETA
NATALE LANDA
EUSKAL PRESOAK
EUSKAL HERRIRA
ERREFUXIATUAK
ETXEAN NAHI DITUGU!
Arrasateko Alde Zaharreko tabernak:
Irati, Iluntz, Ekaitz, Iturriotz, Biona, Basati, Jai-Zale, Muxibar, Dat

Goienkaria

Egubakoitza / 2007ko abenduaren 28a / GOIENKARIAREN ARGITALPEN BEREZIA










# ARETXABALETA

## URTEARI BEGIRATUA

# 2007







ARGAZKIAK: GOIENKARIA

KOOP. E.



Gabonak Zoriontsu eta bakean pasa ditzagun.

Urte Berri On !!

EGUZKiGRAF inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
Araba ibilbidea
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com

## Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

# hemen bada giro!




































# URTARRILA



**"Diru asko dago eta jendeak kanpora joateko ohitura hartu du"**

**Jon Kepa Zubillaga** > Gurea tabernako jabea



**"Barriketan egitasmoa aukera ona da herriko euskara erabiltzeko"**

**Maitane Urrutia** > Zinegotzia eta Barriketan egitasmoko emailea

hileko esaldia

**"Oso denboraldi gogorra izango da, jokalari benetan onak daudelako talde askotan"**

**Aitor Alcaide** > Arlutz xake taldeko jokalaria

hileko datua

**25**

Larrino auzoan dagoen San Kristobal elkarteak 25 urte bete zituen urtarrilaren 17an. Gotzaindegiari eskatutako etxean egin zuten elkartea, eta 34 kide izatetik 74 izatera pasatu da 25 urtean.



M.A.

## Bidegorriaren lanak bukatzen hasi ziren

Urtea bukatu aurretik hasi ziren herriko tarteari dagokion bidegorria txukuntzen. Udalak bere gain hartu zuen 192 mila euroko lanen ardura, eta urtarrilean bukatu zuten, industrialdetik Eskoriatzara bidean dagoen tunelerainoko tartea asfaltatu eta gero.

Hala ere, bi zati geratu ziren konpondu barik: Arrasatetik CVL lantegira artekoa eta lehen aipatutako tuneletik Eskoriatzarainokoa. Lan horiek Aldundiko Garapen Iraunkorraren eskuetan geratu ziren, eta urtarrilean kaleratu zuen lanok egiteko deialdia.

**Loramendi literatura lehiaketan 290 lan**
19. Loramendi literatura lehiaketan inoiz baino lan gehiago jaso zituzten, 290 guztira, eta gehienak onak.

**Bertan behera eski irteera**
Elur gutxi zegoelako utzi zuen bertan behera Murrukixo MEk Portaletera egin gura zuen eski irteera.

> NAGUSIAK

### Kalitatezko zerbitzua eskatu zuen Aralarrek zaharren egoitzarako

Kalitatezko zerbitzua eta publikoa eskatu zuten Aretxabaletan egingo duten zaharren egoitza berrirako Aralarko hiru zinegotziek eta Rebeka Ubera batzarkideak. Era berean, informaziorik eza salatu zuten, Urats Gain zaharren egoitzako fundazioak ez zuelako bilerarik egin azken urtean.

Aralarko kideek zera eskatu zuten: informazioa; egoitza herri erdialdean kokatzea; irisgarritasunaz gain beste baldintza batzuk betetzea; oraingo langileak onartzea eta lan baldintza duinak eskaintzea.

> LUDOTEKA

### Zerbitzu zabalagoa ematea helburu, domekan ere zabalik

Zerbitzu zabalagoa emateko helburuarekin ludotekako ordutegian hainbat aldaketa egin zituzten. Hala, 17:00etatik 18:30era, 4 eta 6 urte artekoendako hasi ziren zabaltzen eta 18:30etik 20:00etara, 7 eta 12 artekoendako. Eta zapatu goizetako zerbitzua ume guztiendako jarri zuten.

Negu partean, gainera, domeka arratsaldeetan zabaltzea erabaki zuten, 8 eta 12 urte artekoendako. Urtarrilaren 21etik martxoaren 25era bitartean hainbat ekitaldi antolatu zituzten ludotekan.

**OPEL ANTARA BERRIA**




**OPEL CORSA BERRIA**



**Zorionak eta urte berri on!**

**GARAJE NORTE S.L.**

Basabe bidea A 1-3 ARETXABALETA
Tel.: 943 71 20 03 Faxa: 943 77 16 20

# OTSAILA



**"Tasak ez du oztopo izan behar kirola leku itxian egin gura duenarendako"**

**Iñaki Saez de Azkunaga**
> Ongizate Saileko zinegotzia



**"Komunistak direnik ez diet igarri; hori bai, oso kontrolatuta daude"**

**Oier Etxebarria** > Copreciko langilea Txinan

### hileko esaldia

**"Ziur gaude gutxiengo gehiengoa lor dezakegula eta alkatetzarako aukerak izan"**

**Edorta Mendieta** >
Aretxabaletako EAko kidea

### hileko datua

**500**

Giro bikaina sortu zuten Aratuste-domekako herri bazkarian elkartu ziren 500 lagunek. Kirol etxean egin zuten, eta San Kanuto Eguna antolatzen duen taldeari eman zion ardura Udalak.



M.A.

## 14 milioi euroko udal aurrekontua onartuta

Otsailaren 5ean eztabaidatu eta onartu zuen udalbatzak 14.233.975 euroko udal aurrekontua. Aralar alderdia ez zen ados azaldu: lanak eta lanak egiten dabiltzala aurreikuspen barik eta gastu soziala ez dela aurrekontuen proportzioan igo aipatu zituen, beste batzuen artean. Inbertsio batzuekin ere ez zeuden konforme, eta ezetza eman zioten.

Hauek dira onartutako inbertsio aipagarrienak: Otalora, Mitarte eta Herriko plazako saneamendu lanak, 2.489.577 euro; kulturarako eraikinaren ekipamendua, 1.140.617 euro; eta lursailen erosketa 600 mila euro.

**Aozaratzako eliza aurrea berrituta**
Galtzada-harria jarri zuten eliza aurreko plazatxoan, argiteria berritu eta kanposantuko espaloia konpondu.

**Aluminios de Precision SL (Lucio Garay) itxi**
Burgosen beste lantegi bat zabaltzeko asmoa azaldu zuen jabeak, eta herrikoa itxi. 80 langile inguru zituen.

### izen propioak



**Ivan Vaz**
DISEINATZAILEA

Euskal Diseinatzaile Onenaren lehiaketan hartu zuen parte, Barakaldon, eta bigarren geratu zen. Madrilen zebilen lanean, Terraplen enpresan.



**Aitor Bengoa**
AHT GELDITU!

AHT Gelditu! Elkarlana sortu zuten herrian, eta argibideak emateko astea antolatu. Berbaldiak, bideo emanaldiak eta irteera egin zuten.



**Pili Sagasta**
ESPETXE PASTORALA

Preso politiko eta sozialei bisitak egin eta babesa emateko taldea sortu zuten parrokiaren inguruan, eta martitzenetan hasi ziren elkartzen.

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak
Mitarte 7, behea
ARETXABALETA
Tel.: 943 77 00 33 / 79 42 56

PIENSOS UNZUE S.A.
FELIX PAGALDAY

Zorionak eta urte berri on!



Olentzero,
Gabon zahar gaua,
Bizar Zuri,
urte berria,
erregeak...
guk ere egun seinalatu hauek zuekin ospatu nahi ditugu.

Aretxabaletako Eusko Alkartasuna

# MARTXOA



**"Zilarrezko Qa banatzeko ekitaldia langileok eskertzeko ekitaldia da"**

**Amaia Arantzabal** > Aretxabaleta institutuko zuzendaria



**"Ez gara klasikoak, osagarri deigarrienak lehenengo saldu ditut"**

**Aintzane Aizpurua** > Lie lurrindegi eta opari dendako jabea

## hileko esaldia

**"Elkartea sortu dugu Goroetako eskola eta maisu-etxea auzoarendako izan daitezen"**

**Jesus Mari Madinabeitia** > LIzasoain elkarteko presidentea

## hileko datua

**50**

Uratz Alde elkarteak 50 urte bete zituen, eta zaindari duen San Jose egunaren inguruan egin zuten ospakizun nagusia. Bazkide sortzaileak omendu zituzten, eta 75 lagun elkartu ziren bazkaltzeko.

## Zaharren egoitza berria egiteko hitzarmena

Martxoaren 28an sinatu zuten hitzarmena Aldundiak eta MCC eta LKSk, adinekoendako eta mendekotasuna duten pertsonendako egoitza egiteko Aretxabaletan. Untzillarako bidean, Egillior baserri azpiko lurrak aukeratu zituzten egiteko, eta 10 milioiko aurrekontua aurreikusi.

Proiektuaren arabera, 170 pertsonari emango die zerbitzua, eta Debagoien osoko biztanleendako izango da. 170 lekuetatik 30 aldi baterako izango dira, gehienez urtebeterako. Gainerako 140 lekuetatik erdiak Aldundiarekin hitzartutakoak dira. Bestalde, eguneko zentroa ere izango du, 30 lagunendako. 110 langilek jardungo dutela esan zuten.




MCC

**Herriko zirkulazioa arautzeko ordenantza**
Herriko ibilgailuen zirkulazioa arautuko zuen ordenantza onartu zuen Udalak.

**Azbe lantegiko langileak oso kezkatuta**
Berregituraketa egiteko asmoa azaldu zuen enpresak, eta 76 langiletik 40ri eragingo ziela esan.

## izen propioak



**Xabier Altube**

IDAZLEA

Bilboko Udalak antolatutako Gabriel Aresti ipuin lehiaketa irabazi zuen, *Aldaera#01* ipuinarekin. Datorren urtean argitaratuko dute ipuina.



**Martin Zaloña**

BASOTXO ELKARTEKO PRESIDENTEA

Erretiratuen elkarteak zuzendaritza berritu zuen; Martin Zaloña presidente izendatu zuten eta Itziar Errasti presidenteorde.



**Imanol Ramos**

ARETO FUTBOL JOKALARIA

Eskoriatzako taldeko atezaina da, eta Galizian izan zen gazteen areto futboleko txapelketa jokatzen, Euskadiko selekzioarekin.


Mitartegarai
Baserri turismoa eta taberna
Zorionak denoi!
• Batzar gela.
• Jangela.
• Logelak.
• Etxeko produktuen salmenta.
Areantza auzoa ARETXABALETA Tel.: 943 79 17 51



# APIRILA



**"Anitza da Herriko Plaza, ez ugaria. Dagokionetik ez du asko"**

**Katalin Antxia** > Kazetaritzako ikaslea



**"Euskara Udaleko lan hizkuntza izatea eskatuko nieke agintariei"**

**Itsaso Ezenarro** > Udaleko Euskara teknikaria

### hileko esaldia

**"Ume mordoa agertu da liburu truke azokan, eta eurek egin dute guztia, jarri eta kendu"**

**Maider Etxaniz** > Gazteria teknikaria

### hileko datua

**20**

Apirilaren 29an, 20 neskamutikok egin zuten jaunartzea Andre Mariaren Zeruratze parrokian. Beste urte batzuetan ez bezala, herriko guztiek batera egin zuten, eta auzoetakoek euren elizetan.

**Hondakin organikoak batzeko izenematea**

Hondakin organikoak batzen hasteko egitasmoan sartu zen Udala, eta izena emateko dei egin zuten.

**Parte-hartze txikia berbaldietan**

Iesbaa elkarteak eta Udalak antolatutako elkartasunaren gaineko berbaldietara herritar gutxi joan zen.



M.A.

## Kulturako eraikinarendako 600.000 euro

Hitzarmena sinatu zuten Aldundiak eta Udalak, eraikitzen zebiltzan kulturarako eraikinari laguntzeko. 600.000 euro ematea onartu zuen Aldundiak, eta Joxe Joan Gonzalez Txabarri diputatu nagusia etorri zen hitzarmena sinatu eta eraikina ezagutzera.

Musika eskola, kultura etxea eta liburutegia eraikitzeko lankidetzan jarduteko asmoa azaldu zuen Aldundiak dirulaguntzarekin. Aipatutakoez gain, gaztelekua eta hitzaldi edo erakusketa aretoa ere bazituen eraikinak, eta ekainean bukatzea aurreikusita zuen Udalak.

> INGURUMENA

## Bidegorria bukatzeko geratzen ziren bi zatien lanak esleituta

Herriko bidegorria guztiz bukatzeko bi tarte zeuden egiteko. Aldundiaren ardurapean geratu ziren biak, eta apirilean jakinarazi zuen nork egingo zituen.

Aretxabaletako iparraldeko sarreratik CVL lantegirainoko tartea –209 metro– Excavaciones Olloquiegi SAri eman zioten, eta ia 217 mila euroko aurrekontua zuen. Bigarren tartea Eskoriatzara bideko tuneletik mugarainokoa zen, eta Probisa, Tecnologia y Construccion SA enpresari esleitu zioten, ia 102 mila euroko aurrekontuarekin.

> HIRIGINTZA

## Errentan emateko etxe sozialen giltzak banatu zituzten

Etxebizitza sozialen giltzak banatu zituen Jaurlaritzak apirilaren 18an, eta 15 herritarrek jaso zituzten. Zozketa 2004ko ekainean egin zuten, eta orduan 18 etxebizitza banatu bazituzten ere, bukatutakoan hamabosti eman zizkieten; gehienak herriko gazteak. Gainerako bostak Jaurlaritzaren eskuetan geratu ziren momentu hartan. Errentan hartu zituzten etxeok, eta bost urterako izango dituzte. Epea bukatutakoan luzapena eskatu ahal izango dute, eta urtero jarraipena egingo dietela adierazi zien Jaurlaritzak.

GARBITTU KOOP. ELK.
Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak
Obra bukaerako garbiketak
Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak
Kristalen garbiketak
Zorionak eta urte berri on!
Errekabarren 3- Behea ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28 / Mugikorra: 629 45 02 21
garbittu@euskalnet.net

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala
Andra Mari auzunea 3
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 29 26
ANDRA MARI Aholkularitza
Jai zoriontsuak eta urte berri on!

DEBAGOIENAKO ERAIKUNTZAK
CONSTRULAN S.L.

Jatetxeak, Tabernak, Kafetegiak, Parkeak,
Dendak, Banketxeak, Sukaldeak, Bainuak,
Barrualde zein kanpoaldean
BERRIKUNTZAK

Zuzendaria: Carlos Rodrigues (629 533 499)
Soraya Arquero (679 455 764)



Gabon jai zoriontsuak guztioi!

Basabe poligonoa 4, EO-11 20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 51 / 608 772 867 Faxa: 943 77 15 03
e-mail: construlan@euskalnet.net www.construlansl.com







GUREA

Ondo pasa gabonak!

TABERNA

Durana 32 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 64

Fino

Gizonezkoen
ile apaindegia

*Ondo pasau gabon jaixak!*

Durana 19 • Aretxabaleta
Tel.: 666 264 886



Urte berrian, ez dakizula falta lortzeko ametsik,
garatzeko proiekturik,
ikasteko eta irakasteko zer eginik,
eta errespetuz jokatzeko kemenik

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!!

aretxabaletako
aralar

# MAIATZA



**"Elkartrukean ingelesa ikasi dugu, jendea ezagutu eta harremanak sendotu"**

**Maddi Bengoetxea** > Ikaslea



**"Aurrera egiten jakin dugu eta igoera fasean sartzea saria izan da"**

**Martin Antxia** > Areto futbol taldeko jokalaria

### hileko esaldia

**"Euskararen Egunean urtetik urtera gehiago bustitzen dira elkarteak Loramendirekin"**

**Larraitz Iñurrategi** > Loramendi EEko dinamizatzailea

### hileko datua

# 4

Iragarki-taulak jarri zituzten herriko lau lekutan: bi Araba ibilbidean eta bana Mitarte kalean eta Durana kalean. Udalaren zein herritarren ohar eta deialdiak jasotzea zuten helburu taulek.



M.A.

## Aretxabaletarrak Berbetan proiektua

Aretxabaletarrak Berbetan proiektua bultzatu eta lagundu zuen Udalak, eta maiatzean proiektuaren nondik norakoak aurkeztu zituen. Ekitaldian bertan eskerrak eman zizkien esku hartutako adindunei.

Berbetan proiektuaren helburua zen aspaldiko ohitura, bizipen eta hizkera jasotzea herriko nagusienengandik. Horretarako makina bat elkarrizketa egin zizkieten herriko aitona-amonei azken urteotan. Hala, gure historiaren eta ondarearen berri jaso zuten, eta testigantza horiek guztiak Udalaren webgunean jarri zituzten eskuragarri.

**Loratergiak txukuntzen**

Herriko lorategiak txukuntzen eta berriak sortzen jardun zuten; Duranan zintzilik jarri zituzten loreak.

**Margo gorria PSE-EEko hautagaiaren etxera**

Udal hauteskunde bezperatan margo gorria bota zuten Ainhoa Sagarribai hautagaiaren etxera.

> HAUTESKUNDEAK

### Legez kanpo utzitako EAE garaile udal hauteskundeetan

Maiatzaren 27ko udal hauteskundeetan legez kanpo utzitako Eusko Abertzale Ekintzak jaso zituen boto gehien, 849; ondoren Aralar izan zen bozkatuena 593 botorekin; EAk 530 jaso zituen; EAJk 504; PSE-EEk 400; Ezker Batua/Zutikek 161; eta PPk 127. 5.426 herritarrek zeukaten botoa emateko eskubidea, eta abstentzioa %40,6 izan zen.

EAEri lau zinegotzi zegozkion, baina Alderdien Legeak lau talderen artean banatu zituen, eta honela utzi: Aralarrek 4 zinegotzi; EAk 3; EAJk 3; PSE-EEk 2 eta Ezker Batua/Zutikek 1.

> INGURUMENA

### Energiaren eta uraren gainean jardun zuen Eskola Agenda 21ek

Kurtzebarri eskolako Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleek energiaren eta uraren gainean egindako lana aurkeztu zioten udalbatzari ezohiko osoko bilkuran. Azterketa lan sakona egin zuten herrian, eta zer hobetu proposatu Udalari, Oñatiko Natur Eskolakoen laguntzarekin.

Alkateak zoriondu egin zituen lan mardula egin zutelako, eta agindu zien proposamenak Hirigintza batzordean aztertuko zituztela lehenengo eta erabakiak, gero, osoko bilkuran onartu.

GARCIA ENBALATZEAK

• Enbalatze tolestagarriak
• Paletak
• Egur kutxa eta kaiolak
• Mota guztietako taulak
• Aglomeratuak, tablexa, DM, etab.
• Enkofratzeko taula



Etxabarri Auzoa 9 - 193 P.-K.
Tel.: 943 79 81 36 Faxa: 943 79 82 38
20550 ARETXABALETA GIPUZKOA

Subinoa 10 – Gojain industrialdea
Tel.: 945 46 62 09 Faxa: 945 46 56 33
01171 LEGUTIANO ARABA

www.embalajesgarcia.com
e-posta: garcia@embalajesgarcia.com

# EKAINA



**"Futbol eskola izango da erreferente UDAko talde federatuak osatzeko"**

**Jokin Antxia** > Aretxabaleta Kirol Elkarteko presidentea



**"Galizian junior mailako txapelduna izan naiz eta Lleidan bi sari jaso ditut"**

**Unai Mendikute** > Akordeoilaria

## hileko esaldia

**"Aretxabaletakoa naiz, eta urte asko kanpoan bizi izan banaiz ere, hemengoa naiz"**

**Damaso Zuazua** > Karmeldar erlijiosoa

## hileko datua

# 7

Lurperatu egin zituzten Ilargi plaza pareko edukiontziak. Herrian lurperatutako lehenak izan ziren, zazpi guztira, eta ekainean jarri zituzten erabilgarri, lanek uste baino luzeago iraun ostean.



M.A.

## Aralarko Inaxio Garro izendatu zuten alkate

Aralar alderdiko Inaxio Garro izendatu zuten alkate gehiengo osoarekin –zazpi boto– ekainaren 16an. Hiru ordezkari ez ziren eseri osoko bilkurako mahaiaren bueltan, eta ez zuten zinegotzi kargurik hartu: Aralarko Jon Ander Loidi, EAko Andres Lezeta eta EAJko Neida Gabilondo. Hortaz, hamar kidek osatu zuten udalbatza. Lasaitasuna izan zen nagusi Udalaren eraketan, eta legez kanpo utzitako EAEko lau ordezkariak –Anjel Bergaretxe, Larraitz Arando, Iñaki Iturri eta Nerea Altuna– osoko bilkurako mahaiaren bueltan esertzera gonbidatu zituen alkate berriak.

### Giro ezin hobea Mundumiran

Bikain antolatu zuten munduko kulturen festa eta jende asko erakarri zuen, giro ezin hobea izan zen herrian.

### Bidegorria itxita oinezkoendako

Aretxabaleta eta Arrasate arteko bidegorria itxi egin zuten lanak bukatzeko eta ez zuten beste biderik egokitu.

> KULTURA

## Urkuluren gaineko liburua argitaratu zuen Udalak

*Urkulu leiho irekia. Naturalmente Aretxabaleta* liburua argitaratu zuen Udalak, Naturgintza Fundazioaren laguntzarekin. Argazki liburua zen eta gehienak ziren Ane Idigoras aretxabaletarrarenak, beste batzuk Argazki Taldearen zenbait bildumatakoak eta Santiago Yaniz bilbotarrarenak. Zenbait herritarren artikuluak jaso zituzten, gainera; besteak beste, Aitor Antxia eta Jose Ramon Intxausperenak.

3.000 ale argitaratu zituzten, eta astebetean 100 liburutik gora saldu ziren herrian bertan.

> POLITIKA

## Gobernu onerako hitzarmena egin zuten EAEk, EAk eta Aralarrek

Hauteskundeek Aretxabaletan utzitako egoera zaila gainditu eta Udala herritar guztien ordezkariekin osatzea izan zen hiru alderdiek sinatutako hitzarmenaren helburua; hala, herria normaltasun eta elkarbizitza parametroetan kokatzeko. Udal gobernua osatu eta programan akordioak lortzeko batzarrak egingo zituztela iragarri zuten, eta Udalean legezko ordezkaritza barik zeudenei zegokien ordezkaritza izateko bideak aztertuko zituztela.

Hitzarmena beste alderdi batzuei ere eskaini zieten.

NURR gortinak
Loramendi 8
Tel.: 943 53 26 53
ARETXABALETA
Gabon zoriontsuak igaro!
Nordikoak
Toallak
Izarak
Pijamak
Lentzeria
•
Gortinak eta estoreak
•
Jantzien konponketak egiten dira



Lie
Mitarte, 18
Tfnoa.: 943 79 38 59
20 550 Aretxabaleta
Zorionak eta urte berri on!



# UZTAILA



**"Nagusienak ez aspertzeko irteerak egin behar izaten ditugu"**

**Larraitz Garai** > Udaleku irekietako zuzendaritzako kidea



**"Bizi baldintza benetan penagarriak dituzte Saharako desertuan"**

**Olaia Sagredo** > Iesbaa elkarteko arduraduna

### hileko esaldia

**"Botatzen duten keak zein partikula dituen eta osasunerako kaltegarria den jakin gura dugu"**

**Martxi Perez** > Markole auzoko bizilaguna

### hileko datua

**10.000**

Ekuatore Gineako Mitemelete herrian oiloak hazi eta saltzeko proiektua zuen abian Hiruatx elkarteak. Urtea bukatu baino lehen 10 mila oilorendako oilategia eraiki gura zuten.

## Ibarra futbol zelaia berritzen hasi ziren

Zaragozako Mondo Iberica enpresari eman zioten futbol zelaiko belarra aldatzeko ardura eta uztailean hasi ziren lanean. Egoera eskasean zegoen belar artifiziala aldatu, kanoi bidezko ureztatze sistema berritzailea jarri, eta ate-sareak eta ordezkoen aulkiak aldatzea hitzartu zuten. Lanok 339.120 euroren truke egitea adostu zuten eta 27 egunetan bukatzea –esandakoa baino luzeago iraun zuten gero–. Gainera, 20 urterako bermea eskaini zuen enpresak.



M.A.

### izen propioak



**Lore Martinez**

ZINEGOTZIA

Aralarren eta EAren eskuetan geratu ziren Udaleko batzorde guztiak, EAEk eta EAJk gobernuan ez sartzea erabaki zutelako. Alkateak eta Martinezek hartu zituzten ardura gehien.



**Igor Arenaza**

ENTRENATZAILEA

Igor Arenaza eta Gaizka Heriz, UDAko jokalari ohiak, preferente mailako futbol taldeko entrenatzaile izendatu zituen UDAko zuzendaritza batzordeak batzar orokorrean.



**Aitor Murua**
**Unai Zunzunegi**

TRIALSINLARIAK

Trialsineko munduko txapelketa jokatu zuten, Bartzelonan, eta gustura itzuli. Espainiako txapelketan hirugarren geratu zirelako –nor bere mailan– sailkatu ziren.

EAJ PNV
Aretxabaletako EAJ/PNV-k
gabon zoriontsuak opa dizkizue aretxabaletar guztioi!

# ABUZTUA



**"Ordenagailuarekin marraztutako kartela aurkeztu dut"**

**Jokin Carrillo** > Andramaixetako horma-irudiaren egilea



**"Ez dakit sekula izan dugun hainbeste trikitilari begira"**

**Ines Osinaga** > Gose musika taldeko kidea

**hileko esaldia**

**"Futbol zelaiko lanak guztiz bukatzeko txikikeria batzuk geratzen dira egiteko"**

**Jokin Antxia** > UDAko presidentea

**hileko datua**

**69**

Andramaixetako txirrindulari lasterketa 69. aldiz antolatu zuten. Espainiako gerra sasoian bakarrik geratu zen egin barik, gainerakoan urtero-urtero antolatu izan dute; baita aurten ere.

## Jende askorik ez, baina giro polita Andramaixetan

Azken urteotan legez, ez zen jende askorik izan herriko jaietan, baina bai giro polita. Inaxio Garro alkate berriak eman zien lehenengoz jaiei hasiera. Andramari eguneko euri zaparradek bertan behera utzi zituzten hainbat ekitaldi, baina jendea ez zen etxean gelditu. Buruhandi berriak agertu ziren umeen gozagarri; 69. txirrindulari lasterketak ikusmin handia sortu zuen; Losdelgas taldekoen ikuskizuna gustura baino gusturago jarraitu zuten askok; eta herri bazkaria 600 lagunendako gertatu zuten.



M.A.

**HIRIGINTZA** > KULTURARAKO ERAIKIN BERRIA

## Bukatzen kulturarako eraikinaren lanik handienak

Kulturarako eraikin berriaren lanak ekainean bukatuko zituztela hitzartu zuten Udalak eta Brues y Fernandez enpresak, baina ezin izan zuten esandakoa bete. Lanok zelan zihoazen aurreikusita, idatzia aurkeztu zion maiatzean enpresak Udalari, epea luzatzeko eskatzeko.

Era berean, eraikinaren proiektua idatzi zuen eta lanen zuzendari izan zen Alberto Sanz arkitekto bilbotarrak ere luzapena eskatu zuen. Lanok zelan zihoazen jaso zuen txosten baten, eta enpresa eraikitzaileak aurkeztutako eskaera aintzat hartzeko eskatu. Udalak bi idatziak aztertu zituen eta Sanz arkitektoak egindako txosteneko ondorioak kontuan hartzea erabaki zuen. Hala, eraikinaren lanak bukatzeko azken data abuztuaren 18a ezarri zuen jardunean zegoen gobernu batzordeak.

Eta halaxe izan zen: eraikinaren lanik handienak –gaztelekua, kultura etxea, liburutegia eta musika eskola– abuztuan bukatu zituzten. Erabilera askotariko aretoa, ostera, lan handiagoa eskatzen zuenez, bukatu barik geratu zen.



# IRAILA



**"Ez zan EAE-ANVko alkaterik ezauketako aukerarik egon"**

**Irati Pagoaga** > Irakaslea



**"Eskoletan eskaini gura dugu xakea, eskaera badago-eta"**

**Aitor Alcaide** > Arlutz xake taldeko kidea

### hileko esaldia

## "Gure ordezkariek zinegotzien eskubideak izan ditzaten Udalean badago aukera"

**Josu Atxaga** > Eusko Abertzale Ekintzako kidea

### hileko datua

## 260

Haur Dantzarien Egunean 260 ume inguru elkartu ziren herrian. Arrasateko talde bi, Antzuolakoa eta Oñatikoa etorri ziren Loramendi Dantza Taldearekin batera herria girotzera.




M.A.

## Plan orokorra lantzeko herritarrei deia

*Nolako Aretxabaleta nahi duzu 10 urte barru?* galdetu zien Udalak herritarrei idatzi baten bitartez. Galdera hausnartu eta erantzunak jaso gura zituen, eta jasotako proposamenekin plan orokorraren aurrerakina zehaztu. Elhuyar taldearen laguntzarekin jarri zuen abian egitasmoa, eta sei lantalde egin zituzten herritarrekin: herrian bertan bizi direnen taldea; auzoetako ordezkariena; merkatari, ostalari eta zerbitzuetako kideena; lan esparruko arduradunena; elkarteetako kideena; eta alderdi politikoetako ordezkariena. Abendua bukatu bitartean egin zituzten batzarrak aipatutako taldeek.

**Saharako umeei agur**

Saharatik etorritako mutiko bi egon ziren herrian udan. Itzuli aurretik agur ekitaldia egin zien Udalak.

**Ikuskizuna bertan behera**

San Migeletako *Bideak* dantza ikuskizuna bertan behera geratu zen sorgailua hondatu egin zelako.

> HIRIGINTZA

### Urkulura bidean dagoen ur-depositua handitzen hasi ziren

Herria urez hornitzen duen ur-depositua handitzen hasi zen Aldundia, Udalak eskatuta. Construcciones Murias SA enpresak egin zituen lanok, 977.670 euroko kostuarekin, eta bederatzi hilabete iraungo zutela aurreikusi zuten.

Aurretik zegoen depositua-ren alboan edukiera bereko beste bat eraikitzen hasi ziren, hau da, 2.000 metro kubikoko depositua. Hala, ur-depositua-ren edukiera 4.000 metro kubikokoa izango zen bukatutakoan. Lanok iraun bitartean depositu zaharra erabili zuten.

> KULTURA

### Kanpai jotzearen gaineko materiala egin zuten areantzarrek

Areantza auzoko kanpai jotzaile eskolak kanpaiak jotzen ikasteko materiala sortu zuen, eta Agorreko Andramaixetan aurkeztu. Kanpandorrean ikastea zaila izanik, paperean izatea interesgarriagoa izango zelakoan jarri zuten abian ekimena. Material didaktikoa ikus-entzunezko formatuan zetorren DVD batek eta hainbat grafikok eta partiturak osatzen zuten.

Kanpaiak jotzeko ohitura gal ez zedin auzo ezberdinetako bizilagunak elkartzea izango litzatekeela onena esan zuten areantzarrek.

Larringan




Urtarriletik aurrera B + E ikastaro teorikoak eta
Egoki gidatzeko ikastaro teoriko eta praktikoak doan
Arrasaten eta Aretxabaletan.
Egoki gidatzeko ikastaroa egiten dutenei diploma emango zaie.

Informazio gehiago nahi izanez gero deitu ezazu Arrasateko edo
Aretxabaletako bulegoetara.

Arrasate - Tel: 943 79 22 96
Aretxabaleta - Tel: 943 79 60 38

# URRIA



**"Bultzatu behar dugu hutsik dauden etxeak errentan ematea"**

**Tomas Fernandez** > Ezker Batua-Berdeak taldeko zinegotzia



**"Alkateari eskatzen diogu jazarpena jasaten dutenen alboan egoteko"**

**Ainhoa Sagarribai** > PSE-EE alderdiko zinegotzia

**hileko esaldia**

**"Baserri guztien aurrealdean seinaleak jarriko ditugu izenekin"**

**Martin Garai** > Udaltzainburua

**hileko datua**

**260**

Udalak erretiratuen omenez antolatutako egunean 260 lagun elkartu ziren bazkaritara. Herriko emakume zaharrena, Margarita Lasagabaster, kafea hartzera joan zen; hil hartan bertan zendu zen.

**Murubideko bizilagunen eskaerak**
Hainbat eskaera egin zizkioten bizilagunek Udalari auzoko egoera hobetzeko; gehienak onartu zizkieten.

**Osasun etxean lekurik ez**
Lekurik ez dutela kexu ziren osasun etxeko langileak, baina Osakidetzak ez zuen langileekin bat egin.

## Arrasateko mugan biribilgunea

Arrasatek eta Aretxabaletak bat egiten duten elkargunean, GI-627 saihesbide sarreran, biribilgunea egin gura zuen Aldundiak. Horren arrazoia zen errepidea egingo zutela Garagartza auzotik aipatutako elkargunera; hala, Aramaio-Santa Ageda-Garagartza errepidea zuzenean lotuko zuten Arrasate-Aretxabaleta saihesbidearekin.

Proiektua aztertu zuen Udalak eta proposatu zion Aldundiari biribilgunea bi mailatan egitea. Hala, Garagartzatik Bergararantz edo Eskoriatzarantz egingo zuten autoek goiko mailako errepideari jarraituko liokete zuzenean saihesbidera; eta Arrasate eta Aretxabaleta arteko zirkulazioak eta tranbiak gaur egungo bidea erabiliko lukete.




M.A.

> INGURUMENA

### Iturriondo parkearen proiektuarekin aurrera egiteko asmoa

Udalak, Basoa fundazioak eta Kutxak hitzarmena sinatu zuten joan den abenduan, Iturriondo parkea txukundu eta berritzeko. Egitasmoarekin aurrera jarraitzeko asmoa azaldu zuen udal gobernu berriak.

Hainbat lan egitea zuten sinatuta: parkea garbitu, txukundu eta bertako zuhaitz eta zuhaixkak identifikatu. Horrez gain, Urkulura joango den ibilbide zirkuitu baten barruan sartu gura zuten Iturriondo. Ia 40 mila euroko aurrekontua zeukaten lanok, eta Kutxak bere gain hartu zuen gastua.

> ZERGAK

### Zaborra %13,9 igotzea onartu zuen Udalak eta ura %10,6

Datorren urteko ordenantza fiskalak onartu zituzten, eta igoerarik nabarmenenak zaborrak eta urak izango zituztela aurreikusi. Zaborra %13,9 igotzea erabaki zuten, Sasietako Mankomunitateak garestitu egin zuelako zerbitzua. Antzekoa gertatu zen urarekin, Ur Kontsortzioak garestitu egin zituen kanona eta beste zerbitzu batzuk, eta ondorioz, %10,6ko igoera ezarri zuen Udalak.

Gainerako zerga gehienei – automobilak, etxeko lan txikiak...– KPIren igoera ezarri zieten, hau da, %3,4.

Orly aretxabaleta
Herriko plaza Aretxabaleta
Tel.: 943 79 09 33
Ondo pasa Gabonetan!
Girorik onena geurean!

Zure
Osasuna
gure ardura da
Zorionak eta urte berri on!
• Hidroterapia SPA.
• Masaje terapeutikoa eta Kirol Masajea.
• Akupuntura.
• Presoterapia.
• Osteopatia.
• Errehabilitazioa.
• Pancafit Metodoa.
2008 urtetik aurrera:
Lagun Aro, Adeslas, Sanitas, Mapfre...

Fekin fisioterapia zentrua
Belorrieta 6-7 • 20550 Aretxabaleta • Gipuzkoa
Tel.: 943 79 95 64

**IOSU**

**haratégia**
**taberna**

*Urdaitegia-gozotegia*
•
*Kroasantegia*
•
*Gertatutako janariak*

Mitarte 1 Tel.: 943 77 03 08




Javik eta Juanek gabon zoriontsuak opa dizkizuete!

MAKAI
Koop. E. Mugatua

**BARRUKO ETA KANPOKO LORATEGIAK ZAINDU ETA SORTZEN DITUGU**
•
**UREZTATZE-SISTEMA AUTOMATIKOAK INSTALATZEN DITUGU**

Basabe poligonoa D-2-1. T/F: 943 79 78 45 / 616 96 57 98. 117 posta kutxa ARETXABALETA

**Zorionak eta urte berri on!**

# AZAROA



**"Aralarren jarri genuen konfiantza galdu egin dugu"**

**Anjel Bergaretxe** > Eusko Abertzale Ekintzako kidea



**"Legearen zirrikituak aprobetxatuta urratsak emateko aukera zegoen"**

**Joxe Anjel Antxia** > Aralar alderdiko zinegotzia

## hileko esaldia

**"Egoera benetan eskasean dago kirol etxea: uralita zintzilik, igerilekuko kale bat itxita..."**

**Asier Muxika** > Udaleko Kirol teknikaria

## hileko datua

**58**

Lau urterako udal gobernuaren gestio programa aurkeztu zuten Aralarrek eta EAk. Gainerako alderdiei banatu zieten, eta ekarpenak jasotzeko zain geratu. 58 milioi euroko aurrekontua egin zuten.



M.A.

## Herriko Plaza birmoldatzea erabaki zuten

Saneamendu lanak aprobetxatuta Herriko Plaza guztiz eraberritzea erabaki zuen Udalak. Donostiako Asmatu enpresak egin zuen proiektua, eta aldaketa garrantzitsuak aurreikusi: plaza barreneko harrizko pergola bota eta arrapala hobeak jarri; maila berean jarri arkupeak eta plaza; oraingo platanondoak eta eserlekuak kendu eta berriak ia plaza erdiraino ekarri; eta arkuak kendu arkupeari.

Lanok 2008arekin hasi gura zituen Udalak. Bederatzi hilabete iraungo zutela aurreikusi zuen eta 1.074.292 euroko aurrekontua zeukan.

**Otalora kalea zabalik automobilendako**
Urtebete egin zuen Otalorako lehen zatiak itxita autoendako. Noranzko bakarra jarri zioten, herrira sartzeko.

**Lan istripua Bañu-Etxe txatartegian**
Bañu-Etxeko langile batek hanka biak galdu zituen. Elkarretaratzea egin zuen LABek istripua salatzeko.

## izen propioak



**Jesus Atxa**
EUSKALTZALEA

Urriaren 23an zendu zen Iruñean ohorezko euskaltzain eta euskaltzale aretxabaletarra. Durangoko azokan omenaldia egingo diotela iragarri zuten.



**Seberiano Aiastui**
MARIANISTA

Aozaratzan jaioa, Argentinan egin zituen urte asko. *Apaiz ibiltaria* zen. Urrezko Bihotz saria jaso zuen. 93 urterekin hil zen.



**Juanjo Orobengoa**
AKORDEOI ORKESTRA

Mexikoko hiriburuko Euskal Etxeak 100 urte bete zituen eta Akordeoi Orkestra gonbidatu zuen. 22 kide eta bost senide joan ziren azaroan.



# ABENDUA



**"Abenduko jaiegunetan kanpaiak jotzen ibiliko gara hainbat auzotan"**

**Julen Abasolo** > Kanpai-jole eskolako ikaslea



**"Arrasateko Akordeoi Lehiaketan, lehen saria jaso dut infantil mailan"**

**Andoni Otxoa** > Akordeoilaria

**hileko esaldia**

**"Aretxabaletan badugu hobi baten berri; errepideko lanak egitean azpian geratu zen"**

**Lourdes Herrasti** > Aranzadiko antropologia saileko kidea

**hileko datua**

**500**

San Martin-San Jose kofradiak urteko batzarra egin zuen, eta familiei ematen dieten laguntza handitzea erabaki zuten bazkideek: 279 eurotik 500 eurora. Urteko kuota ere igo egin zuten 16 eurora.

## Basotxo elkartearen 25. urteurrena

Basotxo erretiratuen elkarteak 25. urteurreneko ospakizuna egin zuen abenduaren 15ean. Egun osoan egin zituzten ekitaldiak: mus, briska eta patata tortilla txapelketak goizean eta omenaldiak arratsaldean.

Aurten 90 urte bete dituzten bazkideak omendu zituzten lehenengo, urteroko ohiturari jarraituta, eta ondoren Gipuzkoako erretiratuen elkarteak plaka eman zion Basotxori, 25 urteotako ibilbidea saritzeko. Urte horietan guztietan presidente izandakoak gonbidatu zituzten ekitaldira; hamar izan ziren guztira –lehena Demetrio Iriarte txistularia, zortzi urtez izan zen–, eta hamarretik sei zeuden bizirik.



M.A.

**Ludoteka zabalik domeka arratsaldeetan**

Abendutik udaberri arte ludoteka zabaltzen hasi ziren domeka arratsaldeetan, 8 eta 12 urte artekoendako.

**Bidegorrian mantentze-lanak egin behar**

Eskoriatzarako bidegorrian lurra jausi zen, eta uren bidea estali; ondorioz, izotza sortu eta labainkor zegoen.

> KULTURA

### Ume eta gazteek ekitaldi asko Gabon sasoiko oporretan

Abenduan banatu zuen Udalak negurako gertatutako egitaraua. Ohiko ekitaldiak izan ziren nagusi: erakusleiho lehiaketa, hainbat kontzertu eta berbaldiak.

Ume eta gazteendako ekitaldi ugari antolatu zituzten: batzuk betikoak, Olentzero, Bizarzuri eta Errege Kabalgata esaterako; eta beste batzuk berriak. Abenduaren 26tik 30era batukada, jokoak eta beste ekintza batzuk zeuzkaten txikienek, eta gaztetxoek, PlayStation erraldoia, breakdance tailerra eta beste batzuk.

> INGURUMENA

### Eskola Agenda 21eko kideek Udalaren erantzuna jaso zuten

Kurtzebarri eskolako ikasleek hainbat proposamen egin zizkioten Udalari herriko argiteriaren gainean energia kontsumoa murrizteko. Udalak abenduan erantzun zituen proposamen horiek.

Argi kutsadura murriztu eta argiteriaren eraginkortasuna handitzeko ekintza plana abian jarrita zuela adierazi zien. Bestalde, eraikin publikoetako energia kontsumoaren, beroketa instalazioen eta ur kontsumoaren gaineko hausnarketa ere egin zuen Udalak, ikasleek eskatuta.



BASABE
jatetxea

Basabe poligonoa Aretxabaleta
Tel.: 943 77 07 94

• Eguneko menua • Karta
• Plater konbinatuak eta ogitartekoak

DOMEKETAN ITXITA (Enkarguak izan ezik)
GABON ZORIONTSUAK IGARO!





Mobiliario
ARENAZA

Bizkaia 1 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 08 07

- Altzariak
- Diseinua
- Apainketa

Urte berri on guztioi!







Goienkaria

Egubakoitza / 2007ko abenduaren 28a / GOIENKARIAREN ARGITALPEN BEREZIA






# ESKORIATZA

## URTEARI BEGIRATUA

# 2007








ARGAZKIAK: GOIENKARIA

boa navidade
merry christmas
joyeux noël
zorionak
frohes weihnachtsfest
feliz navidad
bon natal
FAGOR
Fagor Ederlan

# URTARRILA



**"Badirudi erretzaileak guk kontrolatu behar ditugula... Debekatu baino gehiago, hezkuntza landu behar da"**

**Valentin Gomez** > Estankoko arduraduna

**ETXEBIZITZAK** > ARBIÑOSTEKO ETXEBIZITZA TASATUAK

## Etxe tasatuetarako 194 eskaera jaso zituen Udalak

Arbiñosten Udalak egiteko asmoa zuen 31 etxebizitza tasatuendako 194 eskatzaile aurkeztu ziren, eta etxebizitza eskuratuko zutenak zeintzuk izango ziren apiril bukaera inguruko zozketan emango zituzten jakitera. Hala ere, zozketan ez ziren derrigorrez 194 eskatzaileak sartu; horren ostean, eskaerak aztertu behar zituzten baldintza guztiak betetzen zituzten ikusteko.

Jaurlaritzako Visesak lagunduko zion Udalari etxeak egiten, eta Jaurlaritzako Etxebide zebilen etxebizitzen gaineko izenematea eta zerrendak osatzen. Horretarako bulegoa zabaldu zuten.

> ELIZATEAK

### Telebista eta Internet seinalea jasotzeko antena ia prest zegoen

Zarimutz, Marin eta Mazmela elizateetako bizilagunak pozteko moduan egon ziren. Auzotar horiei telebista eta Internet seinalea helarazteko antena ipini zuten. Haren estruktura 19 metro garai zen, eta Artabilla baserritik gora kokatu gura zuten, Ostoro azpian.

Telebistarako igorle eta errezeptoreak jartzea falta zen.



Antena 19 bat metro garai da.

# OTSAILA



**"Zeramika bildumak balio du euskaldunon bizimodua islatzeko"**

**Isabel Aramendia** > Historialaria



**"Zentzugabea da Batasuna barik bake prozesua eramatea"**

**Brendan McFarlane** > Politikaria

**HIRIGINTZA** > URBANIZAZIO LANAK

## San Juanen espaloiak eta aparkalekuak jarri zituzten

San Juan kalean espaloiak eta aparkalekuak jarri zituzten. Aurretik Udalak kale horren hasieran hainbat hobekuntza egin zituen.

Asmoa zen San Juan kaleko 9. zenbakitik Leteko bideraino kale zatian bi espaloi jartzea. Horrez gain, hango zubia ere pixka bat zabaltzeko asmoa zuten, espaloiak jartzeko estuegia zelako.

**ALDUNDIAK LAGUNDUTA**

Lanek 338.000 euroko aurrekontua zuten. Udalak 40.000 euro ordainduko ditu; Aldundiak 200.000; eta Sukiak 98.000.

> EUSKARA

### Araura egokitu zuten herriko kale izendegia

Eskoriatzako kale eta leku izendegia Euskaltzaindiaren arauak betetzeko aldatu zuten. Horrek ez zuen esan gura hitz egiteko orduan erabiltzen zen izena gaizki zegoenik. Hori beharrean, hortik aurrera idazterakoan kontuan hartzeko araua ezarri zuten. Baina tokian tokiko berbak gorde egin zituzten.

> EUSKARA

### Etorkinek euskal kultura ezagutzeko ikastaroa egin zuten

Otsailaren erditik maiatzaren erdira bitartean egitekoa zen ikastaroa. Udalak, ikastaro horretarako HABEk eta Jaurlaritzako Immigrazio Sailak sortutako *Aisa* izeneko unitate didaktikoa erabiliko zuen.

Ikastaro horren helburua zen kanpotik Eskoriatzara etorritakoei euskal gizartean integratzeko erraztasunak ematea.

> ELIZATEAK

### Bolibar eta Mendiolako bideak konpontzea onartuta

Gipuzkoako Foru Aldundiak Bolibar eta Mendiolako errepideak konpontzea onartu zuen Diputatuen Kontseiluan.

Aldundiak bi errepide horiek bigarren mailako sarean, sare grisean, kokatu zituen, eta onartutako lanen helburua zen zorua eta profilak konpondu ondoren gainazalean konponketa arinak egitea.

> EUSKARA

### Apurtutako jolas-kutxak konpondu egin zituzten

Udaleko Euskara Sailak asmatu zituen jolas-kutxak; euskaraz jolasteko euskarri bereziak.

Herriko lau jolas gunetan jarri zituzten eta barruan ahokorapiloak, asmakizunak eta bestelako jokoak sartu zituzten.

Kontua da Gabonetan ezezagun batzuek kutxak apurtu zituztela, eta, ondorioz, Udalak konpondu egin behar izan zituela.

Arraindegia
EGUREN
Zabaldu berria!
ONDO PASA GABONETAN!





Gipuzkoa etorbidea, 7
20500 Arrasate
Tel. 943 79 59 06

Santa Ana, 11
20540 Eskoriatza
Tel. 943 71 48 61

www.eguren.eu 670 41 38 91 eguren@eguren.eu

FRIXI
ERAIKUNTZAK

*Zorionak*
*eta*
*urte berri on!*

***Hormigoizko estrukturak, urbanizazio, kontratak eta enpresen mantenimenduak***

# Zorionak eta urte berri on!

Intxaurtxueta auzoa 5, behea
20540 ESKORIATZA
Tel.: 943 71 55 15 Faxa: 943 71 57 65
Poltsikokoa: 629 51 39 22
frixi@frixi.com






Maulanda
*merenderoa*

Gabon
zoriontsuak!

Maulanda auzoa ESKORIATZA
Tel.: 943 71 47 20 eta 943 71 54 56



# MARTXOA



**"Margotzen disfrutatuko ez banu, aspaldi utziko nukeen"**

**Jose Mari Agirre Zenitagoia** > Margolaria



**"Euskaraz ikasi ditudan lehen hitzak 'neska polita' dira"**

**Abdellah Kamel** > Marokoko jatorria daukan ikaslea

**HIRIGINTZA** > ETXEBIZITZAK ETXABEETAN

## Etxebizitza tasatuen baldintza berak etxabeei

Udaleko osoko bilkurak etxabeen gaineko ordura arteko ordenantza indar barik uztea onartu zuen. Udal gobernuaren asmoa zen etxabeen gainean gertatzen den espekulazioa etetea. Horregatik, etxabeak Lurzoruaren Lege Berrira egokitu zituzten. Hala, hortik aurrera etxebizitza bilakatzen diren etxabeek etxebizitza izendapena jasoko dute. Eta ez hori bakarrik: etxabe baten etxebizitza egin gura duenak tasatuetan esku hartzeko baldintza berak bete beharko ditu. Hala, etxe horiek betiko izango dute tasatu izendapena.



Argazkian, Intxaurtxueta auzoan etxebizitza bilakatutako etxabe bat.

> HEZKUNTZA

### Partzuergoaren Kulunka haurreskola inauguratu zuten

Haurreskola hori partzuergoak zabaldu zuen, hau da, Jaurlaritzak eta Udalak elkarlanean sortutako erakundeak.

Irailaren 6an zabaldu zituen ateak eta orduan hasi ziren han zerbitzua ematen, baina martxo bukaera arte ez zuten Jaurlaritzako arduradunek inaugurazio ekitaldia egin ahal izan.

> EUSKARA

### Etorkinek euskal kultura gertutik ezagutzeko eskolak

Udaleko Euskara Zerbitzuak, HABEren laguntzarekin, Aisa harrera ikastaroak antolatu zituen jatorri atzerritarra duten eskoriatzarrendako. Ikastaro horietan 13 etorkinek eman zuten izena; eta helburua zen euskararen eta euskal kulturaren gaineko oinarrizko azalpen eta argibideak ematea.

# APIRILA



**"Bizitzan lan gogor handirik ez dut egin behar izan; horri esker daukat halako osasuna eta sasoia"**

**Andres Agiriano** > Euskalkia eta herriko kontuak jasotzeko Berbetan programan esku hartutakoa

**AURREKONTUA** > UDAL AURREKONTUA

## Ia sei milioi euro eta erdiko udal aurrekontua onartuta

Ezohiko osoko bilkuran onartu zituzten 2007rako udal aurrekontuak. Denetara 6.494.488 euroko multzoa osatu zuten; eta, batik bat, hirigintzako inbertsioek hartu zuten diruaren gehiena.

Zati handiena, 1.150.000 euro, Aingeru Guarda biribilgunearen inguruan bidegorria egiteko adostu zuten. Beste 300.000 euro Dorletako urbanizazioa bukatzeko erabili gura zituen Udalak, eta San Juan kaleko azken zatia egiteko antzeko kopurua aurreikusi zuten. Bestalde, elizateendako eta Zubiateko labea konpontzeko ere partida garrantzitsuak onartu zituzten.

> KULTURA

### Kataia Eten Barik ekimenaren bigarrena egin zuten

Udaleko Euskara eta Kultura batzordeek eta Udal Bibliotekak elkarrekin Kataia Eten Barik ekimena antolatu zuten bigarren aldiz. Horren helburua zen herrian bizi diren kultura desberdinen eta belaunaldien arteko elkartrukea bultzatzea.

Hori lortzeko, ume eta adindunak eta baita herrian bizi diren etorkinak batu zituzten.



Argazkian, ekimenaren aurkezpena.


MARTIN

Fruitategia

*Ondo pasa Gabonak!*

San Juan kalea 12 A Tel.: 652 77 53 58






Zubia Pateek gabon jai zoriontsuak opa dizkizuete guztioi!

Aingeru Guarda pasealekua 17 20540 Eskoriatza
Tel.: 943 71 51 31 / Faxa: 943 71 52 79
www.pateszubia.com

ZUBIA®

# MAIATZA



**"Herrian ludoteka eta gaztelekua badaude, baina nagusiagook gaztetxe bat behar dugu"**

**Libe Aranburuzabala** > Ikaslea

## ARGITALPENAK > MAPA ETA MUGARRIEN LIBURUXKAK

## Udalerriko mapak eta mugarrien liburuxkak kalean

Udalak udalerriaren gaineko mapak aurkeztu zituen. Geograma enpresa gasteiztarrak egin zuen lan hori, eta lau zatitan banatu zuten: udalerriko kartografia eta toponimia; airez egindako argazki orokorra; eta kaleizendegia, hain zuzen ere. Lan hori Udalak eta Jaurlaritzak finantzatu zuten, eta 3.000 ale kaleratu zituzten. Horietatik 1.000 udalerriko etxebizitzetara bidali zituzten.

**MUGARRIAK DESKRIBATUTA**

Aretxabaletako eta Eskoriatzako udalek bi herrietako mugarrien liburuxka ere kaleratu zuten.

### > BERTSOLARITZA
### Bertsoak itzultzearen gaineko saio esperimentala

*Bertsoak itzul daitezke?* izeneko saio esperimentala egin zuten HUHEZIn, Xabi Paya itzultzaile eta bertsolariak gidatuta.

Payak bertsolaritzaren eta itzulpenaren gaineko hainbat azalpen eman zituen. Horren ostean, Andoni Egaña eta Onintza Enbeita bertsotan aritu ziren. Bertsoak itzultzeko zailtasunen gainean hausnartu zuten.

### > EKITALDIAK
### Aitzorrotz kultura elkartearen eguna antolatu zuten

Aitzorrotz kultura elkartea 1992an sortu zuten, eta urte batzuetan isilik egon ostean, 2003an indarberritu egin zuten.

Azken urteotan antzezlan, kontzertu, erakusketa, berbaldi eta bestelako ekitaldi ugari antolatu dituzte herrian.

Maiatzerako asteburu berezia antolatu zuten, herri guztiari zuzendutakoa.

# EKAINA



**"Batzuek diote xakea serioa dela, baina dibertigarria da oso"**

**Mikel Alcaide** > Xake jokalaria



**"Txiapasen laguntzeaz gain, kontzientziatzea da hemengo lana"**

**Yurre Romaratezabala** > Txiapasen aldeko mugimendua

## UDALBATZA > ERAKETA

## EAEko Pedro Lasagabaster aukeratu zuten alkate

Aurreikuspenak bete egin ziren: EAE-ANV alderdiko Pedro Lasagabaster izendatu zuten Eskoriatzako alkate. EAEko eta Elizateak taldeko botoak jaso zituen; bost guztira. Ez zuen gehiengo osorik lortu, baina udal hauteskundeetan EAErena zerrenda bozkatuena izateagatik, Lasagabasterrek eskuratu zuen alkatetza. EB-Berdeak taldeko Juan Luis Merinok bere buruari eman zion botoa. EA, EAJ eta PSE-EEko ordezkariek, berriz, boto zuria eman zuten bozketan; hala, horiek ez zuten beste inoren alde egin.



Osoko bilkuran karguak hartu zituzten zinegotziek eta alkateak.

### > ETXEBIZITZAK
### Santa Marinako 31 etxebizitza tasatuen zozketa egin zuten

Ibarraundi museoan egin zuten Santa Marinako 31 etxebizitza tasatuen zozketa. Zozketa-ekitaldian Jaurlaritzako Etxebizitza sailburu Javier Madrazo, Eskoriatzako alkate Pedro Lasagabaster, Gipuzkoako Etxebizitza alorreko arduradunak eta Arrasateko notario Jose Luis Amerigo izan ziren.

### > KIROLA
### Kirol Elkartearen eguna egin zuten lehenengo aldiz

Lehenengo aldia izan zen Eskoriatza Kirol Elkarteak herrirako halako eguna antolatu zuena.

Ordurako denboraldia bukatua zuten, eta elkarteko kideek gogoa zuten herrirako halako eguna egiteko. Umeendako tailerrak, lehiaketak, erakustaldia, kontzertuak eta beste egin zituzten.



GATZA-GAIN
Jatetxea



• Plater konbinatuak
• Ogitartekoak
• Espezialitateak:
Baserriko oilaskoa, etxeko txorizoa eta okela ekologikoa



Tel.: 943 71 40 05 LEINTZ GATZAGA
ONDO PASAU GABONETAN

leniz sa
fundizioak

Gabon jai zoriontsu eta alaiak izan ditzazuela!

Aingeru ibiltokia 12, ESKORIATZA
www.fundiciones-leniz.com

# UZTAILA



**"Hegazkinek ibiltzen duten materialaz egin dugu landarea"**

**Leire Errasti** > Ikaslea



**"Aitzorrotz mendiak esanahi oso berezia du eskoriatzarrondako"**

**Ander Agiriano** > Udaleko Kultura zinegotzia

**UDAL GOBERNUA** > AGINTALDI BERRIA

## PSE-EE eta EB ezik, beste talde guztiek batzordeak

EAE-ANV taldea herriko alderdi eta talde guztiekin batzartu zen, eta EA, EAJ eta Elizateak Elkartearekin banatu zituen batzorde eta azpibatzordeak. Azkenean, EB eta PSE-EErekin ez ziren adostasunera heldu; eta azken horiek ez zuten batzordeen ardurarik hartu.

Hala egin zuten banaketa: Hirigintza (EAEko Pedro Lasagabaster), Kultura (EAEko Edorta Barandiaran), Ogasuna (EAJko Aitor Urrutia), Ongizatea (EAko Juan Carlos Bengoa) eta Pertsonala (EAEko Pedro Lasagabaster), hain zuzen ere.

> ZERBITZUAK

### Azkoaga Enea hotela zabaldu zuten herriaren erdialdean

Santa Ana auzoan zabaldu zuten Azkoaga Enea hotela. 14 logela, jatetxea eta kafetegia jarri zituzten bertan. Hotelak, gainera, terraza eta loralegia ere baditu

Bi urte egin zituzten etxea eraberritzen. 18 lagunek osatutako lantaldea jarri zuten hotelean lanean, eta behean estankoa jarri zuten berriro.

> GLOBALIZAZIOA

### Diasporako gazteek globalizazioaren eragina aztertu zuten

Globalizazioari aurre egiteko tokian tokiko irtenbideak aurkitu behar direla ondorioztatu zuten euskal diasporatik etorritako 21 gaztek Eskoriatzan egindako egonaldian.

Ibarraundi fundazioaren asmoa zen gazte horien ondorioak kaleratzea. Horrez gain, datorren urtean ere halako topaketak egitea aurreikusi zuten.



Argazkian, Eskoriatzan izan zen diasporako gazteen taldea.

# ABUZTUA



**"Gran Hermano'-n ez nuke inoiz esku hartuko, baina kultura orokorreko lehiaketak oso gustuko ditut"**

**Sonia Ignacio** > Lehiaketa-zalea

**AZPIEGITURAK** > EIBAR-GASTEIZ AUTOBIDEA

## Autobideko zerbitzugunea lehiaketara eraman zuten

AP-1 autobideko lehenengo zerbitzugunea Arrasateko eta Eskoriatzako bi gunek osatuko dute. Eskoriatzakoa Aingeru Guardan jartzeko asmoa dute, Gasteizko noranzkoan.

Bidegik abuztuan atera zuen lehiaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta lehiaketa zabalik egon zen irailaren 24ra bitartean. Aukera zegoen bi guneetarako proiektu bakarra aurkezteko, edo banakakoa.

Eman beharreko zerbitzuak hauek ziren: depositua betetzeko estazioa, denda eta bulegoarekin; kafetegi bina, zerbitzu publikoak eta aparkalekuak.

> HIRIGINTZA

### Santa Marinako kioskoaren egitura egin zuten

Santa Marina ingurunean etxebizitza ugari egiteaz gain (tasatuak eta bestelakoak) Udalak gura du inguru guztia urbanizatzea. Horren barruan Udalaren asmoa da bertan plaza handi bat egitea. Plaza horretan ikuskizunetarako, dantzaldietarako eta beste ekintzetarako kioskoa egiten hasi ziren. Ingurune hori erakargarria egin gura zuten.



Santa Marinako kioskoaren egitura.

OTZETA JATETXEA

Aranburuzabala 9
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 31 67

Eguneko menua
•
Gazte menua
•
Karta
•
Bazkariak eramateko

Gabon jai zoriontsuak!



Villar Ile apaindegia

Urte berri zoriontsuena opa dizuegu!

Olazar auzoa 9 • Tel.: 943 71 50 42 • ESKORIATZA

# IRAILA



**"Oso gustuko dut Apotzagako 4x4 lasterketa; oso aukera gutxi daude halako lasterketak ikusteko"**

**Adrian Arrieta** > Auto lasterketen zalea

**AZPIEGITURAK** > AHT-RI ALEGAZIOAK

## AHTren lanei alegazioak jarri zizkieten Udalak eta jabeek

AHTren lanei alegazioak jarri zizkieten Udalak, lursaileen jabeek eta hiru auzotako ordezkariek, hain zuzen ere.

Udaletik bozeramaileen batzordeak eta alkateak sinatutako alegazioak bidali zituzten. Horrez gain, alegazio epea zabaltzeko eskaera egin zuen Udalak, baina Sustapen Ministerioak jakinarazi zien ez zutela epea luzatzeko asmorik.

Bestalde, Marin, Zarimutz eta Mazmela elizateetako 137 lursaileetatik pasatuko da AHT. Guztira, 62 jaberen lurrak ukituko ditu. Horregatik, jabeek alegazioak aurkeztu zituzten.

> HEZKUNTZA

### Zientzia eskolen gaineko nazioarteko mintegia Huhezin

Irailean *Zientziaren irakaskuntza eskoletan, proiektuetan oinarritutako irakaskuntzaren bidez* izeneko nazioarteko mintegia egin zuten Huhezin.

Sei herrialdetako 33 adituk esku hartu zuten mintegian, eta, besteak beste, Euskal Herriko bi kasu aztertu zituzten: Arizmendi eta Pasai Lezoko ikastoletakoak, hain zuzen ere.

> KIROLA

### Leongo Sergio Miralles irabazle Apotzagako 4x4 txapelketan

Huts gutxi eginda, 40 punturekin, Leongo Sergio Miralles nagusitu zen Apotzagan jokatutako III. 4x4 ibilgailuen kontzentrazioan. Haren atzetik, Ander Zugasti oñatiarra (185 puntu) eta Berako Xuker Ordorika (220 puntu) sailkatu ziren.

Guztira, 21 autok esku hartu zuten proban, baina bost autok ez zuten proba bukatu.

# URRIA



**"Istorio bat egin baino gehiago, desegin egin dut nire erakusketan"**

**Aitor Lajarin** > Margolaria



**"Kantuaren zatiren bat ahaztuko zaidan beldur pixka bat dut"**

**Ander Zubia** > Debagoienean Kantariko partaidea

**AZPIEGITURAK** > EIBAR-GASTEIZ AUTOBIDEA

## Udalak eta Bidegik batzarrak berrartu zituzten

Bidegi eta Udala bi bider batzartu ziren urrira bitartean. Bidegiko eta Aldundiko Errepideetako arduradunek eta Udaleko eta elizateetako ordezkariek esku hartu zuten.

Bi aldeetako ordezkariek adostu zuten bien arteko elkarrizketak hutsetik hastea.

Horrez gain, azpimarratu zuten autobidearen gaineko zalantza eta kontu guztiak zuzenean Bidegik eta Udalak landuko dituztela, eta ez beste bitartekari batzuek.

Bien aldetik jarrerak oso irekiak zirela jakinarazi ziguten ordezkariek.



Autobiderako egiten zebiltzan biribilgunearen lanek arazoak sortu zituzten.

> URBANIZAZIOA

### Bukatu zituzten Dorleta auzoa eraberritzeko lanak

Askotxo iraun zuten, baina azkenean 2006ko urtarrilean hasitako Dorleta auzoa eraberritzeko lanak bukatu zituzten. Fonorte enpresak zuzendu zituen lanok, eta Injelan enpresak eraman zituen aurrera. Lanek 1.987.000 euroko aurrekontua izan zuten, eta hortik %30 Jaurlaritzak ordaindu zuen.

> OGASUNA

### Udaleko ordenantza fiskalak urrian onartu zituzten

EAE-ANVren helburua zen "gutxien zuen gehiengoari erraztasunak eman, eta gehien duen gutxiengoari gehiago ordainarazi". Hori lortzeko, potentzia handiko autoei zergak igo zizkieten, energia berriztagarriak erabiltzeagatik hobariak, hiri izaera duten lurren balio igoeraren gainekoak zigortu...

EDURNE
ESTETIKA ZENTROA

Hasi urtea Edurne Estetika Zentroan

Gabonetan oparitu edertasuna!

- Hortz zuritzea
- Fotodepilazioa
- Drainatze linfatiko masajeak
- Erlaxazio masajeak
- Solarium bonuak
- Aurpegi tratamenduak
- Gorputz tratamenduak



Gabon zoriontsuak eta urte berri on!

Aranburuzabala 4 2, behea ESKORIATZA Tel.: 943 71 51 54

# AZAROA



**"Mendi garaienetara bidean dauden herriak ezagutu gura ditut"**

**Gari Kortazar** > Bidaiaria



**"Heziketan dago genero indarkeria ekiditeko gakoa"**

**Isabel Guridi** > Historialaria

**DENDARIAK** > VITERI DENDAK 100 URTE BAINO GEHIAGO

## Viteri denda 100 urtetik gora zabalik herrian

Udalak omenaldia egin zien Viteri dendako Mari Karmen eta Mari Mertxe Viteri ahizpei. Hain zuzen ere, 100 urte bete ditu ahizpa horien aitajaun Prudenciok zabaldutako dendak. "104 bat urte-edo izango dira, guk dauzkagun erreferentzia batzuen arabera, baina denda-ren gaineko dokumentazioa 1907tik aurrera lortu dugu", azaldu zuten bi ahizpek.

Zabaldu zutenean denetatik saltzen zuten dendan, baina Viteri ahizpen gurasoek mertzeria eta arropa denda bilakatu zuten. Ahizpak erretiratu ahala, saltokia itxi egingo dute.



Argazkian Mari Karmen eta Mari Mertxe Viteri ahizpak familiako dendan.

> ENERGIA

### Energiaren Euskal Erakundeak eta Udalak, hitzarmena

Energiaren Euskal Erakundeak eta Udalak hitzarmena egin zuten. Horren bitartez, udalerrian energia berriztagarriak bultzatuko dituzte; eta kontsumoa txikitu eta aurreztu egingo dute.

Horrez gain, EVEk energia alorrean Udalaren gabeziak eta gaitasunak zeintzuk diren aztertuko ditu.

> EUSKARA

### Euskararen kale erabilerak gorantz egin zuen herrian

Soziolinguistika Klusterrak udalerriko euskararen erabileraren gaineko azterketa egin zuen apirilean; eta datuok azaroan eman zituzten jakitera.

Udalerrian egiten diren 100 elkarrizketetatik 42 ziren euskaraz. Aurreko urteotako tendentzia ikusita, joera goranzkoa zen.

# ABENDUA



**"'Eskoriatza Iruditan' liburua herritar askori esker egin ahal izan dugu, eurak barik ezingo genuke"**

**Mari Karmen Arrieta** > Udaleko Euskara teknikaria

**ISTRIPUA** > EIBAR-GASTEIZ AUTOBIDEKO LANETAN

## Autobideko lanetan lur-jausi handia izan zen, Zarimutzen

Eibar-Gasteiz autobideko Zarimuzko tartean eginda zeuden bi tuneletako bat lurrez estali zen, lur-jausi baten erruz. Agarre-Goiko baserriko zelaietako lurrak, jasaten ari ziren pisuaren ondorioz, goitik behera jausi ziren. Hala, 15 metro inguruko eusteko pareta ere aurrean eraman zuen.

Istripua gertatu zenean inguruan langileak zeuden arren, ez zen zauriturik egon; kalte materialak, ordea, baloratzear zeuden abenduan.

Inguruko baserritarrek bazuten zegoen arriskuaren berri, eta Bidegiko arduradunak ohartarazi zituzten.



Zarimuzko bi tuneletako bat guztiz estali zuen lurrak.

Esko Sport
Zorionak eta urte berri on!
Intxaurtxueta 5
Tel. 943 71 52 96
20540 ESKORIATZA

AMG autoak
• Karrozeria
• Elektromekanika
• Mantenimendua
Alberto Murillo Gambra
Torrebaso pasealekua 14-B
20540 Eskoriatza - Gipuzkoa
Tel.: 943 71 42 79
amgautoak@yahoo.es
Ondo pasa Gabonetan!

# Eskoriatzar danoi
# Gabon zoriontsuak
# eta urte barri on!













# LEINTZ GATZAGA

## URTEARI BEGIRATUA

# 2007

> OTSAILA

## Jantzi berriak herriko pilotari gazteendako

Txapelketa jokatu zuten herriko 14 mutikok Amurrioko (Araba) pilotarien aurka otsailaren 16an. Aurretik, baina, jantzi berriak jaso zituzten: kamisetak Joxerra Perez alkateak banatu zizkien Udalaren izenean, eta kirol-jertseak Labidea dendak eta Sormen enpresak oparitu zizkieten. Giro ezin hobea sortu zen txapelketaren inguruan, eta zortzi partiduetatik bi irabazi bazituzten ere herrikoek, emaitza gutxienekoa izan zen.

Denboraldi berria hasi zutenean, urria inguruan hain zuzen, Gatzagako taldea legez hasi ziren jokatzen herriko pilotari gazteak, Jose Inazio Beloki entrenatzaile zutela.



M.A.

> URTARRILA

### Lapikozuluetako iturburua lehortu egin zen

Gaztainuzketako etxeetara ura eroaten zuen Lapikozulueta iturburua lehortu egin zen. Autobideko lanen eraginez gertatu zela uste izan zuten, eta egindako tunelerantz bideratu zirela urok. Jarindotik gertu dagoen Marotobasotik ekarri zuten ura Gaztainuzketara.

> MARTXOA

### 427 mila euroko aurrekontua onartu zuen udalbatzak

Guztira 427.439 euroko aurrekontua onartu zuten, eta horietatik ia 70 mila euro inbertsiotarako izendatu zituzten: Etxebarri baserrirako bidea konpontzeko 30 mila euro, Maroto iturburutik ura ekartzeko 24 mila eta San Migel parkean jolasgunea jartzeko 6 mila euro.





M.A.

> MAIATZA

## Arlaban gaineko plana aurkeztu zuen Udalak

Arlaban gaineko plan bereziaren eta hiri antolamenduko arau aldaketaren berri emateko batzarra egin zuen Udalak. Proiektua egin zuen Toledo taldeko aditua izan zen azalpenak ematen eta herritarren kezkak argitzen.

Udalak gura zuen Arlaban ingurua antolatzea, eta turismoaren alorra zela egokiena bertarako ikusi zuen. Hala, bost esparru zehaztu zituen: babestu beharreko gunea; Aizkorri-Aratz parkeko lurrak; abereendako lurrak; ostatu eta aisialdirako gunea eta nekazaritza-turismoko ekipamenduendako gunea. Alegazioak egiteko epea luzatu zuten ekaina arte.

> EKAINA

### Lapurrak sartu ziren udaletxean, eta segurtasun kaxa eroan

Eskailera erabiliz bigarren solairuko leiho batetik sartu ziren ekainaren 20an, eta udaletxe guztian ibili. Segurtasun kaxa bakarrik eroan zuten, baina diruaz gain paper garrantzitsuak zeudela bertan, esan zuten langileek.

Apirilean ere saiatu ziren lapurrak udaletxean sartzen, baina orduan ez zuten lortu.

> UZTAILA

### Bukatuta udaletxe alboko jolasparkea berritzeko lanak

Hainbat hilabetean lanean jardun ostean uztailean bukatu zuten udaletxe alboko parkea berritzen. Bertako hiru pinuak bota zituzten lehenengo, eta hesia jarri eta landare txikiak landatu gero, baita mimosa zuhaitza ere. Azkenik jolasgunea jarri zuten: txirrista handi bat jolaserako etxetxo batekin.

> UZTAILA

### Gesaltzan egindako azokan izan ziren Gatz Museoko ordezkariak

Gatzaren azoka egin zuten Gesaltzan (Araba) eta Eugenio Otsoa gatz museoko ordezkariak joan ziren. Herriko produktuak eroan zituzten: gatzarekin egindako opiltxoak, erregaliz gazia, ogia eta Jakionen produktuak. Eta museoaren gaineko argibideak eman zituzten. Interes handia azaldu zuten Gesaltzan elkartutakoek.

> MARTXOA

### Elkorobarrutiak jarraitu zuen erretiratuen presidente

Urteko batzarra egin zuen erretiratuen elkarteak martxoaren 24an, eta Pedro Mari Elkorobarrutiak presidente izaten jarrai zezala erabaki zuten. Juan Mari Makazaga idazkariak batzordetik irteteko gogoa azaldu zuen, 9 urte egin behar zituelako, baina boluntariorik agertu ez eta jarraitzea egokitu zitzaion.



Pedro Mari Elkorobarrutia. M.A.

> EKAINA

### Zazpi zinegotzik osatutako udalbatza eratu zuten, eta Eusebio Villar alkate izendatu

Leintz Gatzagako Hautes-Elkarteak 120 boto jaso zituen udal hauteskundeetan, eta Eusebio Villar izendatu zuten alkate ekainaren 16an.

Uztailean, ostera, karguak banatu zituzten: Kultura Saila Ainara Zubillaga eta Iñaki Elkorobarrutiak hartu zuten; Zerbitzuak, Elkorobarrutiak berak; Hirigintza, Iñaki San Pedrok; Mendien Saila, Asier Elkorobarrutiak; Gizarte Zerbitzuak, Zubillagak; eta Ogasuna, Villar alkateak. Ainhoa Barandiaran eta Ibon Oñederra zinegotziek ez zuten batzordeen ardurarik hartu.



**UDALBATZA** Udala eratzeko egindako osoko bilkura, alkate ohiarekin. J.S.

Josunek eta Maitek
**gabon zoriontsuak** opa dizkizuete!




Harmanta

Lentzeria,
umeen moda eta opariak

Tel.: 943 71 53 87
Gaztainadui 21
ESKORIATZA





JOSETXO ARANTZABAL

> IRAILA

## Giro bikaina Andramaixa jaietan

Eguraldia lagun giro bikaina izan zen Andramaixetan. 200 bat lagun etorri ziren Otxandiotik ohiturari jarraituta, eta inguruko herrietatik ere hurreratu ziren ume eta helduak. Herri afarian 150 lagun elkartu ziren, eta mendi bizikleta zeharkaldian beste horrenbeste. Gainera, kontzertuak, mus eta bolo txapelketak, adardunak eta beste ekitaldi asko izan zituzten.

> IRAILA

## Iturburuekin kezkatuta, AHTri alegazioa

Alegazioa aurkeztea Abiadura Handiko Trenaren lanei erabaki zuen udalbatzak. Lanok, herriko iturburuak lehortuko zituen beldur ziren; izan ere, autobideko lanek Maroto basoko iturburua lehortu zien, orain urtebete. Gaztainuzketako mendi etxeak urez hornitzen zituen iturri hark, eta ordutik Lapikozuluetako iturburutik jasotzen dute.

Lapikozuluetakoak, baina, minutuko sei litro ur bakarrik ematen die, eta aurrekoak 11,5 litro. Eta uda partean zisterna-kamioian ekarri behar izan zuten ura Gaztainuzketara. Horregatik, Aldundiarekin berba egiteko asmoa zuen alkateak, irtenbiderik egokiena adostu eta laguntza jasotzeko.



**MADRAZO** Eusebio Villar alkatea eta zinegotzi bi Madrazorekin. JOXEBI RAMOS

> ABENDUA

### Gasaren eta saneamendu lanen berri izatera etorri zen Madrazo, Etxebizitza sailburua

Etxebizitza eta Gizarte sailburu Javier Madrazo Gatzagan izan zen abenduaren 5ean. Azpiegiturak hobetzeko bigarren faseko lanak egiteko 169.000 euroko dirulaguntza eman zuen Jaurlaritzak eta lanen nondik norakoak jakitera etorri zen.

Bestalde, gas-tangak azaroaren 26an bete zituen Repsolek, eta lehen fasean gas hodiak sartutakoak gasa eskatzen hasi ziren.

> URRIA

### Bidegorriaren proiektuarekin ez zegoen ados Udala

Bidegorriaren proiektua jaso zuen Udalak Aldundiaren eskutik, eta ez zela gatzagarrendako bidegorria esan zuen alkateak. Udalak eskatu zuen oraingo bideak errespetatzea eta Gure Ametsa jatetxearen atzetik joatea, baina ez zuten bete. Gainera, Aldundiak ez zuen aurreikusi bidegorria herritik pasatzea.

> URRIA

### Etxerik etxeko laguntza zerbitzua GSR enpresarendako

Teleasistentziaren gaineko udal erregelamendua behin betiko onartu zuten, eta etxerik etxeko zerbitzuaren ardura GSR kooperatibari eman zioten.

Bestalde, Ainara Gabilondo izendatu zuten gizarte laguntzaile, eta martitzen goizetan egongo zela udaletxean jakinarazi zuten.

> AZAROA

### Dominaga baserrira doan bidea zabaldu zuen Aldundiak

Arlabango errepidetik Dominaga baserriraino doan bidea konpontzen ibili zen Aldundia: zabaldu egin zuten, eta porlana bota. Asmoa zen inguruko basoetatik egurra ateratzen ibiliko ziren kamioiek bide hori erabiltzea. Udala pozik azaldu zen lanekin, eskatutakoak bete eta behar bezala egin zituztelako.






Gertu

Aurrez prestatutako jakiak

Gabon jai zoriontsuak opa dizkizuegu guztioi!!!

Aretxabaleta Tel.: 943 770612
gertujanariak@euskalnet.net
www.goiena.net/blogak/gertu



Agur egin beharko
berriz urte zaharrai
bizkor pasatzen zaigu
baina behar jarrai
bi haraginen partez
Ion eta Pagaldai
jaiak ondo pasa ta
Urte berri on danai

PAGALDAI
HARATEGIA-URDAITEGIA

Gaztainadui 15
Tel.: 943 71 51 97
ESKORIATZA

Jon Díaz
Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
ARETXABALETA

Zorionak eta urte berri on!




# LORTU DUGUNAREN SEINALE

Asko da egiteko duguna
baina 10 urte
hauetako emaitzak
begi bistakoak dira

ESKERRIK ASKO
LANA EUSKALDUNTZEKO
DINAMIKAN MURGILDUTA
ZAUDETEN GUZTIOI

URTE
...11 egun
hartuetaEMUN

EMUN
LANA EUSKALDUNTZEKO
KOOPERATIBA

www.emun.com
www.lantalan.com

Goienkaria

Egubakoitza / 2007ko abenduaren 28a / GOIENKARIAREN ARGITALPEN BEREZIA







# BERGARA

## URTEARI BEGIRATUA 2007

**ANTZUOLA** > 31
**ELGETA** > 45







ARGAZKIAK: GOIENKARIA



*Aurten, Errege gaua gurean ospatu!*

LASA jatetxea

Ozaeta jauregia
Tel.: 943 76 10 55
BERGARA


UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK
arotz lanak orokorrean
leihoak
ateak
horma-armairuak
K21
ZORIONAK
ETA URTE BERRI ON!!!
altzari denda
ikerleku zeharbidea · bergara
tel.: 943 03 46 30
erakusketa eta tailerra
san juan 1a · bergara
tel.: 943 76 54 91
faxa: 943 76 08 04


Gabon zoriontsuak!
Gogor
estutzen dugu!
Torlojugintza
Espezialitatea: era guztietako azkoinak
INDUSTRIAS
ZANGUITU
ISO 9001
DNV
CERTIFICATED
Tel.: 943 76 18 05 / Faxa: 943 76 27 43 / San Juan auzoa 40 BERGARA / industriaszanguitu@stl.logiccontrol.es

**kale inkesta**

# Nola joan zaizu urtea eta zer eskatzen diozu urte berriari?



**Mari Carmen Larrañaga**
Erretiratua

Amaitzera doan urtea normal joan da. 2008. urteari berdina izatea eskatzen diot, gutxienez. Osasun aldetik hobea izatea nahi dut, hezurrekin ez nabil-eta batere ondo.



**Mari Paz Garcia**
Etxekoandrea

Urtea ez da txarra izan. Baina ona ere ez da izan. Seme bat gaixo dut eta horrek asko arduratzen nau. Beraz, datorren urteari, semea okerrera joan ez dadin eskatzen diot.



**Lierni Errasti**
Langilea

Urtea ona izan da. Bartzelonatik itzuli nintzen eta lana topatu nuen. Datorren urterako etxebizitzen prezioak behera egitea gura nuke. Etxetik joan nahi dut, baina ezin dut.



**Jose Mari Elortza**
Erretiratua

Aurtengo urtea nahiko ona izan da, gauza batzuk horren onak ez badira izan ere. 2008ari guztiondako osasuna eskatzen diot, baita herriko obrekin amai dezatela ere.



**Jesus Atorrasagasti**
Erretiratua

Ondo joan da urtea. Osasun ona izan dut, eta hori da inportanteena. Datorren urtea hainbestean pasatu nahi dut. Ehizan ibiltzeko aukera izatea ere eskatuko nioke urte berriari.



**Francisco Morales**
Erretiratua

Orain daukadana baino ez diot eskatzen datorren urteari. 2007a ondo joan da eta, beraz, horrela jarraitu nahiko nuke. Osasuna izatea eta, ahal izanez gero, loteria tokatzea nahiko nuke.

**AURKIBIDEA**

**Urtarrila** > 04
**Otsaila** > 06
**Martxoa** > 08
**Apirila** > 10
**Maiatza** > 12
**Ekaina** > 14
**Uztaila** > 16
**Abuztua** > 19
**Iraila** > 20
**Urria** > 22
**Azaroa** > 24
**Abendua** > 30

**ANTZUOLA** > 31
**ELGETA** > 45

**Onena eta txarrena** > 40
**Erretratu zaharra** > 54

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundutako aldizkaria

**zuri eta beltz**



Kilometroak 07 jaiegun jendetsua urriaren 7an. GOIENKARIA

**> KILOMETROAK 07**
Herria dinamizatzea, euskara protagonista bihurtzea, Bergararen irudi ona zabaltzea, Aranzadi ikastolarendako sosak batzea... Helburuak beteta modu arrakastatsuan. Jai egun ederra eta antolaketa bikaina.

**> HAUTESKUNDEAK**
Aurrekoetan ez bezala, maiatzeko udal hauteskundeetan ezker abertzaleak ere ordezkatuta egoteko aukera izan zuen.

**> UDAL MUSIKA BANDA**
Herriko erakunderik maitatuenetakoak 175 urte ospatu ditu aurten, besteak beste liburua, diskoa eta DVDa kaleratuta. Zorionak!

**> MIZPIRUALDE HANDITZEKO HITZARMENA**
Zaharren egoitza handitzeko hitzarmena sinatu da aurten. Hirugarren adinekoendako zerbitzuak hobetzea ezinbestekoa da.

**> GURE AMETSA ELKARTEA**
Nabarmentzekoa da San Antonioko elkarte horrek azkenaldian darabilen dinamika, herrian giroa bultzatzeko hainbat ekimen antolatu ditu-eta: Nafar feria, patata lehiaketa...

**> ABY-KEM**
Musika talde bergararra izan zen Debagoieneko onena Danbaka musika lehiaketan. Oraintsu argitaratu dute lehen diskoa.



Instalazioak direla-eta, herriko bi eskolaren arteko auzia: desatsegina. GOIENKARIA

**> ESKOLEN ARTEKO AUZIA**
Oso zatarra eta desatsegina izan da herriko bi ikastetxeren artean sortu den instalazioen gaineko auzia. Erakundeen ardura da arazoa konpontzea. Lehenbailehen.

**> IRALA KALEA**
Aurten amaituta behar zuenak itxura kaskarrean jarraitzen du. Arazoak arazo, datorren urterako herriko kalerik esanguratsu, eder eta erabiliena izango dena amaituta egotea espero da.

**> AGORROSINGO KIROLGUNEA**
Agorrosingo kirol eremu osoa berritzeke dago eta kanpoko igerilekurik ez dugu. Lehenbailehen beharko luke erantzun integrala; horretarako, erakundeen eta BKEren arteko adostasun eta elkarlana.

**> 18/98**
Bi bergararri, Jose Luis Elkoro alkate izandakoari eta Xabier Arregiri, kartzela zigorra ezarri die Espainiako Auzitegiak, frogatu ezin izan dituztenak leporatuta. Testuinguru politiko jakinean egindako bidegabekeria izugarria.

**> BAKE PROZESUAK PORROT**
Herriari kasu egin ez, eta ETAk berriro hartu ditu armak. Espainiako Gobernua, ostera, hauteskundeei begira, eta alderdiak ados jarri ezinik. Tamalgarria.

**Goienkaria**
**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea
Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Erredakzioa** Iker Barandiaran, Mirari Altube, Ubane Madera, Edu Mendibil, Oihana Elortza, Aintzane Irizar, Arritxu Barruso, Larraitz Zeberio **Maketazioa** Alex Azkarate, Oxel Arrieta **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Itxaso Berezibar, Fausto Berazadi **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com
**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 6.250 ale

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia
Bergarako Udala
Antzuolako Udala
Elgetako Udala

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzien erantzukizunik.

# URTARRILA



**"Arraina izoztea ondo dago anisakisa hiltzeko, arriskutsua delako"**

**Koldo Lasa**
> Lasa jatetxeko sukaldaria



**"Ekonomiak behera egin arren, industrialdeko enpresei ez die eragingo"**

**Koldo Pereira** > Debagoieneko Industrialdeko gerentea



GOIENKARIA

## Aby-Kem taldea Danbakako irabazlea

Aby-Kem talde bergararrak irabazi zuen Danbaka lehiaketa, urtarrilaren 12an, Elgetako Espaloia kafe antzokian. Bergarako Belceblues eta Oñatiko Malenkonia izan ziren finalera iritsi ziren beste bi taldeak. Espaloiko Iban Arantzabalek, Goienako Iker Barandiaranek, RIPeko Jul Bolinagak, Shot estudioko Iñaki Bengoak eta Itziar Iturbe Cool Panic taldekoak osatu zuten epaimahaia. "Argi dute nolakoa nahi duten soinua eta hori erakutsi dute taula gainean", izan zen haien iritzia. Gaztelupeko Hotsak etxearekin kaleratuko duten diskoa grabatzea irabazi zuten.

### hileko esaldia

**"Nekazaritzatik bizitzea zaila da, baina egin daiteke; hiru anai-arreba bizi gara gu"**

**Agurtzane Olabarria** > Bolubarri baserrikoa

### hileko datua

**0**

Udalak eta Aspek adostu zuten aurten Udalak ez ziola ezer ordainduko Asperi pilota jaialdiak antolatzearren. Udala arduratu da mantentzelanez. 2006an 33 jaialdi antolatu zituen Aspek.

**Turismo bulegoko bisitariak**
2005ean baino 616 kontsulta gehiago jaso zituzten turismo bulegoan 2006an; 4.511 bisitari guztira.

**Agorrosin ekintza guneko tarifak**
Hilean 18 euro balio du Agorrosin ekintza guneko sarrerak; familia txartelik ez dago.

### izen propioak



**Asier Lakuntza**
SARIDUNA

Lokatza Ziklismo Eskolak Gabonetan egindako zozketan, Asier Lakuntza gazteak irabazi zuen bizikleta. Igartua dendak emandako bizikleta zen.



**Iñaki Labaka**
ABERE-HILTZAILEA

Ibarreko abere-hiltzaile bakarrenetakoa da eta txerriak hiltzen ibili da neguan Debagoieneko hainbat baserritan. Lanbidez udaltzaina da.



**Manu Muniategi**
ARTISTA

Marrazki erotikoen liburu bat argitara eman zuen Manu Muniategiandikoetxea artistak Arco arte garaikidearen Madrilgo erakusketan.

San Miguel
DEKORAZIOA ETA ISOLAMENDUA
Norberaren babeserako ekipamenduak
eta lanerako arropak
Zeramika erakusketa eta salmenta
Zapatu goizetan irekita


Amillaga 5-6 pabilioia - BERGARA Tel.: 943 76 47 90 - Faxa: 943 76 01 15 Zentralita: 649 98 16 70

López Ojeda
Amillaga 25 • Industrialdea
Biltegia: 943 762 776 - 943 763 852
20.570 BERGARA (Gipuzkoa)
Errioxako ardo beltza, urtekoa
Errioxa
Nafarroa
Urtekoa eta ondua
Gabon jai zoriontsuak opa dizkizue!
ATXEGA ARDOAK S.L.

albiste izan zen

> DEBAGOIENA
### Biztanle kopurua jaitsi

63.334 biztanle zituen ibarrak urte hasieran; 1997ko urtarrilean, 64.831.
2007.01.12

> EUSKAL HERRIA
### Ibarretxe auzitegian

Batasunarekin batzearren auzitegian deklaratu du Ibarretxe lehendakariak.
2007.01.30

> MUNDUA
### Sinn Fein-en onarpena

Ipar Irlandako polizia eta justizia onartu zituen Sinn Feinek.
2007.01.29

## Mizpirualde handitzeko hitzarmena

Mizpirualde egoitza handitzeko hitzarmena sinatu zuten Gipuzkoako Aldundiak eta Bergarako Udalak urtarrilaren 26an. Hitzarmen horrek jasotzen du 2008an 26 lagun gehiagorendako tokia izango duela Mizpirualdek, 141 ohe izango dituela gero; 25-30 lagunendako eguneko zentroa eta tutoretzapeko sei apartamentu bikoitz. Aurrekontua da 3.233.333 euro; %75 Aldundiak ordainduko du eta gainerako %25a Udalak. Lan horiek egiteko, Udal Euskaltegia bota egingo dutela aurreratu zuten. Bestalde, Euskalit erakundeak kudeaketa onagatik saritu zuen egoitza eta zilarrezko *Q*-a lortzeko bidean jarri zuen egoitza.


GOIENKARIA

> AGORROSIN
### 1.900 lagun egin ziren Agorrosingo bazkide urtarrilean

Urteko lehen hilabetean, urtarrilean, 1.900 lagun egin ziren Agorrosin ekintza guneko bazkide. Eta egunero 900 lagun joaten ziren hara, batez beste. Bazkide horiek tarifa berriak aplikatuta egin zituzten. Hain zuzen ere, 18 euro ordaindu zuten hilabetea.

> OSASUNA
### Osasun txartel unibertsala, anbulatorioan

Osasun txartel unibertsala anbulatorioan atera behar zen urtarrila ezkero. Ordu arte udaletxean ateratzen zuten, baina eskaria handia zelako eta prozesua administratiboa bakarrik zelako hartu zuten erabakia. Kotizatzen ez dutenek behar dute txartel hori osasun laguntza izateko.

> JARDUN
### 36 lan jaso zituzten amodiozko gutun lehiaketarako

Jardunek antolatutako amodiozko gutunen 15. ekitaldirako 36 lan aurkeztu zituzten. 1993. urtean izan zen partaidetza handiena: 245 gutun jaso zituen orduan Jardunek, horietatik 68 bergararrek idatzitakoak. Aurten herriko bi bakarrik aurkeztu dira . Epaimahaikoek kalitatea nahiago dute kantitatea baino.

> ZERBITZUAK
### Amillagako eta Osintxuko kabinak kentzea eskatu zuten

Amillagako eta Osintxuko telefono kabinak kentzea eskatu zuen Telefonica enpresak, oso gutxi erabiltzen dituztelako. Amillagako kabina kentzeko baimena eman zuen Udalak, baina Osintxukoa ez kentzeko eskatu zion Telefonicari, zerbitzu ona ematen dutelako. Osintxun ez dago beste telefono kabinarik.

**LANA** > UDAL LANPOSTUAK
## 18 lanpostu betetzeko lehen deialdiak egin zituen Udalak

Beste 18 lanpostu bete nahi zituen urte hasieran Bergarako Udalak. Baina deialdi guztiak batera egiteak prozesua zaildu edo moteldu egingo zuelako, deialdiak multzoka egitea erabaki zuen. Urtarrileko azken astean lau lanpostu betetzeko deialdiak egin zituen: bi udaltzain, mantentze-lanetarako arduraduna, informatikaria eta aldi baterako gizarte laguntzailea. Urtean zehar egiteko utzi zituen: garabiko txoferra, ofizial igeltseroa eta argiketaria, besteak beste.

> ZERBITZUAK
### Zerbitzu automatikoa Muniola gasolindegian

Osintxuko Muniola gasolindegian, Soraluzetik Bergararako noranzkoan, zerbitzu automatikoa jartzea pentsatu zuten. Hango arduradunak esan zuenez, AP-1 autobide zabaldu zutenetik bezero gutxiago dituzte eta ezinezkoa zaie alde bietan langileekin jarraitzea.

KIZKUR
Ile apaindegia • Estetika
Gabon jai zoriontsuak opa dizkizuegu!
Bolu kalea 51 Tel.: 943 76 50 32 BERGARA www.kizkur.com



ibili
1942a ezkero
Aro berriko sukalderako tresneria
San Juan auzoa
BERGARA
Tel.: 943 76 35 44 • Faxa: 943 76 51 39
Web orria: www.ibili.net
Zorionak bergararroi!


# OTSAILA



**"Politika eta herritarren arteko lotura estuagoa izaten saiatuko naiz"**

**German Muruamendiaraz** > EAJko alkategaia



**"Ohorea izan da Guggenheimeko ziklo bat zabaltzea"**

**Jesus Mari Lazkano** > Margolaria

### hileko esaldia

**"Etxebizitzak alokatzeko mesfidantza gutxiago izan behar dute herritarrek"**

**Luis Laskurain** > Suradesa

### hileko datua

# 175

Bergarako Udal Musika Bandak 175 urte bete zituen otsailaren 19an. Ospatzeko, kalejira egin zuten herriko plazan eta argazki ofiziala atera zuten kideek udaletxeko osoko bilkuren aretoan.



GOIENKARIA

## Errege Seminarioaren banaketa, ofizial

Errege Seminarioaren banaketa sinatu zuten otsailean: Anjel Mari Eguren Aranzadi Ikastolako presidenteak, Victoriano Gallastegi alkateak, Joxe Juan Gonzalez Txabarri diputatu nagusiak eta Juanjo Alvarez UNED ikastetxeko zuzendariak sinatu zuten hitzarmena, banaketa ofizial eginez. Hitzarmenean aurreratu zuten, UNED ikastetxeak obrak egingo dituela eta bitartean Arrizuriaga jauregian egongo dela; Aranzadi Ikastolak pasabidea egingo duela eta Munibe plazatik eta horixe izango da ikastolako sarrera nagusia; Udalak, bestalde, kristalezko auditorioa egingo du.

**Zabalotegi egokitzeko proiektua**
Zabalotegiko aretoa erabilera askotariko areto izateko proiektua Zumarragako enpresa bati eman zioten.

**Labegaraietan ziburu zaharrak jarri**
Ziburu zaharrak kendu zituzten kalean berriak jartzeko eta auzoan jarri zituzten zaharrak.

> ETXEBIZITZAK

### Urteaga kalearen urbanizazioa onartu zuen udalbatzak

Urteaga kalearen eremu berria urbanizatzeko hitzarmena onartu zuen udalbatzak urte hasieran. Hitzarmen horrek jasotzen du 219 etxebizitza egitea Urteaga kalean, 104 babestuak eta 115 libreak. Uhola erreka desbideratu eta zati bat bistaratu ere egingo dute. Proiektu hori egiteko, Madura Etxegintzak SL enpresarekin egin zuen hitzarmena udalak. Bergaratik Antzuolarako noranzkoan eskumara gelditzen den lautadan babestutakoak egingo dituzte eta ezkerreko sailean, libreak.

> BAKEA

### Herritarren foroa egin zuten otsaileko azken egunean

Bakearen herritarren foroa egin zuten otsailean udaletxeko osoko bilkuren aretoan. 27 eta 50 urte bitarteko zortzi herritarrek hartu zuten parte; lau emakume eta lau gizon.

Horrekin lotuta, Bergara Aurrerak fororako herritarrak aukeratzeko bidea salatu zuen otsaileko osoko bilkuran. Galdetu zion Victoriano Gallastegi alkateari ea zergatik ez zuen bere alderdiko inor gonbidatu bilerara, zinegotziak gonbidatu zituen bezala. Hori *apartheid* politikoa egitea dela gogorarazi zion.

OXIRONDO BANAKETAK
Tel.: 943 76 28 81
BERGARA

Espezialitateak:
• Urdaiazpiko iberikoak
• Paletak
• Kordobako urdaiazpikoak
• Solomoak
• Aditiborik gabeko txorizoa (Alejandro)
• Errioxako urdaiazpikoak (Los claveles)
• Erriberako esparragoak
• Pikillo piperrak
• Guardiako Luis Alegre ardoak

Gabon zoriontsuak izan ditzazuela!

Zuri beltz Margoak
Barnealde eta kanpoaldeen erreforma
Pintura zerbitzu osoa
Zubieta 28 BERGARA • 607 447 494
Txomin Santamaria 609 150 164 • Jabier Seco 678 615 045
Urte berri on!

**albiste izan zen**

> DEBAGOIENA

### Epeleko araztegia

Otsailaren 5ean hasi ziren Epeleko araztegia egiten eta 2011rako bukatu gura dute.
2007.02.16

> EUSKAL HERRIA

### 400 tona EHtik Saharara

400 tona elikagai eta sendagai bidali zituzten 29 ibilgailutan Saharara.
2007.02.18

> MUNDUA

### 11-Mko epaiketa hasi

Madrilen 2004-03-11ko atentatuaren aurkako epaiketa hasi zuten.
2007.02.15



GOIENKARIA

## Amodiozko gutun onenaren saria, Arrasatera

Amodiozko gutunen lehiaketako sari banaketa ekitaldia San Balentin egunean, otsailak 14, egin zuten, urtero moduan. Goiko argazkian daude irabazleak: Iñaki Serrano eibartarra (bigarren saria), Goizalde Hernando arrasatearra (SMS bidezko onena), Amaia Urtzelai (haren ahizpa Nerea izan zen Bergarako onena), Ainhitze Errasti aretxabaletarra (irakurle gazteek emandako saria jaso zuen) eta Oihan Zubizarreta arrasatearra (irabazlea). Sari banaketa ekitaldia kultura etxean izan zen. Jardun elkarteak antolatu zuen lehiaketa.

> INAUGURAZIOA

### Umore-Ona elkartea inauguratu zuten, berriztatuta

Otsailaren 16an inauguratu zuten Barrenkalean dagoen Umore-Ona elkartea, Bergarako pianodun elkarte bakarra. Erabat berriztatua zabaldu zituen ateak otsailean elkarte horrek. Momentu hartan 103 bazkide zituen, horietatik lau emakumeak. 2008an 60 urte egingo ditu.

> AURREKONTUAK

### Aldundiak ia 47 milioi inbertituko ditu Bergaran

Gipuzkoako Aldundiak jakinarazi zuen ia 47 milioi euro inbertituko dituela Bergaran: 2007an, 19.562.794 euro inbertituko ditu eta gainerako euroak datozen urteotan. Euro gehienak AP-1 autobideko mantentze-lanetarako eta Urretxu-Bergara errepiderako izango dira.

> ERRETIRATUAK

### San Joxepeko bazkide egiteko adina kendu zuten

Otsaila ezkero ez dago adinik San Joxepen bazkide egiteko: nahikoa da pentsioduna edo erretiratua izatea. Bikotekidea ere egin daiteke bazkide, diru sarrerarik ez badu. Zuzendaritzan egoteko denbora urtebete luzatu zuten eta kideak zerrenda bidez aukeratzea ere onartu zuten.

**LEHIAKETA** > BIZKAIKO MISTERRA

## Javier Gartzia bergararra, 2007ko Bizkaiko Misterra

Javier Gartzia 23 urteko bergararra izendatu zuten aurtengo Bizkaiko Mister. Barakaldoko Novotel hotelean jokatu zuten finalean, beste zortzi finalistei nagusitu zitzaien bergararra.

Gartzia Bilboko Biem modeloen agentzian ari da eta han animatu zuten lehiaketara aurkeztera: "Aurten hasi naiz modelo ikasketak egiten, eta finalean desfilatu dut lehen aldiz", esan zuen bergararrak saria eman ziotenean. Calvin Klein eta Roberto Cavalli dira haren marka faboritoetako bi.


Jabier Gartzia.

> LAPURRETAK

### Lapurrak sartu ziren herriko lau enpresatan

Lapurrak sartu ziren Azkarruntz eta Labegaraieta auzoetan dauden lau enpresa hauetan: Naparra Burdinak, Errotagain Galdaragintza, Tritor eta Torber. Ateak apurtu eta lantegietako pabiloiak kaltetu zituzten lauretan, baina diru gutxi eraman zuten lapurrek bulegoetatik.

ARATZ
ALBAITARI KLINIKA
Aratzek Gabon jai zoriontsuak opa dizkie bezero guztiei
Zurradero 6, behea
Tel.: 943 76 70 67 Poltsikokoa: 607 48 71 19

ZubeR ®
BVQI ISO 9001 UKAS QUALITY MANAGEMENT 008
Zuber
• Metal gogorrezko erramintak ZB ®
• Hotzeko estanpazioareko metal gogorrezko matrizea®.
Tel.: + 34 943 76 26 78
Faxa: + 34 943 76 56 79
www.adegi.es/zuber
Leizeaga kalea 8
112 posta-kutxa
BERGARA
Urte berri on bergararroi!

# MARTXOA



**"Segurtasun sentsibilitate barik, ez du balio instalazio onak"**

**Ainhoa Esteban** > Arcelor



**"Garrantzitsua da helduen lana umeek euskara normal egiteko"**

**Josune Alberdi** > Euskararen normalizazio aholkularia

### hileko esaldia

**"Antzezpen mundua gustuko dut, baina oso ezegonkorra da"**

**Edurne Azuara** > Aktorea

### hileko datua

**40**

Euskal dantza ikastaroa antolatu zuten martxotik maiatzera bitartean Jardun euskara elkarteak eta Abarka dantza taldeak. 40 lagunek eman zuten izena ikastaroetan parte hartzeko.

## Domingo Irala kaleko lanak gelditu zituzten

Domingo Irala kalea berriztatzeko lanak gelditu egin zituzten martxoaren hasieran. Obrak egiten ari zen Ozio enpresaren ordainketa-etendura izan zen arrazoia. Martxotik maiatzera arte, herriko jaiak heldu arte, zulatuta egon zen Domingo Irala kalea; komertzioetara joateko pasabidea bakarrik egin zuten. Jaietarako, ordura arte egindako lanak tapatu egin zituzten, jendea ibili ahal izateko eta tabernek mahaiak eta aulkiak jarri ahal izateko. Jaien ostean udalbatzak erabaki zuen egiteke gelditzen ziren lanak beste enpresa bati adjudikatzea, eta baldintzen orria onartu zuen. Lanok Domingo Irala kaleko lehen fasekoak dira.



GOIENKARIA

**Abiadura moteltzeko bandak Urteagan**
Urteaga kaleko bizilagunen eskaera entzunda, abiadura murrizteko bandak jarri zituzten administrazioek.

**Baldosa solteak kalean**
Herriko kaleetan baldosa asko solte daudela kexatu dira herritarrak, eta konpontzeko eskatu dute.

### izen propioak



**Manex Asula**

KIROLARIA

Espainiako snowboard txapelketan bigarren egin zuen Manex Asulak. Valdezcarayn egiten ditu entrenamenduak. Asula 7 urterekin hasi zen.



**Mireia Gabilondo**

AKTOREA

Mireia Gabilondok zuzendutako azken lana martxoan aurkeztu zuten Eibarren: *Emakumeak izarapean*. Sexua du hizpide.



**Ibai Linazisoro**

ESKIATZAILEA

Astuneko alebin txapelketan txapeldun geratu zen Ibai Linazisoro, alebin II mailan. Haren anaia Mikelek bigarren egin zuen alebin I txapelketan.



GABON JAI ZORIONTSUAK!

JOXAN ARRAINDEGIA

Orain Super Amaran ere bai!

Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

DISSOL

Banatzaile ofiziala

PRAXAIR

SOLDADURARAKO ARTIKULUAK-GASAK- PISTOLAK ETA OSAGARRIAK- HARIAK- ELEKTRODOAK-MAKINERIA

BERRIZ BILTEGIA
Eitua poligono industriala 41B
48240 BERRIZ (Bizkaia)
Tel.: 946 82 76 06
Faxa: 946 82 65 34

BERGARA BILTEGIA
Benta berri z/g
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 76 28 97
Faxa: 943 76 50 56

URTE BERRI ON!

albiste izan zen

> DEBAGOIENA
### Arazoak sortu zituen elurrak

Errepideetan eragin zituen arazo gehien, baina ez zen ezer larririk gertatu.
2007.03.23

> EUSKAL HERRIA
### Korrikaren 15. edizioa

Mauletik Iruñera egin zuen korrika Euskal Herriak, Korrika 15 festarekin batera.
2007.03.23

> MUNDUA
### Irlandako gobernu berria

Adostu zuten unionistek eta errepublikarrek osatzea gobernua.
2007.03.26



GOIENKARIA

## Erramu-zapatua egin zuten azken egunean

Martxoko azken egunean egin zuten Erramu-zapatuko feria. 100 postutik gora eta animaliak egon ziren herriko hainbat kaletan banatuta: 47 artisau postu, hiru talogile koadrila, elikagaiak saldu zituzten 56 postu eta 80 behi buru. Beste hainbat ekitaldi ere antolatu zituzten: trikitilariak, txorimalo lehiaketa, umeendako jolasak eta bertso jaialdia, adibidez.

Txorimalo lehiaketarako 25 taldek eman zuten izena. Sari banaketa ostean elkarteko maskota aurkeztu zuen Jardunek. Kilometroen aldeko txosna eta giltzurrun gaixotasunari buruzko mahaia ere jarri zituzten.

> TXIRRINDULARITZA
### Hector Gonzalez izan zen azkarrena Gorlako igoeran

Saunier Duval etxeko Hector Gonzalez izan zen azkarrena Gorlako igoeran. Bolutik Gorlara dauden sei kilometroetan taldeari aurre hartu eta bakar-bakarrik sartu zen helmugan. Mendiko saria ere irabazi zuen Gonzalezek. 139 txirrindulari atera ziren eta 79k bukatu zuten proba.

> ETXEBIZITZAK
### Algodoneran 318 etxebizitza egitea onartu zuten

Aldodonerako orubean 318 etxebizitza egitea onartu zuen udalbatzak: 238 libreak izango dira; 25 babestutakoak; eta 55 tasatuak. Orube horrek 20.332 metro koadro ditu eta horren %14, 2.849 metro koadro, Gabiria dorrea dagoen inguruko orubea, Bergarako Udalarena da.

> ERRETIRATUAK
### Zuzendaritza batzordea berritu zuen San Joxepek

Martxoan egin zuen San Joxepe erretiratuen elkarteak urteko batzarra eta zuzendaritza batzordea berriztatu zuten batzar hartan. Hiru urterako kargua hartu zuten zuzendaritzako kideek. 2006ko balantzea ere onartu zuten erretiratuek: 3.833 euroko irabaziak izan zituzten.

> INGURUMENA
### Bertako zuhaitzak landatu zituzten Zuhaitzaren Egunean

Hagina, gorostia eta sagarmina landatu zituzten martxoan egin zuten Zuhaitzaren Egunean. San Martzialen egin zuten zuhaitz landaketa eta oparitu ere egin zituzten zuhaitz landare batzuk. Eta hantxe zeuden hildako egurrekin, berriz, piramide bat egin zuten.



San Martzialen egin zuten zuhaitz landaketa.

> ENPRESAK
### Urrezko 'Q' ziurtagiria jaso zuen Lazpiur enpresak

Lazpiur enpresak urrezko Q-a jaso zuen martxoan. Ana Agirre Industria sailburua, Xabier Alkorta Euskaliteko presidentea eta Victoriano Gallastegi alkatea etorri ziren ekitaldira. EAEn zazpi industria enpresak dute sari hori eta Lazpiur izan da lortu duen Bergarako lehena.

COEG
J. Alberto Gorosabel Mendizabal doktorea
• INPLANTEAK Punta-puntako teknologia
• Aho zirugia
• Ortodontzia
• Odontologia orokorra
Aseguruak: PADI
(Osakidetza)
LAGUN-ARO
AEGON
Tel. : 943 76 56 88
Fraiskozuri 5A, 1-D. BERGARA
Zorionak eta urte berri on!

Azkoin
Industriak
Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu bergarar guztioi!
Amillaga 43, San Lorentzo industria poligonoa 109 posta kutxa Bergara Tel.: 943 76 10 52 Faxa: 943 76 98 20
azkoin@azkoin.com www.azkoin.com

# APIRILA



**"Pediatriako arazoa medikuntzako beste alorretara helduko da"**

**Arrate Bengoa** > Pediatra



**"Bartzelonan eskaintza handia dago eta zaila da lekua egitea"**

**Iñaki Alberdi** > Artista

### hileko esaldia

**"Lekuek mugatu egiten gaituzte, eskubideak emanez edo kenduz"**

**Junkal Arruti** > Boluntarioa

### hileko datua

**4,9**

Bergaran errodatuta zeuden biztanleen %4,9 etorkinak ziren. Guztira 726 etorkin zeuden erroldatuta Bergaran 2006an. Gehienak Boliviakoak, Pakistangoak eta Portugalekoak ziren.




GOIENKARIA

## Kontseiluak 6,35eko nota jarri zion Bergarari

Bergarak 6,35eko nota atera zuen hizkuntza politikaren azterketan. Euskal Herriko 66 udalerritan egin zuen Kontseiluak hizkuntza azterketa eta Bergara bosgarren postuan kokatu zen. Bere aurretik gelditu ziren Azpeitia, Lekeitio, Oñati eta Tolosa. Kontseiluaren iritziz, nota ona atera zuen Bergarak, baina hutsuneak ere aurkitu zituen: udal ordenantzak falta direla, adibidez. Beste hutsune aipagarri bat izan zen udaletxe barruan errotulu informalen bat erdara hutsean zegoela. Herriko Berba elkartea 2006ko urtarrilean hasi zen Bergarako euskara aztertzen.

**Alet Taldea saritu zuen Jaurlaritzak**
Enpresa berrien Urrats saria eman zion Eusko Jaurlaritzak Bergarako Alet Taldeari.

**Eskubaloiko neskek galdu gurasoen aurka**
Eskubaloiko nesken taldeak galdu egin zuen gurasoen aurkako partidua. 10-9 bukatu zen norgehiagoka.

> KILOMETROAK

## Egindako Kilometroen logotipo erakusketa egon zen ikusgai

Aurten arte egin dituzten Kilometroetako 31 edizioetako logotipoen erakusketa egon zen ikusgai Aroztegi aretoan apirilean zehar. Kilometroak antolatu dituzten 31 ikastoletako DBHko ikasleek egin zituzten logotipo horiek, denetariko euskarrietan eta teknika eta material askorekin: pinturak eta *collage*-ak, adibidez.

Bergaran birritan antolatu dute Kilometroak festa, 1991n eta 2007an, eta bi urte horietako logotipoak besteen gainetik nabarmendu zituzten; landuagoak eta handiagoak ziren.

> KULTURA

## Udal liburutegia plazara atera zen liburuaren egunean

Udal liburutegia kalera atera zuten apirilaren 23an, Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzeko. Herriko plazako arkupetan egon zen egun horretan liburutegia, egun osoz, eta liburutegiko eraikinean eskaintzen duten zerbitzu bera eman zuten kalean ere.

Egun horretan, gainera, liburutegira joan zenak aukera izan zuen liburu bat hartzeko opari moduan; bikoiztuta zeuden liburuak mahai baten gainean jarri zituzten irakurleak aukeratu eta etxera eraman ditzan.

Zumelaga
JATETXEA
Gabon jai zoriontsuak izan ditzazuela denok!
San Antonio 5 BERGARA 943 76 20 21
65 urte zuen zerbitzura!

ROYDE
FITTINGS & BEARINGS

Gabon jai zoriontsuak bergararroi!
Errodamendu berezien, burdineria eta sistema iristakorren fabrikazioa
Royde, S. Coop. •157 posta-kutxa • Amilaga 9 • 20570 BERGARA
Tel.: +34 943 76 16 40 • Faxa: +34 943 76 50 75 • e-maila:rap@royde.com • www. royde.com

**albiste izan zen**

> DEBAGOIENA

### 60 zerrenda aukeratzeko

Maiatzeko Udal hauteskundeetara 60 zerrenda aurkeztu zituzten.
2007.04.27

> EUSKAL HERRIA

### Coborendako EHko itzulia

Juan Jose Cobo (Saunier Duval) kantabriarrak irabazi zuen Euskal Herriko Itzulia.
2007.04.14

> MUNDUA

### Boris Yeltsin hil zen

Boris Yeltsin, Errusiako agintari ohia, 76 urterekin hil zen.
2007.04.23

# Musika kalera atera zuten eskolakoek

Musika Eskolako ikasleek kalera atera zituzten apirileko kontzertu eta ikuskizunak. Apirilean Musika izeneko egitaraua antolatu zuten Musika Eskolakoek eta 20 bat emanaldiko programa osatu zuten. Musika Eskolako 500 ikaslek hartu zuten parte Apirilean Musika egitarauan.

Ideiaren helburua zen ikasleek eskola barruan egiten duten lana herritarrei erakustea. Horrela, herrian barrena dauden areto eta elizetan egin zituzten emanaldiok; besteak beste, Jam aretoan, osoko bilkuren aretoan eta Sierbetako eta Mizpirualdeko elizetan. Kalean ere egin zituzten kontzertuak: Espoloian eta San Martin plazan, adibidez.


GOIENKARIA

> ZAINTZA

### Biribilguneak Udalak zainduko ditu 15 urteotan

Hondartza eta Tejeriako biribilguneak eta berdeguneak Udalak zaindu eta apainduko ditu datozen 15 urteotan. Horixe hitzartu zuten Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, biribilguneen jabeak. Akordioak jaso zuen Aldundiak 24.000 euro emango ziola Udalari lan horiek egiteko.

> KIROLAK

### Pilotako 12. Bergara Hiria txapelketa jokatu zuten

Pilotako 12. Bergara Hiria txapelketa jokatu zuten apirilean; martitzenetan jokatu zituzten partiduak. Guztira, helduen mailako hamar bikotek eta 22 urtez azpiko zortzi bikotek hartu zuten parte. Azkenean, bergararrik gabe jokatu zuten aurtengo txapelketako finala.

> ETXEBIZITZAK

### San Lorentzon 72 etxebizitza egitea onartu zuen udalbatzak

San Lorentzon 72 etxebizitza egitea onartu zuen udalbatzak apirileko ezohiko osoko bilkuran. Oregi ehungintza lantegia egondako orubean egingo dituzte etxebizitza horiek. Betalde, Movillas eremuan 219 etxebizitza egitea sinatu zuten Udalak eta Madura Etxegintza SL Bergarako eraikuntza enpresak.

> KIROLAK

### Gipuzkoak eta Osasunak Agorrosinen jokatu zuten

Realeko gazte mailako torneoak hiru partidu ekarri zituen Debagoienera eta horietako bat Bergarako Agorrosinen jokatu zuten. Gipuzkoa eta Osasuna taldeen arteko norgehiagoka izan zen, hain zuzen ere, Bergaran jokatu zutena. Realak Aste Santuan egiten duen gazte mailako 13. torneoko partiduetako bat izan zen.

**TURISMOA** > BERGARA, ASTE SANTUA PASATZEKO

# Herriko ostatuak bete egin ziren Aste Santuko oporretan

Herriko landetxeak beteta egon ziren Aste Santuko oporretan eta hotelak, ia beteta. Kataluniatik, Madrildik eta Palma de Mallorcatik etorri ziren bisitari gehienak. Kanpoan bizi diren bergarar askok ere Bergaran hartu zuten ostatu, etxekoen ondoan oporrak pasatzeko. Turista gehienek Aste Santurako hartu zuten ostatua; Pazko Asterako eskaera gutxiago izan zituzten. Babarrunak jan, Guggenheimera joan, kostaldea ezagutu eta halakoak egin ohi dituzte Bergarara datozen bisitari gehienek.

> ARAU SUBSIDIARIOAK

### Plan orokorraren behin-behineko asmoa onartu zuten

Bergarako plan orokorrari hasierako onarpena eman zion udalbatzak, EAJ, EA eta PPren botoekin; Aralarrek eta PSE-EEk kontra bozkatu zuten eta EB ez zen osoko bilkurara joan. Horrela, behin-behineko proiektua onartu zuten. Planaren aurrerapenari 48 alegazio jarri zizkioten.

PANADERIA Y PASTELERIA ARTESANA
KONDE
PANADEROKUA



Zorionak
eta urte berri on!

Burdiñate 11 Tel.: 943 76 02 57
Tokieder plaza 3 Tel.: 943 76 14 87
BERGARA

HORKONPON
oinetako konponketa

Albertok Gabon jai zoriontsuak opa dizkizuete!



kremailerak
poltsen konponketa
tindatzea
krisketak

Bidekurutzeta 28
943 76 04 07

# MAIATZA



**"Pinturak eta sukaldeak badute elkarren antza: denbora, presentazioa..."**

**Manu Muniategiandikoetxea** > Margolaria



**"Lurraren gaineko erantzun asko daude espazioan"**

**Bittor Rodriguez** > Ilatargi astronomia taldeko kidea

### hileko esaldia

**"Saiatuko gara euskararen udal ordenantzak alde askorekin adosten"**

**Jon Unamuno** > Berba taldeko kidea

### hileko datua

**95**

Etxebizitza bihurtzeko hiru lokal zozketatu zituen Udalak osoko bilkuren aretoan maiatzean: Elorregin, Masterrekan eta Zubiaurren. Guztira 95 pertsona aurkeztu ziren zozketa hartara.

## EAE-ANVk irabazi zituen udal bozketak

Eusko Abertzale Ekintza alderdiak irabazi zituen maiatzaren 27an egin ziren udal eta foru hauteskundeak. Botoen %31,16 lortu zituen alderdi horrek, 2.186 boto zehazki, eta sei zinegotzi. EAEren ondoren: EAJ, 1.974 (%28,14), bost zinegotzi; Aralar, 1.056 (%15,05), hiru zinegotzi; PSE-EE, 684 (%9,75), bi zinegotzi; EA, 546 (%7,78), zinegotzi bat; EB, 274 (%3,91), zinegotzirik ez; PP, 236 (%3,36), zinegotzirik ez; baliogabeak 236 (%3,36).

"Lasaitasunez eta, aldi berean, erantzukizunez hartzen ditugu emaitza bikain hauek", esan zuen Agurne Barrusok, EAE alderdiko alkategaiak, emaitzak jakin bezain pronto.



GOIENKARIA

**Gaztetxoek atletismoa egiteko taldea**
Gaztetxoek atletismoa egiteko eta kirol horri bultzada emateko taldea sortu zuten.

**Jaietako ekitaldi batzuk, atzeratuta**
Euriak atzeratu egin zituen jaietako ekitaldi batzuk; adibidez, moto-kros eta skate txapelketak.

### izen propioak



**Irene Abad**

DISEINUGILEA

Irene Abad 26 urteko diseinugile bergararrak irabazi zuen Mendekoste jaietako kartel lehiaketa. 600 euroko saria jaso zuen Irenek.



**Mikel Aristi**

TXIRRINDULARIA

Infantil mailan Gipuzkoako txapelketa irabazi zuen Lokatza taldeko Mikel Aristi bergararrak. Beste hiru lasterketa ere irabazi zituen.



**Juan Antonio Untzurruntzaga**

ARGAZKILARIA

Untzurruntzagak eta Canterok Espainiako Konfederazioko artista titulua jaso zuten Bergaran egindako argazkizaleen topagunean.




Gabon zoriontsuak igaro

OLABE

OKINDEGIA-GOZOTEGIA







Amillaga 21 Tel.: 943 76 72 28
Matxiategi 4 Tel.: 943 76 57 99
Zurradero 2 Tel.: 943 76 01 26
Simon Arrieta 6 Tel.: 943 76 10 71

## albiste izan zen

> DEBAGOIENA
### Boto eskubidea 52.232 lagunek
Udal eta foru hauteskundeetara 52.232 debagoiendar zeuden deituta.
2007.05.25

> EUSKAL HERRIA
### Maiatzaren Bata, banatuta
Sindikatuek nork bere aldetik ospatu zuten Langilearen Nazioarteko Eguna.
2007.05.02

> MUNDUA
### Sarkozy presidente
Nicolas Sarkozy Frantziako presidente izateko bozken irabazle.
2007.05.06


GOIENKARIA

# Aurrekontua onartu zuten: 30,5 milioi euro

Aurreko agintaldiak (EAJ, EA, Aralar) maiatzean onartu zuen 2007ko aurrekontua: 30.486.030 euro. Horietatik 1,3 milioi euro erakundeen arteko mugimenduetarako ziren. EAJ, EA eta Aralar alderdietako ordezkariek alde bozkatu zuten eta Ezker Batua, PSE-EE eta PPko zinegotziek, aurka. Domingo Irala kalean egin behar zuen Udalak 2007ko inbertsiorik handiena. Agorrosingo bainuetxeak beste zati handi bat hartu zuen. Bestalde, diru irteera bat bideratu zuen liburutegia tokiz aldatzeko eta Arrizuriaga jauregira eramateko.

> KULTURA
### Euskal liburu gehiago irakurtzeko egitasmoa
Euskal liburuak irakurtzeko egitasmoa jarri zuen martxan Jardunek, Topagunearekin eta liburutegiarekin batera. *Irakurri, gozatu eta oparitu* kanpainarekin, maileguan hartutako liburu bat Elkarren erosiz gero %25eko deskontua egiten zuten, eta Jarduneko bazkideei %50ekoa.

> KIROLAK
### Labegaraietan jarritako tenis karpak haserrea eragin zuen
Labegaraietako kiroldegiko tenis pistan jarri zuten karpak eztabaida sortu zuen erabiltzaileen artean. Karpak urte osoan jokatzeko aukera ematen duen arren, baxuegi jarri zutela kexatu ziren. Karpa horrek hiru urte pasatxoz Agorrosingo igerileku zaharra estali zuen.

> JAUNARTZEAK
### Herriko 88 umek egin zuten maiatzean lehenengo jaunartzea
Aurten, herriko 88 umek egin dute lehen jaunartzea. Hiru domekatan egin zituzten: San Pedro parrokian 44 umek, Santa Marinan 42k eta Uberan bi umek. Zenbakiei begiratuta, joan den urtean baino ume gutxiagok egin dute aurten jaunartzea: iaz San Pedron bi elizkizun egin zituzten eta aurten bat, adibidez.

> ISUNAK
### Gaizki aparkatzeagatik jarri zituzten isun gehienak udaltzainek
Udaltzainek 2006ko txostena aurkeztu zuten maiatzean, eta, txosten horrek jasotzen zuenaren arabera, 3.235 isun jarri zituzten joan den urtean Bergaran, 2005ean baino %52,9 gehiago. Txostenak jasotzen du isun gehienak gaizki aparkatzeagatik jarri zituztela, horietatik asko Ibargarai eta Irizar kaleetan.

**KILOMETROAK 07** > MENDI ASTEBURUA
# Kilometroen aldeko mendi asteburua egin zuten
Kilometroen aldeko mendi asteburua egin zuten maiatza hasieran. Ekitaldien artean, IV. Euskal Herrien arteko Euskal Joko jaialdia, Alberto Iñurrategiren *Gure Himalaya* ikus-entzunezkoa eta Urkulura mendiko bizikletan irteera egin zituzten.

Gipuzkoako zortzi herriko taldek egin zuten elkarren kontra Euskal Herriko joko jaialdian eta azkenean Zizurkilgo taldea nagusitu zen. Iñurrategiren ikus-entzunezkoan 110 lagun elkartu ziren eta bizikleta irteera ere askok egin zuten.

> JAIALDIA
### Kongoren aldeko elkartasun eguna egin zuen Lagundiak
Mariaren Lagundia ikastolak Kongoren aldeko elkartasun jaialdia egin zuen. Kongoko Errepublika Demokratikoan ikastetxe bat zabaltzeko dirua lortzeko egin zuen jaialdia. Kantuak, dantzak, antzerkia eta Afrikako produktuen salmenta egin zuten, besteak beste.




SVMS
SERVIMASA
Sukaldeko altzariak eta osagarriak
Aitziturri 4, Posta-kutxa 173
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49
20570 BERGARA
103 Industria poligonoa
Tel.: 943 52 05 00 Faxa: 943 51 57 57
20100 LEZO

ALTUBE
tailerrak SM
BVQI ISO 9001 UKAS QUALITY MANAGEMENT 008
ESTANPAZIORAKO PIEZAK ETA TRESNAK MEKANIZATZEA ETA ARTEZTEA
Tel.: 943 76 22 74
Faxa: 943 76 04 99
URTE BERRI ON!
San Lorentzo poligonoa - Urarte 22
94 posta-kutxa - BERGARA

# EKAINA



**"Gobernu plural bat herritarren mesederako dela uste dut"**

**Elena Laka** > Abokatua



**"Jende berria sartu da eta orkestra momentu onean dago"**

**Andoni Sierra** > Musika Eskolako orkestrako zuzendaria



GOIENKARIA

## Ekainaren 16an eratu zuten udalbatza berria

Maiatzeko hauteskundeen ostean, ekainaren 16an egin zuten udalbatza berriaren osaketa ekitaldia. Egun hartan izendatu zuten alkate Agurne Barruso (EAE). Barrusok bederatzi boto jaso zituen, EAErenak eta Aralarrenak. German Muruamendiaraz EAJko alkategaiak sei boto jaso zituen, jeltzaleen ordezkarienak eta EAko zinegotziarenak. Herritar askok izan zuten udalbatza nola eratzen den ikusteko tentazioa eta udaletxeko osoko bilkuren aretoa jendez bete zen. Hutsune nabarmen bat ere egon zen, ordea: Victoriano Gallastegi, 16 urtez alkate izandakoa, ez zen joan.

### hileko esaldia

**"Gauzak kontatzea gustatzen zait eta telebistak aukera ona ematen du"**

**Oihan Vega** > Kazetaria
2007.06.08

### hileko datua

# 7

Zazpigarren urteurrena ospatu zuen ekainaren bigarren astean Bergarako gaztetxeak. *7 udaberri loratzen* leloa aukeratu zuten ospakizunerako eta hainbat ekitaldi antolatu zituzten.

**Debagoineko III. trikiti eguna**
Bergaran ospatu zuten, ekainaren 2an, Debagoieneko III. trikiti eguna.

**Berdegunearen irekiera atzeratu zuten**
Ekainaren 16an ireki behar zuten Agorrosingo berdegunea, baina euriagatik hil amaierara atzeratu zuten.

### izen propioak



**Mari Karmen Gallastegi**
EKONOMIALARIA

Ikerbasque zientzia fundazioko presidente exekutiboa da Gallastegi. Helburua da atzerriko zientzialariak Euskal Herrira ekartzea.



**Fran Iturbe**
MUSIKARIA

Los Angelesen bizi da Fran Iturbe, baina ekainean Euskal Herrira etorri zen, Gari kantariaren *Esperantzara kondenatuta* lanean parte hartzera.



**Jokin Etxaniz**
PILOTARIA

Legutianoko Larrabea golf zelaian jokatutako Deba ibarreko San Juan golf txapelketako lehen mailan, Jokin Etxanizek irabazi zuen.

IAM — Sarpen eta hari bidezko elektrohigadura
IAMMEK — Abiadura handiko mekanizatuak
IAMCUT — Ur-zorrotada bidezko mozketak

GRUPO IAM
Aribar industrialdea B pabilioia
San Juan auzoa 52 BERGARA
Tel.: 943 76 91 00 Faxa: 943 76 29 49

Zorionak denoi!

www.iam.es



Instalakuntza moderno eta guztiz erosoekin, gure bezeroek merezi duten kalitatezko zerbitzua eskainiz.

Ondo pasa Gabonetan!

Ariznoa HOTELA

Telesforo Aranzadi 3
Tel.: 943 76 18 46 - 943 76 18 47 Faxa: 943 76 18 48
20570 BERGARA - Gipuzkoa



*Eraman dotoretasuna*
*zure etxera*

gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1 OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51



**Saunier Duval**

DICOMAN S.L.

**San Lorentzo 21**
20570 Bergara
Laguntza teknikorako zerbitzu
ofizial baimendua
**Tel.: 943 76 06 61**

**BEROGAILUAK, KLIMATIZAZIOA ETA UR BEROA**

# UZTAILA



**"Yemenen hori pasako zela jakingo bagenu, ez genuen bidaia egingo"**

**Jon Lazkano** > Banoa bidaia agentziako zuzendaria



**"Eskubaloiak inplikazio eta partaidetza handiagoa behar du"**

**Josetxo Muniategi** > Eskubaloiko entrenatzailea

## hileko esaldia

**"Zenbat eta nagusiagoa izan, erreakzio motelagoa du esklerosi anizkoitzak"**

**Juan Antonio Untzurruntzaga** > Esklerosi anizkoitza du

## hileko datua

# 2

XIX. mendeko bi txanpon agertu ziren San Martzialgo ermitan. Ermitaren sarrean topatu zituzten, sarrailaren ondoan. Hamar zentimokoak ziren biak, lehengo *txakur handiak*.



GOIENKARIA

## Angiozarrek ezetz esan zion AHT proiektuari

AHTren proiektuaren gaineko herri galdeketa egin zuten Angiozarren uztailaren 2an. *AHTren alde nago?* galderari baietz edo ezetz erantzun behar zioten auzotarrek, eta gehienek ezetz erantzun zuten. Bozketaren emaitzak izan ziren: Bai: 4; Ez: 193; zuri: 10; eta baliogabeak: bat. Partehartzea %83,87 izan zen. Emaitza haiek Udalari aurkeztu zizkioten eta galdetu zioten zertan lagunduko duen iritzi hori errespetatzeko. Bestalde, auzo alkatea eta batzarra aukeratzeko hauteskundeak ere egun horretan egin zituzten eta Mila Elortza aukeratu zuten alkate.

**San Martzialgo soka dantza**
Aspaldiko partez, herriko alkate eta zinegotziek egin zuten San Martizialen urteroko soka dantza.

**Kirol instalazioen gaineko kezka**
Herriko kirol instalazioen gaineko kezka agertu zuen Bergara kirol elkarteak denboraldi bukaerako bileran.

## izen propioak



**Mikel Muxika**
TRIATLETA

Espainiako junior mailako triatloi txapelketan, Mikel Muxika bergararra izan zen helmugan sartu zen Euskadiko kide bakarra; 53. sailkatu zen.



**Mikel Plazaola**
ESKUBALOI JOKALARIA

Eskubaloiko Gipuzkoako golegile nagusiaren saria, lehenengo mailan, eman zioten Mikel Plazaola Bergarako gazteari. Donostian eman zioten.



**Aritz Kortabarria**
TRIATLETA

Txekiako Moraviaman proban lehiatu zen, Joseba Zuzaetarekin batera. Kortabarria 4. tokian sailkatu zen eta Zuzaeta 8.a izan zen.

Estella ortopedia
Javier Estella, ortopedia teknikari tituluduna
OSAKIDETZAREKIN ETA LAGUN AROREKIN HITZARTUA
• Etxerako laguntza teknikoa • Kirol Ortopedia • Oinetakoak
• Mastektomia • Neurrira eginiko plantillak
Matxiategi 5, BERGARA. Telefonoa: 943 76 19 63
RPS 421/97
Gabon jai zoriontsuak!

FILBER
Talleres FILBER S.L.
Filtrazio ekipamenduen eta zinta garraiatzaileen fabrikazioa



DQ cert
Gabon jai zoriontsuak!
Amillaga 14 - 71 P.K. • Tel.: 943 76 17 45 • Faxa: 943 76 97 46


OGIZUN
koop. elk.
okindegia
Gabon jai
zoriontsuak!
Laster Arrizubiaga parkean
(Ibargarai ondoan - BERGARA)
Argazkia Kiñu


AGIRRE
HORTZ KLINIKA
Nagore eta Alaitz Agirre odontologoen,
Gotzone Arkarazo, Maitane Larrañaga eta
Silvia Romero laguntzaileen partez
Zorionak
eta urte berri on!
Ibargarai 9, 1-B. BERGARA Tel.: 943 76 00 23

metagra

*Gabon zoriontsuak eta urte berri on herritar guztioi!*

**Amillaga 22 P. K. 79 • 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 13 48 • Faxa: 943 76 50 34**
**e-maila: mse@metagra.com • www.metagra.com**

EAJ PNV

Gabon zoriontsuak eta urte berri on guztioi

BULEGOA Tel. eta faxa: 943 76 47 00

TABERNA Tel. 943 76 49 33

San Pedro 4, BERGARA

# ABUZTUA



**"Zaleak Agorrosinen ikusi nahi ditugu berriz, taldea jarraitzen"**

**Manu Diaz** > Bergara KEko erregional mailako entrenatzailea



**"Lan handia izan dugu, baina oso gustura nago 'Balbemendi'-rekin"**

**Edurne Azuara** > Aktorea

### hileko esaldia

**"Etxebizitzen salmenta ikaragarria izan da eta gehikuntza hori moteltzen doa"**

**Mikel Astorkia** > Bergarako Kutxako zuzendaria

### hileko datua

**400**

Abuztuan 400 bazkide inguru galdu zituen Agorrosingo Kirol Eremuak. Hileroko kuota ordaintzen denez, abuztuan baja ugari izan ziren. Uztailean 2.800 bazkide zituen Agorrosinek.



GOIENKARIA

## Turisten beherakada aurten

Azken urteotan baino turista gutxiago jaso zuen Udaleko Turismo Bulegoak. Jaitsiera orokorra izan zen, emandako datuen arabera. Donostian eta Bilbon beherakada nabaritu zuten, eta gauza bera gertatu zen herri txikiagoetan: Zarautz, Mutriku, Lekeitio... Bergararen kasuan, 2001. urtetik lehen aldiz, aurreko urtearekin konparatuta, turista gutxiago izan ditugu eta aurtengo datuak 2003ko datuen antzekoak dira. Udalak 1995ean zabaldu zuen lehen aldiz Turismo Bulegoa. Azken urteotan uda osoan izan da zabalik. Ekainetik irailera 2.430 igaro ziren bulegotik.

**Aby-Kem**
Danbaka Debagoieneko musika lehiaketa irabazi ostean lehen diskoa grabatu zuten: *Azken guda*.

**Agorrosingo Kirol Eremua**
Erantzun eskasagoa izan zuen abuztuan. Kanpoko igerilekurik ez izateak izango zuen zerikusia beherakadan.

### izen propioak



**Edu Jauregi**
TRIATLETA

Plentzian jokatutako Euskadiko Aquatloi Txapelketan 2. postua eskuratu zuen, beteranoen mailan. Korrika eta igeriketa tartekatu beharra zegoen.



**Nora Askargorta**
KAZETARIA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuko prentsa arduradun izendatu zuten kazetari bergararra.



**Kepa Irizar**
IGERILARIA

Bergara Igeri Elkarteko igerilaria 14. postuan sailkatu zen Getaria-Zarautz itsas zeharkaldian (2.800 m), 39 minutu eta 49 segundoko denborarekin.

Garaje Murillo
Auto konponketak orokorrean
Zorionak bergarar guztioi!
EUROTALLER SERVICIO
Leizeaga, 4 • 20570 BERGARA (Gipuzkoa) • Tel.: 943 76 13 84

Gabon jaietan ondo pasau!
Txuringo taberna


Osintxu auzoa - Bergara
Tel.: 699 22 80 96

# IRAILA



**"Antzokirik ez duten herrientzat sortu dugu '10 urte' ikuskizuna"**

**Edu Muruamendiaraz** > Dantzaria eta koreografoa



**"25 urteotan 150-200 ikasleren bueltan koka-tu da ikasle kopurua"**

**Alex Labaien** > Udal Euskaltegiko zuzendaria



GOIENKARIA

## Orientazio psikologikoa gurasoendako

Familiei zuzendutako orientazio psikologikoko zerbitzua aurkeztu zuten irailaren 26an. Lea Artibain eta Urola Kostan zerbitzuak izandako erantzun onari eutsi nahi dio Udaleko Ongizate Zerbitzuak. Zerbitzu aitzindaria da Debagoienean eta 0 eta 19 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoei zuzenduta dago. EHUko Psikologia Fakultatearekin hitzarmena sinatu zuen Udalak zerbitzua eskaintzeko. 9.280 euroko aurrekontua dauka. Doaneko zerbitzua da eta interesatuek Udaleko webgunera jo dezakete (*www.bergara.net*).

### hileko esaldia

**"Erronka da herriko euskara biziaren mate-riala egungo erabilerarako gertatzea"**

**Estepan Plazaola** > Udaleko Euskara zerbitzuburua

### hileko datua

**25**

Hogeita bosgarren urteurrena bete du Bergarako Udal Euskaltegiak eta *Egizu euskaraz! Nahi baduzu... egingo duzu* lelopean ikasturte berriaren ildoak aurkeztu zituzten irailaren 18an.

**Kilometroetako boluntarioak**
Aranzadi ikastolak Kilometroetarako boluntarioak behar zituen eta jendeak primeran erantzun zuen.

**Ikastetxeen artean akordiorik ez**
San Martin eskolako espazio arazoak konpontzeke jarraitzen zuen, eta tentsioa areagotuz irailean.

### izen propioak



**Uriarte eta Arzelus**
BERTSOZALEAK

Eñaut Uriarte (goian) eta Iñigo Arzelus Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan lehiatu ziren, Legazpin eta Elgetan.



**Eneko Baltzategi**
KOGOLLO PARTY KREW

Kilometroetako jatorrizko abestiari moldaketa egin zion Eneko Baltzategi disko jartzaileak. Bertsio elektronikoa da *Ene!* DJarena.



**Rikardo Azkargorta**
PINTOREA

Urretxuko Juan de Lizarazu aretoan *Basati* izeneko erakusketa jarri zuen. Udazkenean Valentzian beste erakusketa bat egin zuen.

Etxebizitzen, etxabeheen eta garajeen eraikuntza
ORTUIBAR SM
PROMOZIOAK
Ibargarai 18 BERGARA 943 76 11 18
Zorionak eta urte berri on!

Iturkintz Berri S.L.

Bainurako altzarien salmenta eta instalakuntza
Gas naturalezko, propanozko eta gasoleozko kalefazioak

Gabon jai zoriontsuak!
Amillaga 1 behea • Tel.: 943 76 28 04 • Faxa: 943 76 36 58

albiste izan zen

> DEBAGOIENA
### Ikerlan eta eguzki plakak

Plastikozko eguzki plakak egiteko lanean dabil Ikerlan, Hezkuntza Ministerioaren babesarekin. 2006.09.21

> EUSKAL HERRIA
### Imazek politika utzi

Josu Jon Imazek EBBko presidente izaten ez zuela jarraituko aurreratu zuen. 2006.09.12

> MUNDUA
### Fujimori, Perura bueltan

Txilek Alberto Fujimori estraditatu zuen Perura, hainbat delitu leporatua. 2006.09.22

## Udal Bandaren 175 urteak, liburu baten batuta

*Historia baten notak* izenburuko liburua aurkeztu zuen Juan Luis Bikuña kazetariak San Martin jaietan. Udal Musika Bandaren 175. urteurrena ospatzeko egindako lana da eta bandaren historia jasotzen da bertan. "Musika kontuetan aditua ez naizenez, modu errazean irakur daitekeen historia kontatzen saiatu naiz", adierazi zuen Bikuñak. Bandaren sorrera aztertu ondoren, liburuaren bigarren zatiak Gonzalez familiak eman dituen hiru zuzendari belaunaldiak aztertzen ditu. Ignacio Gonzalez Escala, Miguel Gonzalez Bastida eta Alfredo Gonzalez Chirlaque, 1986a ezkero banda zuzentzen duena.



GOIENKARIA

> HEZKUNTZA
### Ikasturte berria aurkeztu zuen UNEDek

Bergarako UNED ikastetxeak ikasturte berrirako eskaintza zabala aurkeztu zuen irailaren 24an. 34 unibertsitate ikasketa egiteko aukera ematen du aurten UNEDek. Berritasun nagusia zera da: Enpresa-Zientzien diplomatura osorik egiteko aukera dagoela aurten.

> DANTZA
### Dantza solteko txapela eta zapia, Oreretara

Hamabi bikote aritu ziren lehian irailaren 12an jokatutako Moises Azpiazu dantza txapelketan. Lehia gogorra izan zen eta Oreretako Eneko Gil eta Nerea Besada izan ziren irabazleak. Mikel Igartua eta Ibane Baseta bergararrak hirugarren tokian sailkatu ziren.

> INTERNET
### 'Bergara aldeko hiztegia' sarean eskuragarri

*Bergara aldeko hiztegia*-ren Interneteko bertsioa aurkeztu zuten irailaren 18an udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Juan Martin Elexpururen lanak, besteak beste, 12.000 sarrera, mila azpisarrera, esapide eta esaera zahar eta mapak eta argazkiak biltzen ditu. *www.bergara.net/euskara* helbidean kontsulta daiteke orain.

> INTERNET
### Euskal Herriak Bere Eskola, kalitatezko hezkuntzaren alde

Euskal Herriak Bere Eskola taldeko kideek kalitatezko hezkuntza euskalduna jasotzeko eskubidea aldarrikatu zuten irailaren 11n. "Oztopo ekonomikoak, pedagogikoak eta eraikin mailakoak larriak dira. Jaurlaritza da erantzule nagusia, Europan hezkuntzara diru gutxien bideratzen duen administrazioa delako".

**UDALA** > AUZO ALKATEAK
## Ordezkari berriak aukeratu zituzten herriko auzoek

Udalak agintaldi berrirako auzo alkateak izendatu zituen irailean. Udalaren ordezkariak herriko auzoetan hauek dituzue: Mila Elortza Angiozarren, Jose Gabilondo (San Blas), Jesus Osa (Elorregi), Jesus Agirre (San Juan), Jesus Elortza (Ubera), Ainhoa Beristain (Elosu), Alez Alberdi (Aldai Egia auzoa), Luis Mari Alberdi (Osintxu) eta Gapar Ezenarro (Basalgo). Auzo izaerarik ez izan arren, Mekolalden Aiert Lizarralde izendatu zuten hango bizilagunen ordezkari izateko.

> JAIAK
### Ohorezko lau kide berri ditu Erreileno eta Tostoien Kofradiak

San Martin jaietan ohikoa denez, Erreileno eta Tostoien Kofradiak lau kide berri izendatu ditu aurten: Miguel Gonzalez Bastida bandako zuzendari ohiak, Zabala jatetxeak, Javier Retegi Industria sailburu ohiak eta Bergarako Udal Musika Bandak udaletxean jaso zuten izendapena.

BERGARAKO URTEAGA AUZOAN
247 Etxebizitza Auzo Berri baten
ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!



# URRIA



**"Jakiunderen eginkizuna Euskal Herrian dauden beharrak asetzea da"**

**Jabier Retegi** > Eusko Ikaskuntzako presidentea



**"Gurean trikitizaleak egon badaude, baina ez doaz erromerietara"**

**Miren Errasti** > Administraria eta trikitilaria

### hileko esaldia

**"Minbiziaz modu naturalean berba egin nahi dugu, drama barik"**

**Itziar Baltzategi** > Aspanovas elkarteko kidea

### hileko datua

# 200

Ohi denez, Elosuko Ganadu Feria ospatu zen joan den urriaren 12an. Aurtengoa feriaren 29. ekitaldia izan da, Elur Txiki elkarteak antolatuta. 200 bat ganadu buru batu ziren.


GOIENKARIA

## Kilometroak festa, erabat arrakastatsua

Erabat arrakastatsua gertatu zen urriaren 7an Bergaran ospatutako Kilometroak festa. Eguraldia lagun, jende uholdea etorri zen egun hartan Bergarara, goizean goizetik festaz gozatzera. Batik bat, zirkuituko guneetan pilatu zen jendea, eta asko eta asko izan ziren ibilbidea osorik egin zutenak. Goizeko ekitaldian Aranzadi ikastolak gurasoak omendu zituen eta Aranzadiren aurrekari izan zen ikastolan ibilitako Patxi Azkargorta ezagunak aipamen berezia jaso zuen. Bergarako emaitzarekin pozik azaldu ondoren, Aranzadik Irurako ikastolari pasa dio lekukoa.

**Euskarazko produktuen katalogoa**
Beste hainbat udalekin elkarlanean, euskarazko produktuen katalogoa argitaratu zuen Bergarako Udalak.

**Bergarako Udal Pilotalekua**
Aspek Astelena pilotalekua berreskuratu ondoren, goi mailako pilotarik gabe gelditu ginen Bergaran.

### izen propioak



**Jose Antonio Aperribai**
BILDUMAZALEA

Euskal Herriko landare bildumarik osoenetakoa dauka: 1.000tik gora ditu. 1978an ekin zion batzeari eta Aranzadi elkarteko kide da.



**Aitor Zabaleta**
AUTO GIDARIA

Urtebetez lehiatu barik egin ostean, Gorlako Auto Igoera irabazi zuen. Lola BMW autoa gidatuz, 2:29:53ko denbora egin zuen. Bi txandetan onena izan zen.



**Mari Karmen Gallastegi**
EKONOMIALARIA

Eusko Ikaskuntzaren Jakiunde akademian bi bergarar daude: Mari Karmen Gallastegi eta Jesus Mari Ugalde kimikari fisikaria.

KI
**Kalebarren instalazioak SM**
GABON ZORIONTSUAK GUZTIOI!
- Proiektuak
- Instalazioak eta mantenimendua
- Gasa
- Berogailua
- Aire girotua
- Iturgintza lanak

Aurrekotuak konpromesorik gabe

Bidekurutzeta 31 behea
Tel.: 943 76 11 67 BERGARA
E-mail.: kalebarren@inicia.es
Tel.: 943 75 23 07 SORALUZE
944 75 99 60 DEUSTO

**AITEC, S.L.**
ESTALDUREN KALITATE - KONTROLA
**Gabon zoriontsuak!**
• LABORATEGI INDUSTRIALEN EKIPAMENDUA
Harruriaga 12 behea • BERGARA • Tel.: 943 76 08 09 • Faxa: 943 76 43 19 • E-maila: aitec.alvaro@telefonica.net

**albiste izan zen**

> DEBAGOIENA

### Bidegorria 2010erako

Bergara-Urretxu bidegorria tartea egiteko lursailak erosi zizkion Aldundiak FEVEri. 2006.10.19

> EUSKAL HERRIA

### Batasunaren kontra Garzon

Baltasar Garzon epaileak Batasunako 23 kideren atxiloketa agindu zuen. 2006.10.04

> MUNDUA

### Senarraren bidetik

Cristina Fernandez Kirchner, Argentinako hauteskundeetan garaile. 2006.10.28



GOIENKARIA

## Zabalotegi aretoa egokitzeko lanak

Zabalotegiko aretoa egokitzeko lanak hasi zituzten urrian. Udaleko iturrien arabera, kultura mailan dagoen beharra hein batean beteko du Zabalotegik udatik aurrera. Behin lanak amaitutakoan 122 lagunendako tokia izango da Zabalotegiko aretoan, eta horietako bi eserleku ezinduendako izango dira. Goitu Eraikuntzak SL enpresak egingo ditu lanak eta aurrekontua 349.000 euro ingurukoa da. Lanak ekainerako amaitzea espero dute. Erabilerari dagokionez, kontzertu txikiak, antzerki emanaldiak eta zinema emanaldiak programatzea aurreikusten dute.

> HEZKUNTZA

### San Martin ikastetxekoak Lakuan izan ziren

San Martin ikastetxeko ordezkariek elkarretaratzea egin zuten urriaren 24an Lakuan. 70 lagun inguru izan ziren Gasteizen, *Eskola publikoaren beharra zure betebeharra* zioen pankarta erakutsiz. Ikasturte hasieratik zeukaten espazio falta salatzeko ekitaldiekin jarraitzen zuten.

> ERRETIRATUAK

### Erretiratuen Kultura Hamabostaldiaren 11. ekitaldia

*Adiskidetzea* lelopean, San Joxepe elkarteko erretiratuek Kultura Hamabostaldia ospatu dute aurten ere. Herri bazkaria eginda eman zioten amaiera, urriaren 27an. Zuzendaritzako kideak pozik azaldu ziren antolatutako ekitaldi ezberdinetan jasotako erantzunarekin.

> HEZKUNTZA

### Miguel Altunako bi ikasle, Mekatronika lehiaketan txapeldun

Sergio Outeriño eta Asier Gorriño, Miguel Altunako ikasleak, Mekatronikako World Strills nazioarteko lehiaketan txapeldun gertatu ziren. Errenteriako finala irabazi ondoren, Japoniara joateko bidaia eskuratu zuten. Alberto Bolinaga irakaslearekin joan ziren hara.

**GERTAKARIAK** > ERRESKATEA

## Oñatiko Gesaltza kobatik 18 ikasle erreskatatu zituzten

Naturarekin gozatzeko eguna izan behar zuena amesgaizto bihurtu zen Mariaren Lagundiko ikasle talde batendako. Urriaren 5ean, 18 ikasle eta Oñatiko Natur Eskolako bi monitore kobatik atera ezinik geratu ziren eguerdian, Arantzazu errekaren ur-goraldiaren erruz. Gipuzkoako Babes Zibilak emergentziazko operatiboa jarri zuen berehala martxan. Tirolinen laguntzaz, 17:30ak aldera lehen ikaslea ateratzea lortu zuten; 20:00etan atera zituzten azken ikaslea eta Natur Eskolako bi monitoreak.



Mariaren Lagundiko ikasle batzuk.

> ATXILOKETA

### Protesta ekitaldiak Antxon Sasiainen atxiloketa zela eta

Antxon Sasiain bergararra atxilotu zuten urriaren 16an, Bergaran. Jarraian Martuteneko espetxera eraman zuten, Auzitegi Gorenak ezarritako bost urteko espetxe zigorra bete zezan. Sasiainen atxiloketa dela eta, hainbat protesta ekitaldi egin zituzten Bergaran.

LAGUN GARAJEA
ad®
Tailer profesionala
Mekanika orokorra
ZORIONAK GUZTIOI!
Santalaitz 3. Bergara. Tel.: 943 76 11 20

itesa
Ondo pasau GABONETAN!
GRUPO ITESA
San Juan 7 • BERGARA • Tel.: 943 76 22 97

# AZAROA



**"Taldekideek oso ondo hartu naute; talde giro oso ona daukagu"**

**Ander Gartzia** > TAUko jokalaria



**"Atsegina da zure irudi batekin norbaitek barre egin duela entzutea"**

**Alex Ugalde** > Irudigilea

## hileko esaldia

**"Bizitza interpretatzeko gure moduak ezin du baldintzatu bizitza bera"**

**Juan Izuskiza** > Irakaslea

## hileko datua

# 175

Bergarako Udal Musika Bandak 175 urte bete ditu aurten. Urtean zehar egindako ospakizunen artean, zortzi abestiz osatutako diskoa eta DVDa aurkeztu zituzten Santa Zeziliako kontzertuan.

## Jauregi etxeko fatxada, berriz bistan

Ekainean hasitako berritze lanak amaitu ondoren, azaroa ezkero berriz dago bistan Jauregi etxeko fatxada. Egindako berritze lanek 260.000 euro inguruko aurrekontua izan dute eta Banco Guipuzcoanok ordaindu ditu. Erliebeko azken berritzea 1978koa zen.

Gasteizko Petra kooperatibak egin ditu berritze lanak eta Eudald Gillamet berritzaile ezaguna arduratu da aholkularitza teknikoaz. Berritze zientifikoa egin dute eta lantalde tekniko oso inportantea aritu da elkarlanean. Ikerketa historiko-artistikoaren emaitza urtarrilean ezagutuko da. 1500. urtearen ingurukoa da Jauregiko erliebea. Monumentu nazional izendapena du Jauregi etxeak.



GOIENKARIA

**Ziklo-krosa eta krosa**
Osintxuko ziklo-kros proba (hilaren 1ean) eta Soraluze-Bergara lasterketa (3an) arrakastatsuak izan ziren.

**Puntu Berde Mugikorraren 'hondarrak'**
Hainbat herritarren kexak izan ziren, Puntu Berde Mugikorra igaro eta gero han lagatako zaborragatik.

## izen propioak



**Juan Izuskiza**
IRAKASLEA

Juan Zelaia VII. saiakera saria irabazi zuen, *Paranoiaren hozberoa (Nintendoarena)* izenburuko lanari esker. 9.000 euroko saria eskuratu zuen.



**Bixente Pagaldai**
LANGILEA

Donostiako maratoiaren ekitaldi guztietan izan da. Aurten 3:46:59ko marka egin zuen . Roberto Zurro izan zen herriko onena (2:42:12).



**Ritxar De Goñi**
KIROLARIA

Antxintxika Triatloi Taldeko kidea bergarar onena izan zen azaroaren 11n jokatutako Behobia-Donostia proban. 1:13:20ko marka egin zuen.

YON BILBAO S.M.
Urte berri on!
• ERA GUZTIETAKO INSTALAZIOAK • BERO AKUMULADOREAK • KOMERTZIO ETA ETXEETARAKO MEGAFONIA
• ATEZAIN ELEKTRONIKO ETA BIDEO-ATEZAINAK • SEGURTASUN SISTEMAK • ARGIKUNTZAN ESPEZIALISTAK
ESPERIENTZIA LUZEA
Tailerra eta erakustokia: A. Fleming 11. Tel. eta faxa: 943 76 05 28 • Etxeko helbidea: Irizar 3. Telefonoa: 943 76 26 32

TORBER
ZORIONAK BERGARAR GUZTIOI!
Azkarruntz auzoa • 190 posta-kutxa • BERGARA (Gipuzkoa) • Tel.: 943 76 12 84 - 943 76 16 46 • Faxa: 943 76 10 41

ZORIONAK
ETA URTE BERRI ON!

Cafe Bergara

Bidekurutzeta 34 BERGARA
943 76 17 41





Montajes Eléctricos
GURELAN S.L.

Mantenimendu eta instalazio industrialak:

• Makinariaren berriztatzea.
• Automaten programazioa.
• etab...

Gabon jai zoriontsuak!

Amillaga 5 20570 Bergara
Tel.: 943 76 07 00 Faxa: 943 76 56 23

Gabon zoriontsuak
eta urte berri on
herritar guztioi!

eusko alkartasuna

Gazte Abertzaleak

www.euskoalkartasuna.org

Barrenkalea 18
BERGARA
Telefonoa eta faxa: 943 76 26 81

www.gazteabertzaleak.org

Mizpildi 8
943 76 12 32
BERGARA

Matxiategi 1
943 76 72 73
BERGARA





MIZPILDI
OKINDEGIA

Gabon jai
zoriontsuak guztioi!

## albiste izan zen

> DEBAGOIENA

### Autobidea, atzeratuta

AP-1 autobidea 2008ko bukaeran amaituko dute. Urtarrilean osorik zabaltzea aurreikusita zegoen. 2006.11.23

> EUSKAL HERRIA

### Springsteen, BECen

Bruce Springsteenek lehen kontzertua eman zuen Euskal Herrian. Udan Donostiara itzuliko da. 2006.11.26

> MUNDUA

### 'Por qué no te callas?'

Chavezen eta Juan Carlos I.aren arteko tira-birak zeresan ugari eman zuen. 2006.11.11



GOIENKARIA

# Ospakizun astea Mizpirualde egoitzan

Udazken partean ohikoa denez, ospakizun ekitaldiak izan zituzten azaroan Mizpirualde egoitzan. Aste barruan herriko hainbat talde eta elkarte joan zen bertara giroa alaitzera eta azaroaren 24an bazkaria izan zuten ospakizunei amaiera emateko. Egoiliarrekin batera, Antzuolako, Elgetako eta Bergarako udaletako ordezkariak eta erretiratuen elkarteetakoak izan ziren bazkarian. Mizpirualden 106 lagun bizi dira gaur egun eta hainbat lagun itxaron zerrendan daude. Egoiliarren batez besteko adina 82,2 urte da eta emakumeak dira nagusi (65).

> LEHIAKETA

### Eneritz Tiradosek irabazi zuen BEKEren kartel lehiaketa

Bergarako Emakumeen Kultura Elkarteak (BEKE) emakumeen aurkako indarkeria salatzeko kartel lehiaketa deitu du aurten ere. Eneritz Tirados arrasatearra izan zen irabazlea: 200 euro eskuratu zituen. Aratz Losada oñatiarraren lanak epaimahaiaren aipamen berezia jaso zuen.

> HEZKUNTZA

### Ikastetxeen espazioen gaineko ikerketa eskatu dute

EAE eta Aralar alderdiek azaroan onartutako mozioan hauxe jasotzen da: "Hezkuntza Sailak San Martin, Martinez Irala eta Errege Mintegian Aranzadi ikastolak erabiltzen dituen eta erabili ahal izango dituen espazioen inguruko azterketa teknikoa egingo du".

> TXIRRINDULARITZA

### Denboraldia agurtzeko ohiko afaria Elorregin

Herriko txirrinduzale talde batek denboraldia agurtu zuen azaroaren 9an Elorregiko Alkartasuna elkartean egindako afari batekin. Giro ezin hobean 41 lagun elkartu ziren; besteak beste, Mikel Astarloza, Patxi Vila, Juanma Garate eta Lander Aperribai profesionalak.

> GASTRONOMIA

### Sirimiriko bakailao-brandada, pintxorik onena

San Antonioko patata ferian jokatutako pintxo lehiaketan Sirimiri taberna nagusitu zen, Etxalar eta Ariznoaren aurretik. Sirimiriko Ana Laskurainek eta Inazio Larrañagak plaka oroigarria jaso zuten. Elkarteen arteko sukaldaritza lehiaketa Lasai Tokik irabazi zuen.



Agurne Barruso alkatea, Gure Ametsako ordezkariak eta saridunak.

> KOMUNIKAZIOA

### Txapa Irratia Interneten entzuteko aukera

Txapa Irratia Interneten entzuteko aukera dago denboraldi berri honetan. FMko 97.25 dialean entzun daitekeena orain sarean ere entzun ahal izango da. Egunean 24 orduz emititzen du Txapak eta gaur egun 26 irratsaiok osatzen dute programazioa: *txapairratia.org./entzun/htm.*

Gabon jai zoriontsuak igaro!
Fraiskozuri 7 Tel.: 943 76 41 16
Faxa: 943 76 93 77
"la Caixa"

iBARRALDE
Administrazio zerbitzuak SM
• Fiskalak
• Laboralak
• Kontableak eta juridikoak
• Finken administrazio zerbitzua
25.068 kolegiatu zenbakia
Ibargarai 30 BERGARA
Tel.: 943 76 52 88 - Faxa: 943 76 25 64
Zorionak eta urte berri on!


Zorionak eta
agorrosin ariznoa avenida azpeitxi
kaixo hamaika... irish pub galways Ira


urte berri on!
biko depor etxagi euxebio II kai
aho oilagorra tartufo usoa zumbeltz

# ABENDUA



**"Hau guztia borroka baten ondorioa da eta horrek indarra ematen dit"**

**Jose Luis Elkoro** > 18/98 sumarioan auzipetua



**"Urtean erosten ez duen jendeak Gabonetako Loteria erosten du"**

**Mari Karmen Heras** > Peñalbako loteria administraziokoa

## hileko esaldia

**"Gogorarazten jarraituko dugu errugabeak direla eta denon eskubideak urratu direla"**

**Maite Aristegi** > 18/98+ ekimena

## hileko datua

**455**

Udaleko Ongizate Zerbitzuak egindako azterketaren arabera, 70 urtetik gorako 455 lagun bakarrik bizi dira Bergaran. Emakumeak dira gehienak: 353. Gizonezkoak 102 dira.



GOIENKARIA

## Euskararekin konprometitutako sei enpresa

Bergarako Euskaltzaleon Bilguneak (Berba) euskara planak abian dituzten enpresak omendu zituen Euskararen Egunean, abenduaren 3an. Soraluce, GKN Lazpiur, Arcelor, Fit Automocion, Geyser Gastech eta Lazpiur enpresetako ordezkariek diploma oroigarri bana eskuratu zuten. Jende ugari elkartu zen Aroztegi aretoan egindako ekitaldian. Horrez gain, herritar ugarik bat egin zuten bat Euskararen Nazioarteko Egunaren inguruan antolatutako ekitaldiekin. Herriko ikastetxeetan ere ekintza ugari izan zituzten egun osoan.

**Odol emaileak**
Gaur egun 1.416 odol emaile ditu Bergarako elkarteak. 24 odol-ateratze egin dituzte urtean.

**Puntu Berde Iraunkorra**
Mankomunitateko PBI etortzen denean azoka inguruan lagatako zikinkeria salatu zuen herritar talde batek.

## izen propioak



**Anselmo Arrieta**
APAIZA

*Ganar la paz en Euskal Herria y en España* izenburuko liburua aurkeztu zuen abenduaren 11n udaletxeko osoko bilkuren aretoan.



**Ander Gartzia**
TAU-KO JOKALARIA

Urteko albiste kirol pozgarrienetakoa eman digu Ander Gartzia gazteak: 18 urterekin Euroligan debuta egin zuen Tau Ceramica taldearekin.



**Andoni Egaña**
BERTSOLARIA

Jardun euskara elkarteak antolatuta, *Ahozkotasunaz* izenburuko hitzaldia egin zuen abenduaren 18an. Jende asko batu zuen zarauztarrak.

Urte berrian, ez dakizula falta lortzeko ametsik,
garatzeko proiekturik,
ikasteko eta irakasteko zer eginik,
eta errespetuz jokatzeko kemenik

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!!

bergarako
aralar

www.aralar.net

Goienkaria

Egubakoitza / 2008ko abenduaren 28a / GOIENKARIAREN ARGITALPEN BEREZIA












# ANTZUOLA

## URTEARI BEGIRATUA 2007













ARGAZKIAK: GOIENKARIA



*Antzuolako Udalak jai zoriontsuak eta urte berri on opa dizkizue herritar guztioi!*

Antzuolako udala

www.antzuola.com

Goienkaria

Egubakoitza / 2007ko abenduaren 28a / GOIENKARIAREN ARGITALPEN BEREZIA









# ANTZUOLA

## URTEARI BEGIRATUA 2007







ARGAZKIAK: GOIENKARIA



*Antzuolako Udalak jai zoriontsuak eta urte berri on opa dizkizue herritar guztioi!*

Antzuolako udala

www.antzuola.com



MATZ-ERREKA

Berotan estanpaturiko
torlojugintza berezia
-
Plastiko eraldakuntza
injekzio bidez

Ate eta pertsianak
zabaltzeko automatismoak
----
Oinezkoentzako
ate automatikoak

ERREKA
Automatismoak
Ate automatikoak

Ibarreta z/g • 20577 ANTZUOLA
Tel.: + 34 943 78 60 09
Faxa: + 34 943 78 70 34
http://www.matz-erreka.com

MONDRAGON COMPONENTES

ESPEZIALISTA BATEN BERMEAREKIN

GOIZPER KOOP. ELK.

MATABI IHINZTAGAILUAK

- NEKAZARITZAN, LORATEGIAN, INDUSTRIAN ETA ETXEAN TRATAMENDUA EGITEKO IHINZTAGAILU ETA HAUTSEZTAGAILUAK.

GOIZPER TRANSMISIOAK

- ENBRAGEAK, BALAZTAK
  - PNEUMATIKOAK
  - HIDRAULIKOAK
  - MEKANIKOAK
  - ELEKTROMAGNETIKOAK
- ESPEKADUN ETENKAKO BIRAGAILUAK
- ESPEKA BEREZIAK

ANTIGUA 4 - 20577 ANTZUOLA (Gipuzkoa)
211 POSTA KUTXATILA - 20570 BERGARA
TEL.: 943 78 60 00
FAXA: 943 76 60 08 - 943 78 70 95
E-MAILA: goizper@goizper.com
Webgunea: www.goizper.com



# URTARRILA



**"EAJ-EA koalizioak aurkeztutako programan batutako proiektu eta asmo ia guztiak bete ditugu"**

**Jose Angel Zabalo** > Antzuolako alkatea

**ERREPIDEAK** > UDALAREN ALEGAZIOA ONARTU ZUTEN

## Bidegurutze berria egiteko proiektua onartu zuten

Herrirako sarrera berriaren proiektua onartu zuen Diputazioak. Uzarragarako eta Kalebarrengo zubiak zabaltzea ere jasotzen zuen proiektuak.

Bidegurutze horretan, proiektuaren arabera, hainbat azelerazio eta dezelerazio bide egingo dituzte.

Beheko auzoko orain arteko bidegurutzea desagertzea ekarriko du bidegurutze berriak. Hala ere, Zumarraga aldetik datozen ibilgailuek aukera izango dute herrira sartzeko; bestalde, eta Udalak halaxe eskatu zuelako, Bergara aldera irteteko aukera ere egongo da.

> TXIRRINDULARITZA

### Zikloturista taldea sortu zuten, eta kamisetak atera

Urte berriarekin batera, zikloturista talde berria sortu zuten herrian. Domeka goizero elkartzen dira eta inguruko errepideetan ibiltzen dira. Hasieran, hamar edo hamabost laguneko taldetxoa osatu zuten irteerak egiteko. Azaldu zigutenez, gainera, Antzuola izenarekin elastikoa ateratzeko asmoa ere bazuten taldekideek.



Txirrindulari taldea Altzarte aurrean.

# OTSAILA



**"Euskaraz jolastuta, harremanak euskaraz sortuko dituzte"**

**Maite Asensio** > Urtxintxa aisialdi eskolako hezitzailea



**"Gehienek uste dute alardeak aldaketak behar dituela"**

**Margaret Büllen** > Eusko Ikaskuntzako kidea

**HIRIGINTZA** > INTERPRETAZIO ZENTROA ERE EGINGO DUTE

## Telleria etxea botatzen hasi ziren etxebizitzak egiteko

Otsail hasieran ekin zioten Telleria etxea botatzeari. Eraikina eraitsi zuten, berria jasotzeko. Udaleko arduradunek azaldu zigutenez, hamar etxebizitza egiten hastekoa zen enpresa bat. Eraikin berria lehengoaren oso antzerakoa izango da; izan ere, 2002an onartutako eraikuntza irizpideekin bat etorri behar du.

**INTERPRETAZIO ZENTROA**

Udalak bere asmoa ere azaldu zigun: etxebizitzez gain, Udalak larrugintzaren interpretazio zentroa egiteko asmoa zuela beheko solairuan.

> HAUTESKUNDEAK

### 'Orain Antzuolan ezker abertzalea' ekitaldia egin zuten

Herriko ezker abertzaleak *Orain Antzuolan ezker abertzalea* ekitaldia egin zuen, herritar askoren babesarekin. Jakinarazi zuten herriko beharrei begira eta programa bat Udalera eramateko asmoarekin lanean zebiltzala. Udal parte hartzaile baten eta indarrak batzeko beharra azpimarratu zuten.

> LAPURRETAK

### Lapurtzen saiatu ziren asteburu baten herriko bi enpresatan

Otsailaren 17an eta 18an herriko bi enpresatan saiatu ziren lapurtzen. Zapatu gauean Oerlikon Balzers Elay enpresan sartu ziren eta alarma sistema guztiz apurtu zuten, baina, ez zuten ezertxo ere eraman. Domeka gauean, bestalde, Eroski Cityn sartzen saiatu ziren; telefono linea moztu zuten, eta bizilagunak zerbitzu barik egon ziren.

> AISIALDIA

### Txatxilipurdik Gaztegunea kudeatzen jarraitzea erabaki zen

Udalak erabaki zuen Txatxilipurdirekin beste urtebeterako sinatzea hitzarmena, Gaztegunea kudeatzeko. Erabaki hori hartu zuen udalbatzarrak ikusita urtebetean lan egokia egin zuen aisialdi enpresa horrek.

Gazteguneko arduradunek jakinarazi zigutenez, urte hasieran 45 neska-mutiko eta hiru begirale zeuden.

> SUTEA

### Uzarraga auzoan sutea sortu zen, haizeak pinu bat bota eta gero

Haize bortitza ibili zen otsailaren 16an; haizeak pinu bat argindar kableen gainera bota eta sutea sortu zen. Uzarraga auzoan gertatu zen hori, Bidaurre baserriaren inguruetan. Basozainak, suhiltzaileek eta auzotarrek gauera arte jardun zuten lanean eta sua itzaltzea lortu zuten. Argi mozketak ere izan ziren Antzuolan eta Bergaran.

PSIKOLOGOA eta PSIKOTERAPEUTA
ENARA AGIRRE
Olaran Etxea 3, A10
ANTZUOLA
670 45 19 62
enaraagirre@hotmail.com
Zorionak eta urte berri on!



EAJ PNV
ANTZUOLAKO URI BURU BATZAR ETA ALDERDIKIDEEN IZENEAN
GABON ETA URTE BERRI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU HERRITAR GUZTIOI
Jose Antonio Agirrek, gudariei emundako mezu bat:
*"Ludi guztiko errijak gure begira dagoz. Gure erri zarra izango da antziñan legez diña zintzua ta gogorra".*

Nerea
opariak • lentzeria • drogeria
*Zorionak antzuolar guztioi!*
659 57 50 97
Kalebarren 13 ANTZUOLA

# MARTXOA



**"Osasun etxeak ez ditu bermatzen herritarron hizkuntza eskubideak"**

**Oier Peñagarikano** > Euskal Herrian Euskaraz-eko kidea



**"Ez dut abiadura maite, nahiago dut gauzak lasai egin"**

**Jone Lete** > Irakaslea

**PROIEKTUAK** > AURKEZPENA

## Diputazioko agintariak Antzuolan izan genituen

Gipuzkoako Foru Aldundiko hainbat agintari izan genituen herrian martxoan; Udalarekin elkarlanean egindako proiektuen eta esku artean zituzten proiektuen berri eman zuten agerraldi hartan. Gonzalez Txabarri diputatu nagusiarekin batera egon ziren Esther Larrañaga, Gizarte Politikarako diputatua, eta Javier Zuriarrain, Bide Azpiegituretarako diputatua.

Besteak beste, errepideekin lotutako albistea ekarri zuten herrira; hantxe aurkeztu zuten Sagasti parean biribilgunea egiteko aurreproiektua.



Diputazioko agintariak Olaran etxean egindako agerraldian.

> KIROLA

### Eskolarteko Mendi Martxa egin zuten Antzuolan

Arrola Mendizale Elkarteak antolatuta, Eskolarteko XX. Mendi Martxa egin zuten Antzuolan, Debagoieneko eta Debabarreneko 600 bat neskamutikok. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako Mendi Federazioaren laguntzarekin antolatzen da ekimen hori, eta iaz Bergaran egin zuten.

> HAURRESKOLA

### Bosgarren hezitzailea hasi zen Haurreskolan

Antzuolako Haurreskolan bosgarren hezitzailea hasi zen lanean martxoan. Hain zuzen, Alaitz Jauregi antzuolarra izan zen kontratatu zuten bosgarrena. 2005eko urtarrilean zabaldu zuten Haurreskola, bi hezitzaile eta bost umerekin. Martxorako 18 ume zeuden eta, esan bezala, bost hezitzaile.

# APIRILA



**"Aloñarako igoeran egindako lanarekin gustura nago; espero nuena baino hobeto ibili naiz"**

**Julen Garitano** > Korrikalaria. Hirugarren izan zen Aloñako igoeran

**UDALA** > AURREKONTUAK

## Ia 8 milioi euroko aurrekontu bateratua onartu zuen Udalak

Udalaren eta Antzuola Udal Etxegintzaren aurrekontu bateratua onartu zuten 2007. urterako: 7.968.859 euro, hain zuzen ere. 5.855.306 euro inbertsioen atalean jaso zituzten.

Udalarendako onartutako aurrekontua izan zen 2.668.806 euro eta Antzuola Udal Etxegintzarena 5.913.578 euro. 2006koarekin alderatuta, aurrekontu handia izan du Udalak; iazkoa, bateratua, izan zen 4.585.283 euro.

Inbertsio handienak bideratu zituzten Eguzki auzoko eraikina egiteko eta kultura eta gizarte etxea egiteko.

> PARROKIA

### Parrokia eraberritzeko hitzarmena sinatu zuten Diputazioarekin

Errukizko Amaren parrokia eraberritzeko hitzarmena sinatu zuten, Olaran etxean egindako agerraldian, Rafael Eizagirre parrokoak eta Joxe Joan Gonzalez Txabarri ahaldun nagusiak. Hitzarmen horren arabera, Diputazioak konpromisoa hartu zuen 700.000 euroko laguntza emateko. Bestalde, apirilean, proiektuaren aurkezpena ere egin zuten.



Parrokoa hitzarmena sinatzen.

SUKALDERAKO ALTZARIAK
Harizki
Zorionak eta urte berri on!
MOTA GUZTIETAKO
SUKALDEEN PROIEKTUAK
ETA INSTALAZIOAK
Espezialitatea: Haritzezko sukalde errustikoak
ERAKUSKETA: Zurrategi 4, behea. Tel.: 943 78 71 80 Faxa: 943 78 60 24 e posta: *harizki@harizki.com*

zabalo
IGELTSEROTZA S.L.
*Ondo pasau Gabonak!*
**ZAHARBERRITZEAK:** Fatxadak • Bainugela eta sukaldea • Lokal komertzialak • Teilatuak
Kalegoi 9 -1 • ANTZUOLA
Tel./ Faxa: 943 76 60 89 • Sakelekoak: 615 76 56 50 / 615 76 56 51
E-posta: *joseluis@zabaloazcarate.e.telefonica.net*

# MAIATZA



**"Txirrindularitzan, nire helburua da ondo pasatzea eta kirola egitea; ez dut gehiegi pentsatzen etorkizunean"**

**Xabier Arantzeta** > Txirrindularia

**ALARDEA** > EUSKAL HERRIKO ALARDEEN MINTEGIA

## Euskal Herriko zazpi alardek hartu zuen parte mintegian

Mairuaren Alardearen Elkartearen ekimenez, Euskal Herriko Alardeen gaineko mintegia antolatu zuten Antzuolan maiatzean. Maiatzaren 3tik 6ra ospatu zuten mintegi hori.

Hainbat hitzaldi, mahai-inguru eta tailer antolatu zituzten maiatzeko lehendabiziko asteburu hartarako. Ekitaldi ikusgarrienak, baina, domekan izan genituen. Egun hartan, Euskal Herriko zazpi alarde izan genituen herrian. Arratsaldean, Antzuola, Markinez, Elorrio eta Irun eta Hondarribiko alarde mistoek erakustaldia egin zuten Zurrategin.

> HAUTESKUNDEAK

### EAE-ANVk irabazi zuen eta EAJk beherakada nabarmena izan zuen

Botoen %40,12 eskuratuta, EAE-ANV alderdiak irabazi zituen maiatzaren 27ko udal hauteskundeak. EAJ alderdiak beherakada nabarmena izan zuen; botoen %28,66 lortu zituen. Zutik-Ezker Batua-Aralar alderdia izan zen hirugarren bozkatuena botoen %16,89rekin. PSE-EEk %11,31 lortu zituen eta PP alderdiak, azkenik, %1.

> UDALA

### Udalak 2003-2007 agintaldiko memoria banatu zuen etxerik etxe

Agintaldi honen memoria, 2003-2007 izeneko aldizkari edo liburuxka banatu zuen Udalak etxerik etxe. Liburuxka horretan jaso zuten Udalak lau urte horietan egindakoa, batzordez batzorde. Hauteskundeetara aurkeztu ziren beste alderdi batzuen kritikak jaso zituen EAJ alderdiak, memoria hori hauteskunde garaian banatzeagatik.

# EKAINA



**"Herriak esan du zein den gai eta zein ez Udalaz arduratzeko"**

**Pedro Iturbe** > EAE-ANVko alkategaia



**"Ez dakit EAE-ANV gai izango den Udala aurrera eramateko"**

**Basili Ormazabal** > EAJ-PNVko alkategaia

**UDALA** > DIRULAGUNTZAK

## Parrokiari 25 urtean zehar 150.000 euro emango diote

Maiatzaren 23ko osoko bilkuran, udalbatzak erabaki zuen Errukizko Amaren parrokiari 150.000 euroko dirulaguntza ematea 25 urtean zehar. Gutxi gorabehera, urtero 6.000 euro emango ditu Udalak. Erabaki hori hartu zuten, kontuan hartuta ondare artistikoa duen eraikin garrantzitsua dela Errukizko Amaren parrokia.

Parrokiari Udalak bideratuko diona da Isidro Legorburu fundazioaren eskutik urtero jasotzen duen dirua.

Parrokiako arduradunek aurreratu zuten udan hasiko zituztela berrikuntza lanak.



Egoera txarrean dago eraikina, bai kanpoko aldetik, bai barruko aldetik.

> AURKEZPENA

### 'Ura Antzuolan' liburua aurkeztu zuten ekainean

Iñigo Ramirez de Okariz historiagileak eta Valen Moñux udal aparejadoreak egin zuten *Ura Antzuolan* liburua. Horrekin batera, gai berberaren gaineko erakusketa ere jarri zuten. Antzuolak urarekin izan duen harremana aztertzen dute liburuan: uholdeak, jarduera ekonomikoa, kontsumoa eta abar.

> UDALBATZA

### Udalbatza berria eratu zuten ekainaren 16an

Ekainaren 16an, zapatua, udalbatza berria eratzeko osoko bilkura egin zuten. Aukeratutako hamaika zinegotziek euren kargua hartu zuten osoko bilkuran eta alkatea aukeratzeko bozketa egin zuten. Lasaitasunez joan zen batzarra eta ez zen ezustekorik izan: Pedro Iturbe izendatu zuten alkate.

Ondo pasau Gabonak!



Gabilondo-Arregi

harategia

ABELGORRI-OKELAREN EUSKO LABELA

Kalebarren 14 ANTZUOLA Tel.: 943 76 62 90

Zorionak guztioi!



ILAIA

Ile apaindegia • Estetika

Kalegoi 20 behea ANTZUOLA Tel.: 943 76 63 33

# UZTAILA



**"Denborak esango du Elgetako txapelak zenbat balio duen"**

**Aitor Mendizabal** > Pilotaria



**"Goierrikoei kosta egiten zaie Antzuolako euskara ulertzea"**

**Isabel Elortza** > Zerainen bizi den antzuolarra

**HIRIGINTZA** > BEHEKO AUZOA

## Plaza gorria eraberritzeko asmoa azaldu zuen Udalak

Beheko auzoko plaza gorria eta garajeak eraberritzeko asmoa azaldu zuen Udalak. Proiektu zehatzik prestatzeke zuten, baina aurrekontua erabakita: 40.000 euro. Lanen helburua izango litzateke plaza gorriaren azpiko aldean dauden garajeetako itoginak konpontzea eta plaza gorriaren zoladura eraberritzea. 60.000 euroko diru-partida zegoen aurrez ikusita lan horietarako. Aurrekontua 40.000 euro denez, iragarri zuten hor geratzen den diruarekin umeendako jolasleku berria egiteko aukera aztertzen zebiltzala.

> UDALA

### Antzuolako Udal Etxegintzaren kontseilua berrituta

Osoko bilkuran berritu zuten Antzuolako Udal Etxegintzaren administrazio kontseilua. Hantxe erabaki zuten alderdi guztiek izango zutela ordekaritza kontseilu horretan. Honakoak dira kideak, udalbatzaren erabakiz: Pedro Iturbe, Mamen Jauregi, Jose Mari Iturbe, Joxi Beltran eta Paco Morcillo.

> EUSKARA

### 'Antzuolarrak berbetan' webgunea estreinatu zuten

Badihardugu elkartearen eta Antzuolako Udalaren ekimenez, herriko hizkera eta ahozko ondarea jasotzen duen proiektua aurrera eraman zuten eta ekainean aurkeztu zituzten emaitzak. Uztailean, bestalde, 37 bat herritarren jarduna entzuteko eta ikusteko aukera eskaintzen duen webgunea estreinatu zuten.




Antzuolako webgunean (*www.antzuola.com*) daude grabazioak.

# ABUZTUA



**"Herritarrei barkamena eskatu nahi nieke Udalaren izenean, argi faltak eragin dituen eragozpenengatik"**

**Pedro Iturbe** > Alkatea

**HIRIGINTZA** > ARGITERIA ARAZOAK

## Argi barik egon ziren hainbat kaletan abuztuan zehar

Abuztuko oporraldiak eman zigun berririk azpimarragarriena izan zen hainbat arazo sortu zirela kaleko argiteriarekin. Beheko auzoan eta Zurrategin sortu ziren arazook abuztu osoan zehar. Beheko auzoan astebete inguru egon ziren ilunpean, kaleko argirik gabe. Zurrategin ere hainbat egunetan izan zuten arazo hori. Udaleko arduradunek aztertzen jardun zuten, baina abuztua izanda, arazoa are eta zailagoa izan zen konpontzeko.

Behin-behineko irtenbidea eman zioten argiteriaren arazoari eta irailerako bazegoen kaletan argia.

> FRONTENISA

### Idiakezek eta Sanchezek irabazi zuten txapelketa

Aurten antolatu dute lehen aldiz hrriko frontenis txapelketa. Uztail bukaeran jokatu zuten finala eta Mikel Idiakez *Ezkio*-k eta Sergio Sanchez *Txurro*-k irabazi zuten. 40-33 irabazi zieten Rodriguez eta Arantzetari. Guztira, 13 bikotek parte hartu zuten, eta aurrerantzean txapelketa hori antolatzen jarraitzeko asmoa erakutsi zuten.



Sanchez eta Idiakez, frontoian.

Ana Etxeberria
• Akupuntura
• Masajea
• Osteopatia
Gabon zoriontsuak izan ditzazuela!
Errekalde 6 behea ANTZUOLA
Tel.: 943 76 60 13

ANTZUOLA
- APAINKETAK eta ISOLAMENDUAK
- PLADURREZKO DIBISIOAK
Kalegoi 21 ANTZUOLA
Biltegia: 943 78 70 40
Mobila: 676 99 74 00
ONDO PASAU GABONETAN!

# IRAILA



**"Iraileko sindromeari aurre egiteko oporrik gabe geratu denik ez dut ezagutzen oraindik"**

**Joseba Lezeta** > Iritzi kolaboratzailea

**ZIRKULAZIOA** > ALDE ZAHARRA

## Alde zaharra automobilendako asteburuetan ixteko erabakia

Irailaren 15ean hasi ziren alde zaharra asteburuetan automobilendako ixten.

Kalebarrengo zubiko bidegurutzean hasi eta Buztinzuriraino, Herriko Plaza parean, egoten da itxita, ordutik hona. Zapatu eguerdian ixten dute kalea eta astelehen goizean zabaltzen dute.

Irailean bertan, Hirigintza batzordeak erabaki zuen alde zaharra ixteko semaforoa eta pibote elektrikoak jartzea. Udaleko arduradunek orduan aurreratu zuten espero zutela sistema berri hori martxan jartzea urtea amaitu aurretik. Lanen aurrekontua da 30.000 euro.

> AIHERRA-ANTZUOLA

### Senidetze Eguna ospatu zuten irailaren 16an Antzuolan

Antzuolan ospatu dute aurtengo senidetze eguna Aiherrak eta Antzuolak. 40 bat lagun etorri ziren Aiherratik eta Leintz Gatzagako Gatz Museoa bisitatu eta gero, bazkaria egin zuten Herriko Plazan; 120 bat antzuolarrek ere parte hartu zuten bazkarian. Bi urte barru beteko da senidetzearen 25. urteurrena eta zerbait berezia antolatu nahi dute.

> HIRIGINTZA

### Kalebarrengo zubia zabaltzeko lanak hasi zituzten irailean

Irailaren 25ean hasi zituzten Kalebarrengo zubia zabaltzeko lanak. Saihesbideko bidegurutzearen lanekin lotuta daude lanok; izan ere, bidegurutzea bukatzen dutenean, Bergara aldetik datozen automobilek sartu beharko dute herrira Uzarragako zubitik eta Kalebarrenera aterako dira. Ibilgailu asko ibiliko denez, zubia zabaldu beharra dago.

# URRIA



**"Sare sozialak dira sentimendu kolektiboen oinarria"**

**Ainhoa Ugarteburu** > Iritzi kolaboratzailea



**"Bake prozesua ia hilik ikusten dugu, barne sentimenduak ahul"**

**Fernando Lete** > Iritzi kolaboratzailea

**ELKARTASUNA** > ANELKAR

## Afrikara eta Amerikara 27.000 euro bidali zituzten

Hamar bat urte daramatza Anelkarrek lanean; ordutik hona diru asko batu eta hainbat herrialdetara bideratu dute, hango proiektuak laguntzeko. 81.730 euro, hain zuzen ere, bidali dituzte urte hauetan guztietan. Aurten, beste 27.000 euro bidali dituzte, urrian, hain zuzen ere. Kongora, Senegalera eta Brasilera bidali zituzten, 7.000na euro. 3.000na euro, bestalde, Uruguai eta Ekuadorreko proiektuak laguntzeko bideratu zituzten.

Udazkeneko elkartasun festan 1.780 euro batu zituen Anelkar taldeak.



Kongoko Kansenya herrian ura bideratzeko proiektua lagundu du Anelkarrek.

> ERRETIRATUAK

### Kultura Astea ospatu zuten urrian herriko erretiratuek

Urriaren 16tik 19ra, II. Kultura Astea ospatu zuen Erretiratuen Elkarteak. Iaz antolatu zuten lehen aldiz; ordura arte Bergarako San Joxepekoekin batera antolatzen zuten. Askotariko ekitaldiak izan zituzten egun haietan: hitzaldiak, meriendak, kina jokoa, Errioxara irteera eta antzerki emanaldia.

> UDALA

### Udalbatzak 2008rako zergak eta tasak onartu zituen

Urri bukaeran ezohiko osoko bilkura egin zuten, 2008ko zergak eta tasak onartzeko. Batez beste, %2,6ko igoera izango dute. Onartu zituzten igoeren artean, zaborraren tasarena izan zen aipagarriena; %13,9ko igoera izango du. Herritarrek ordaindu beharko dute 18 bat euro hiru hilabetean behin.

HARATEGIAK

Juan Joxe Agirre
Kalebarren, 1. ANTZUOLA.
943 76 64 84

Gabon zoriontsuak eta urte berri on opa dizkizuegu herritar guztioi!

Mari Kruz Iparragirre
Komenio kalea, 2. BERGARA.
943 76 10 72

DEKORAZIOA ABAD PINTURAK ANTZUOLA PAPER PINTATUAK
INDUSTRI MANTENIMENDUA

Jose Gomez Abad
Errekalde 6, 4-B. Antzuola
Tel.: 943 76 60 19 / 943 76 60 43
Faxa: 943 76 60 19

GABON ZORIONTSUAK HERRITAR GUZTIOI!

OKINDEGIA
GOXOTEGIA
DAZTAKETA
KROISSANTEGIA

ONDO PASAU GABONETAN!

ALTZARTE
Kalebarren 18 943 76 62 94
ANTZUOLA

# AZAROA



**"Badatoz pilotari berriak, eta lekua egin behar zaie"**

**Aitor Elkoro** > Pilotaria



**"Urtean lau bat ekintza, behintzat, antolatu nahi ditugu"**

**Gotzon Del Teso** > Antzuolako Motor Taldeko kidea

**UDALA** > OLANOREN BISITA

## Markel Olano ahaldun nagusia bisitan izan zen

Azaroaren 29an Antzuolan egon zen Markel Olano Gipuzkoako ahaldun nagusia. Pedro Iturbe alkatearekin, Mamen Jauregi Gizarte Ongizateko batzordeko arduradunarekin, Valen Moñux aparejadorearekin eta Juanlu Aranburu Kirol eta Gazteria batzordeko teknikariarekin elkartu zen diputatua. Herriko proiektuen berri eman zioten Olanori, eta hainbat eskaera egin. Olanok adierazi zuen pozgarria dela ikustea agintariek esku artean proiektu sendoak dituztela. Alkatea ere pozik azaldu zen egindako batzarrarekin.



Markel Olano, Pedro Iturbe eta Mamen Jauregi, Herriko Plazan.

> AHT

### AHT Gelditu! Elkarlana taldea osatu zuten herrian

Azaroan egin zuen lehen batzarra herriko AH T Gelditu! Elkarlana taldeak. Hogei lagunetik gora elkartu ziren; taldeko kideek adierazi zuten martitzenero batzarra egiteko asmoa zutela. Euren helburua da AHTren proiektua geldiaraztea, "benetako eztabaida eta herritarren partehartzea bultzatzeko".

> ESKOLA

### Pausoka gurasoen elkarteak berritu egin zuen batzordea

Azaroaren 12an egin zuen Pausokak urteko batzar orokorra. Hantxe zuzendaritza batzordea berritu zuten. Paco Cabrera da lehendakari berria. Sei kide berri sartu dira batzordean: Aitor Elkoro, Nekane Berasategi, Josu Errasti, Arrate Aranguren, Iñaki Askasibar eta Igor Labaien.

# ABENDUA



**"Gaztetxea biziberritu egin nahi dugu eta helburu horri begira dihardugu lanean Antzuolako Gazte Asanbladan"**

**Itsaso Azkargorta** > AGAko kidea

**ALARDEA** > EUSKO IKASKUNTZAREN IKERKETA

## Alardearen ikerketaren emaitzak aurkeztu zituzten

Antzuolako Udalaren eta Mairuaren Alardearen Elkartearen ekimenez, Eusko Ikaskuntzak alardearen gaineko azterketa egin zuen.

Abenduan aurkeztu zizkiete ikerketaren emaitzak Eusko Ikaskuntzako arduradunek Udaleko eta Mairuaren Alardearen Elkarteko ordezkariei. Eta urtarrilean jendaurreko aurkezpena egitekotan geratu ziren.

Herritarrek esandakoa eta alderdi historikoa oinarri hartuta, Eusko Ikaskuntzak proposatzen du hainbat aldaketa txiki egitea, batez ere mairuaren irudia duintzeko.



Mairua asto gainean, alardean.



Zabalo Iturgintza S.L.
Ondo ibili Gabonetan!
•Gasa
•Berogailuak
•Haire egokitua
•Enpresen mantenimendua
•Lurrun instalazioak
•Bero-aurreztea
•Bainugelak. Proiektuak momentuan DIBAren bidez
•Birgaitze-espedienteak bideratzen ditugu
**Tailerra:** Uzarraga bidea, 10. Antzuola. Tel. / Faxa: 943 78 71 78
**Erakusketa:** Kalebarren, 1. Antzuola. , Tel. / Faxa: 943 76 64 73



Aixa
frutategia
Gabon zoriontsuak guztioi!
Bustinzuri 6 behea - Antzuola
Tel.: **943 78 62 69**

martin okindegia
Lan gela: Kalebarren 4
Saltokia: Herriko plaza
943 76 64 35
ANTZUOLA
Urte berri on antzuolar guztioi!

BOLU SUKALDEAK





Gremioen koordinazioa

Aurrekontua
konpromiso barik.



Bolu 22 BERGARA Tel./ Faxa: 943 76 27 02
bolusukaldeak@euskalnet.net • www.euskalnet.net/bolusukaldeak

ELKAR
ELEKTRAGINTZA

ZURE ZERBITZURA!!

Mota guztietako instalazioak




943 76 00 00
Koldo Eleizalde 8
BERGARA

# ONENA eta TXARRENA

Urtearen hondarrean gaude, eta balantzea egiteko ordua da. Bergarako, Antzuolako eta Elgetako hainbat herritar ezaguni iritzia eskatu diegu: Zein da aurtengo gertaerarik onena eta txarrena, zure ustez? Denetarik erantzun digute. Hona hemen jasotakoak, labur-labur.



**NEREA LAZPIUR**
Ingurumen teknikaria
Bergara

**↑ INGURUMENA**
Positibotzat joko nuke munduan iraunkortasun eta klima aldaketak kontzientziazioari dagokionez eman duen aurrerapausoa. Orain nekezena gelditzen zaigu: ekintzak gauzatzea.

**↓ SU-ETENA AMAITZEA**
Asko badaude ere, ETAren su-etenaren amaiera aukeratuko nuke. Gure seme-alabak beste egoera sozio-politiko batean haziko ziren esperantza nuen, baina haiek ere zama hori izango dute.



**ANARTZ AGIRRE**
kazetaria
Bergara

**↑ KILOMETROAK 07**
Orokorrean, urte txarra izan dela iruditzen zait, baina, tira, zerbait ona esatekotan, herri mailan sortzen diren ekintzen parte-hartzea goraipatuko nuke; Kilometroetakoa, adibidez.

**↓ 18/98 ETA AHT**
ETAren su-etenaren amaiera dela-eta, bake prozesua bertan behera geratu izana, 18/98 epaiketaren nondik norakoak eta AHTren proiektua dagoeneko martxan dagoela.



**IÑIGO ALMORTZA**
Errekortadoreen ordezkaria
Bergara

**↑ ERREKORTADORE ESKOLA**
Aurten abian ipini dugun errekortadore eskola ibiltariak sekulako arrakasta izan du egon garen herri guztietan. Gazte asko animatu dira zezen aurrean modu egokian nola ibili ikastera.

**↓ ZEZEN IKUSKIZUNEN LEGEA**
Eusko Jaurlaritzak zezen ikuskizunen gaineko lege proiektua aurrera ateraz gero, sokamuturrak, umeendako zezen ikuskizunak... desagertuko dira. Baldintzak eta kostuak oztopo dira.



**ITXASO MENDIZABAL**
Jardun euskara elkartekoa
Bergara

**↑ UDAL ALDAKETA**
Herri mailan, horrenbeste urtean egon den Udala aldatzea positiboa izan da. Urte askoan berdinak egon dira; eta, orain, Udal berriarekin itxaropena piztu dela uste dut.

**↓ ESPAINIAKO GOBERNUA**
Espainiako Gobernuak herri mugimenduen gainean izan duen politika. Herriaren alde lan egin duten norbanakoak eta taldeak kartzelaratu dituzte, eta herriaren eskubideak zapaldu.



**JUAN LUIS BIKUÑA**
Kazetaria
Bergara

**↑ GAS ISURKETAK MURRIZTEA**
Balin, Nazio Batuen Erakundeak klima aldaketari buruz egin duen konferentzian, gas isurketak mugatzeko hartutako akordioa, ekologiari dagokionez, neurri pozgarria da.

**↓ SU-ETENA APURTZEA**
ETAk su-etena apurtzea albiste txarra izan da, itxaropena zegoen unean. Bestalde, EAE-ANV legez kanporatzea berri txarra litzateke, eta Espainiako Gobernua bide horretatik doa.



**MARIJE UGALDE**
Musika Eskolako zuzendaria
Bergara

**↑ DIRULAGUNTZAK**
Musika Eskolako kide moduan, oso pozik nago, Eusko Jaurlaritzatik jasotzen dugun dirulaguntza kopurua handiagoa izan da-eta. Hortaz, agindu ziguten igoera jasoko dugu.

**↓ SU-ETENAREN BUKAERA**
Nire seme-alabak bakean biziko zirela uste nuenean, su-etena bertan behera geratu zen. Albiste oso txarra dela uste dut, eta, oraingoz, etorkizun beltza ikusten diot arazo honi.



**MANU DIAZ**
BKEko futbol entrenatzailea
Bergara

**↑ INGURUMENA ZAINDU**
Ikusi dut, azkeneko hilabeteotan, ingurumena zaindu beharraz kontzientziatu garela. Talde asko dabiltza gai honekin lanean, eta, etorkizunari begira, oso garrantzitsua da.

**↓ BAKE PROZESUA, GALDUTA**
Nik esperantza handia nuen ETAk aldarrikatutako su-etenaren inguruan; bada, zoritxarrez, dena apurtu egin da. Halaber, ez dut irtenbide bat topatzeko borondaterik ikusten.

Fruteria Cruz Hnos Fruitategia
Zorionak
eta urte berri on!
Ibargarai 11 • tel.: 943 76 28 92
Barrenkale 19 • tel.: 943 76 70 03

OROILORE
Funeraria-Tanatorio
Hileta eta Beilatoki zerbitzuak

# Hileta zerbitzu eta beilatoki berria

*Momentu txar horietan sortzen diren galdera, kezka eta arazo guztiei aurre egiteko zuei laguntzeko ireki berria da.*

- *Zerbitzu etengabea 365 egunean*
- *Behar bagaituzue aski duzue dei bat, laster joango gara zuekin egoteko: etxera, ospitalera…*
- *Erantzun azkarra, tratu pertsonala*
- *Eskelak: egunkari, irrati eta paperetan*
- *Aukera lore apainketan: koroak, erramuak eta zentroak*
- *Bete beharreko tramiteak*
- *Gorpua prestatu eta dotore ipini*
- *Zerraldo aukera, denetariko prezioak*
- *Oroilore beilatokiak hiru gela ditu, beila egiteko*






OROILORE



Amillaga 27, BERGARA
Tel.: 617 44 21 55 - 943 76 94 73 / Faxa: 943 76 94 76
***Zerbitzua Debagoiena osorako***


UDAL
EUSKALTEGIA
Euskararentzat
bidea ez da
erraza eta leuna;
hala eta guztiz
argituko da noizbait
bere etorkizuna.
Hizkuntza dugu
Herriak duen
benetako ondasuna;
Urte Berriak
dakarkiola geureari
osasuna
BERGARAKO
UDAL EUSKALTEGIA
Zabalotegi 13 • BERGARA
Tel.: 943 76 44 53
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net
berg.euskudal@euskalnet.net


Tartufo
Jatetxea
San Juan Auzoa 35.
Elgetara bidean.
20570 Bergara.
Tel.: 943763551.



**ELENA LAKA**
Abokatua eta iritzi emailea
Bergara

**↑ KILOMETROAK 07**
Herrian, Kilometroak 07ren arrakasta: antolaketaren egokitasunak eta herritar zein kanpotarren erantzun onak Bergarako herria goi mailan utzi zuelako.

**↓ ETA BERRIRO ERE**
2006ko azken egunetan hasitakoa: ETA berriro, su-etena deklaratu ostean, indarkeriazko ekintzekin hasi dela, edozein akordio politikorako bidea zapuztuz.



**MILA ELORTZA**
AHT gelditu!
Bergara

**↑ UDAL BERRIAK**
Hauteskunde ondoren egon diren aldaketek esperantza ekarri dute. Udala Herriko Plazatik haratago begira jarri da, udalerri guztira. Bestalde, AHTren gainean ere babesa jaso dugu.

**↓ AGINTARIEN JARRERA**
Goian dauden agintariek euren burugogorkeriarekin jarraitzen dute; herriari kasu egin barik euren interesak aurrera atera gura dituzte. Herria kriminalizatu dute.



**OIER PEÑAGARIKANO**
EHEko kidea
Antzuola

**↑ ALDERDI GUZTIAK UDALEAN**
Politikan, alderdi politiko guztiek izan dute Udalean ordezkaritza lortzeko aukera, eta, ekonomia aldetik, herrian ez dago langabezia handirik, eta enpleguari dagokion datua ona da.

**↓ ENPRESARIK EZ DA SORTU**
18/98 auziko atxiloketak izan dira, politikan, albisterik txarrena; Antzuolakorik ez dute atxilotu, baina guztiei eragiten digu. Bestetik, herrian ez da enpresa berririk sortu.



**ITSASO AZKARGORTA**
Antzuolako Gazte Asanbladakoa
Antzuola

**↑ HERRIKO JAIAK**
Urte batzuetan behera egin eta gero, Antzuolako jaiak inoiz baino hobeak izan dira aurten; jende asko etorri da eta giro bikaina egon da. Hori izan da aurtengo gauza onena niretako.

**↓ 18/98KO ATXILOKETAK**
Urteko gauza txarrena politika arlokoa izan da: 18/98 auziko atxiloketak oso albiste txarra izan dira. Bidegabekeria handia izan da, gezurrak erabilita auziperatu eta atxilotu dituzte-eta.



**FLORENTINO LAMARIANO**
Erretiratuen elkarteko lehendakaria
Antzuola

**↑ BAZKIDE BERRIAK**
Herriaren itxurak hobera egin du, esaterako, Herriko Plazarenak. Bestalde, erretiratu asko egin dira elkarteko bazkide, batez ere, laster egoitza berria izango dugula ikusita.

**↓ AUZOAK AHAZTUTA DAUDE**
Batetik, herri barruan trafiko arazoak daude eta hori konpondu beharra dago. Bestetik, ikusten dut erdigunea asko zaindu dela, baina, auzoak nahiko ahaztuta daudela.



**MIKEL BARGIELA**
Klakson taldeko abeslaria
Antzuola

**↑ MUSIKA TALDEAK ONDO**
Herrian musika talde gutxi egon arren, daudenak ilusioz dabiltza eta talentua duen jende asko dago. Entseguetarako lokal berria sortu da; taldeei erraztasunak eman zaizkie.

**↓ LOKAL EGOKIRIK EZ**
Musika talde gutxi dago. Arrazoi bat izan daiteke kontzertu gutxi egoten dela, ez dagoelako horretarako toki egokirik. Horregatik ez dago mugimendu handirik, musikari dagokionez.



**JUANITA ZABALO**
Etxekoandrea
Antzuola

**↑ PARROKIAKO LANAK**
Oso zaila egiten zait hainbeste gauza txarren artean zerbait positiboa ateratzea, baina, zerbait esatearren, parrokiako eraberritze lanekin hastea oso berri ona izan da.

**↓ ELKAR ONARTU EZINAK**
Elkar onartu ezinak eta gerrak. Urte berrirako nahiko nuke, San Agustinek esandakoa: batasuna preminetan, askatasuna elkarrizketetan eta bihotz zabaltasuna denekin.



**GEAXI EZPELETA**
Gaztea
Elgeta

**↑ ILEGALIZAZIOARI AURRE**
Aipagarriena ezker abertzaleak ilegalizazio, errepresio, eta abarren aurrean urte batez gehiago tinko eta duin mantentzeko erakutsi duen gaitasuna iruditzen zait.

**↓ GIZARTE EREDUA**
Laburbilduz, indarrean den gizarte ereduaren mantentzea eta indartzea, herritargoaren pasibotasunaren aurrean, horrek dakartzan ondorio guztiekin.



**EDUARDO ZUBIAURRE**
ADEGIko Presidentea
Elgeta

**↑ LAN MUNDUAN BAREALDIA**
Lan hitzarmenen berreskuratzea, elkarrizketa soziala biziberritu eta gehiengo sindikal anitzekin egin ahal izan direlako. Lan munduan barealdia bizi dugu, beste esparru batzuetan ez bezala.

**↓ SU-ETENAREN AMAIERA**
Eta ondoren ekarri dituen hilketa, mehatxu, txantaje eta abarrak. Auzo giroa pozoitu eta gaiztotu baino ez duelako egin eta itxaropenari hegoak sustraietatik moztu dizkiolako.



**MARIA ELENA EZTENAGA**
Udal Liburuzaina
Elgeta

**↑ ETXEBIZITZAK GAZTEENDAKO**
Elgetako gazte askok lortu dute aurten etxebizitza izatea. Jakinda zenbat arazo duten beste herri batzuetan, benetan pozteko moduko albistea da. Zorionak, denondako!

**↓ EMAKUMEEN HILKETAK**
Hainbat emakume hil dira aurten ere bikotekideen eskuetan. Hori da aurtengo eta hainbat urtetako albiste txarra. Gogorrena da ez dela ezer egiten hori eragozteko.



HORTZ KLINIKA
Silvana Caviglia doktorea
Simon Arrieta plaza 3, 2. Tel.943 76 38 54 BERGARA
PADI
ASEGURUAK
·Sermesa Pakea Grupo Eroski
·Ibersalud Globalcard Aegon Asepeyo
·Mapfre
·Fremap
·Ocaso
·Azkaran
·Previsora



Gabon zoriontsuak denoi!


TELAETXE
Oihalen neurketatik etxean
ipintzera arte dena gure esku
Fabrikako preziotan
• Kortinak
• Kortinoiak
• Estoreak
• Fundak
• Mantelak
• Nordikoak
• Izarak
• Oihalen neguko kolekzio berria ikusgai eta orain ALFONBRAK
Elgeta bidea,
gasolindegitik
300 metrora
• BERGARA•
Tel.: 943 76 39 40 / 41
Astelehenetik
larunbatera
10:00etatik 13:00etara
eta
16:00etatik 20:00etara
zabalik


EAE ANV
www.eae-anv.org
guk
EUSKALNAZIOA
independentzia
independentzia
marko demokratikoa
orain!

Goienkaria

Egubakoitza / 2007ko abenduaren 28a / GOIENKARIAREN ARGITALPEN BEREZIA






# ELGETA

## URTEARI BEGIRATUA 2007









ARGAZKIAK: GOIENKARIA

SISTECO
MAKINA-ERREMINTAK

Makina-erreminten salmenta,
laguntza teknikoko zerbitzua (SAT)
eta berreraikuntza

Urte berri on guztioi!

E-posta: empresa@sisteco.net • Pagatza parke industriala 7A saila, ELGETA • Tel.: 943 76 82 14 • Faxa: 943 76 81 00 • www.sisteco.net

URTE BERRI ON ELGETAR GUZTIOI!

LAIBE

MAKINA-ERREMINTA SL Elorrio bidea z/g, Elgeta.



# URTARRILA

# OTSAILA



**"Gurasoen konfiantzak aurrera egiten lagundu zigun. Ez geneukan ezer eta inspektoreak askotan etortzen ziren"**

**Lupe Ibarbia** > Klandestinitatean andereño eta 2006ko Sabino Arana fundazioaren saria



**"Ni izendatu naute eta ohore handia da, baina talde lana da gurea"**

**Beatriz Zabalondo** > irakaslea eta EIZIEko presidentea



**"Ilusioa dudan artean kantxan jarraitzea da nire helburua"**

**Aitor Elkoro** > Aspeko pilotaria beste urtebetez

**TXAKUR ERASOAK** > UGARITU EGIN ZIREN ERASOAK

## Artalde jabeak kezkatuta ibili ziren txakurren erasoengatik

Urritik aurrera txakurrek artaldeei egindako erasoak ugaritu egin ziren Elgetan eta artalde jabeak kezkatuta ibili ziren.

Beizu, Larrabil, Mistei eta Olei baserrietan izan zuten erasoon berri. Zenbaitetan txakurrek ardiak akabatzera iritsi ziren eta behin baino gehiagotan ardiak kolpatuta eta oso kaltetuta utzi zituzten.

**SALAKETAK JARTZEKO ERABAKIA**

Baserritarren batzordeak txakurrak ondo lotzeko eskaera egin zuen. Jakinarazi zen erasoa egin eta txakurren jabea aurkituz gero salaketa ere jarriko zitzaiola.

**LAPURRETA** > ALARMA ITZALI ETA ATETIK SARTU ZIREN

## Elgeta Piel dendatik ehun bat beroki lapurtu zituzten

Palanka batekin atea bortxatzen saiatu ziren, baina atearen aluminiozko estrukturak eman egin zuen eta kristala oso-osorik jausi zen lurrera.

Horrela sartu ziren lapurrak dendara. Aurretik alarma, telefonoa eta argindarra moztuak zituzten.

**LAPUR PROFESIONALAK**

Elgetan ez zen alarma hotsik entzun, baina telefonogunean jaso zuten abisua. Ertzainak iritsi zirenerako, ordea, dena eginda zegoen.

Aurreko astean, Bergarako supermerkatu batean antzeko saiakera izan zen.

> HAURRESKOLA

### Lehenengo aldiz hamar ume hartu zituen haurreskolak

Herriko haurreskolan hamar ume ibili ziren otsailetik aurrera, inoizko kopururik handiena. Albiste ona izan zen hau haurreskolaren proiektua bultzatzen hainbeste ahalegin egin zuten lagunendako. Laura Martin eta Elbira Gonzalez hezitzaileek Ander Mayoraren laguntza izan zuten ordutik.

> LEHENENGO ELURTEA

### Berandu baina sendo bota zuen neguko lehenengo elurtea

Urteko laugarren astean gogotik bota zuen elurra, eta horrek hainbat arazo sortu zituen herrian.

Lau langile, elurra kentzeko bi makina eta 1.300 kilo gatzekin egin zion herriak aurre elurteari. Ondorengo egunak ere ez ziren gozoak izan. Umeak gustura ibili ziren jolasean, baina teilatuetan pilatutako elurrak ezuste bat baino gehiago eragin zituen.



Teilatuetatik elurra kentzen.

> MENDI MENDIAN ELKARTEA

### Lehenengo aldiz emakume bat onartu zuten bazkide moduan

Mendi Mendian Elkarteko kideek otsailaren 2an egindako batzarrean Dayami Varo onartu zuten bazkide.

Ez zen batzar horretan onartzea adostu zen sozio berri bakarra, baina bai emakume bakarra. Eta lehenengoa elkartearen historian. Varo pozik agertu zen. Bere neurrira egindako elkartea dela esan zuen.

> INTXORTARA GAUEZ

### Egoki kirol elkarteko 12 bat lagun gauez igo ziren Intxortara

Hainbat gurasok lagunduta, 8-12 urte bitarteko zazpi neska mutikok irteera egin zuten gauez Intxortara.

Kopetan ipinitako argiaren laguntzaz egin zuten otsailaren 24an gailurrerako bidea. Bueltan, txabola batean afaldu eta Asentzion barrena itzuli ziren. Ez zuen euririk egin baina lokatza traba handia izan zen.

> KARTA JOKOAN

### Erretiratuak briskan eta tutean aritu ziren Ozkarbi elkartean

Briskan eta tutean aritu ziren otsailaren 26an erretiratuak. Bristan Nati eta Itziar Arrieta nabarmendu ziren eta 11 bikoteren gainetik gelditu ziren.

Tutean, bi bikote aritu ziren eta Juan Irazabal eta Patxi Arantzabal nagusitu ziren.

Bikote biak Debabarreneko txapelketarako txartel bana eskuratu zuten.

ELGETA
AUTOAK
JULIAN SANZ FERNANDEZ

Berraondokoa z/g ELGETA • Tel.: 943 76 82 02 Faxa: 943 76 82 98
ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

# MARTXOA



**"Bartzelona aldetik etortzen zaizkigu bisitari gehienak"**

**Liza Perrinet** > Hoteleko ugazaba berria



**"Frontea gogorra izan zen Elgetan, eta jendeak jakin-mina dauka"**

**Jesus Gutierrez** > 'La Guerra Civil en Eibar y Elgeta' liburuaren egilea

**BIGARREN ELURTEA** > ARGINDAR BARIK OINAZTUENGATIK

## Transformadoreei kalte egin zieten oinaztuek

Martxo hasieran, behin baino gehiagotan joan zen argia Elgetan, gehienbat udaletxe gorako hainbat etxetan. Oinaztuek kalte handiak eragin zituzten herriko transformadoreetan, eta Iberdrolako langileek behin eta berriz igo behar izan zuten herrira, erretako fusibleak aldatzera.

**IBERDROLARI AZALPEN ESKE**

Udalak, egoerarekin kezkatuta, txostena eskatu zion Iberdrolari. Elizaren kanpandorrean dagoen tximistorratzaren teknikariarena ere bildu zen.

Herrian, une haietan, garabi eta aldamio ugari zeuden. Haien eragina ere aztertu zuten.



Iberdrolako langileak, kaltetutako transformadore bat konpontzen.

> KORRIKA 15

### Goizean goiz, 08:00etan, pasa zen Korrika Elgetatik

Martxoaren 25ean, domeka, pasa zen Korrika Elgetatik. Aurreko egunean Korrika Txikia egin zuten. Lekukoa eramateko kilometroa erosi zuten taldeak hauek izan ziren: Maala Guraso Elkartea, Tabernari Elkartea, Goibeko-Espaloia, Ozkarbi, Intxorta, Udala, EAJ, Aralar, Talde Alternatiboa eta Sisteko.

> 11. URTEURRENA

### Gaztetxeak egitarau zabalarekin ospatu zuen 11. urteurrena

Umeen Eguna, kontzertuak, hitzaldiak, sukaldaritza ikastaroa, herri bazkaria eta sagardotegira irteera antolatu zituen, besteak beste, Elgetako gaztetxeak 11. urteurrena ospatzeko.

Jende ugarik egin zuen bat ospakizun haiekin, batez ere herri bazkariarekin eta sagardotegirako irteerarekin.

# APIRILA



**"Txinako egoera aldatu egin da: barne adopzioa bultzatzen hasi dira; baliteke ondorio txarrak izatea"**

**Ana Gillegi** > Anichi elkarteko kidea

**ERRETIRATUAK** > OZKARBI ELKARTEAN JARRAITZEKO AUKERA

## Udalak, azkenean, 10.300 euroak ematea onartu zuen

Haien etorkizuna urtebete pasatxo zalantzan egon ostean, Udalak, azkenean, erretiratuek eskatutako 10.300 euroak ematea onartu zuen.

Luze jo zuen auziak eta herritarren ahotan ibili zen. Ozkarbi Elkarteak jarritako alokairua ordaintzeko behar zuten dirua erretiratuek. Udalak, hasiera batean, 6.000 euro eskaini zituen, baina ez zen akordiorik lortu. Beste egoitza bat bilatzeko saiakera ere egin zuten udal agintariek.

Erretiratuek apirilaren 18a zuten azken epea eta egun gutxi lehenago iritsi zen arazoari konponbidea emango zion erabakia.

> INTXORTAKO ATEA

### Intxortako bataileetako gudariak omendu zituzten Elgetan

Espainiako gerraren 70. urteurrena zela-eta hiru ekitaldi egin zituzten Elgetan. Apirilaren 19an, agintari politiko eta gudarien ordezkaritza zabalak Arangurenen Intxortako Atea eskultura inauguratu zuen Asentzion. Hamar egun geroago egin zuen herriarendako omenaldia Udalak. Espaloian egindako erakusketak, berriz, 4.000 lagun erakarri zituen.



Ordezkaritza zabala jaso zuen ekitaldiak.

ILEA
ILE APAINDEGIA
Marijok Gabon zoriontsuak opa dizkizue
Andra Mari plaza 2 • Tel.: 943 76 81 97
20690 ELGETA



GABON ZORIONTSUAK IGARO!
INDUSTRIAS EVE, SA
Trokelgintza eta estanpazioa
Pagatza polig. Elgeta. 943 76 80 99

# MAIATZA



**"Denboraldi hasieran finkatutako helburuak bete egin ditugu lehen urte honetan eta pozik gaude"**

**Iraitz Bolinaga** > Elgeta Futbol Taldeko presidentea

**UDAL HAUTESKUNDEAK** > ARALAR IZAN ZEN BOZKATUENA

## Aralar-Independenteak izan zen indar bozkatuena

Aralar-Independenteak izan zen maiatzeko udal hauteskundeetan indar bozkatuena Elgetan. Aurre hartu zion 43 botoren aldearekin Patxi Basauriren Elgetako Abertzaleak hautesle-elkarteari.

Lau urtez Udaletik kanpo egon ostean Elgetako ezker abertzaleak emaitza onak lortu zituen: 172 boto eta bi zinegotzi.

**NEGOZIAZIOAK**
Aralarrek hasieratik esan zuen denekin gobernua osatzeko aukerak aztertuko zituela, eta negoziazioak abiaraziko zituela helburu horrekin.

> HIZKUNTZA POLITIKA

### Elgetako Udalari 4,71ko nota jarri zion Kontseiluak

Elgetak 0-10 tarteko neurketan 4,71 puntu lortu zituen Kontseiluak egindako hizkuntza politikaren neurketan.

Nabarmendutako hutsuneen artean udal-ordenantzaren falta zegoen. Esan zuten, gainera, Udalak gehiago egin dezakeela lan egiten duen eraikuntza zein aholkularitza enpresei euskararen erabilera exijitzeko.

> AURREKONTUAK 07

### Ia hiru milioi euro onartu zituen EAJ-EAk 2007rako

2007ko aurrekontu zehatza 2.911.755,51 euro da. EAJ-EAren botoekin atera zen aurrera. Aurrekontuotan 43.000 euroko kreditua eskatzea proposatu zuen EAJ-EAk, eta Aralar horren aurka agertu zen. "Udalak 700.000 eurotik gorako zorra du kreditutan eta beste bat eskatzea harrigarria iruditzen zaigu", esan zuen Aralarko Oxel Erostarbek.

# EKAINA



**"Oposizio lana egitea erabaki dugu, ez dugu batzorderik hartuko"**

**Patxi Basauri** >
Elgetako Abertzaleak koalizioa



**"Ez dugu argi Aralarrek etorkizunean zein jarrera izango duen"**

**Edurne Alberdi** >
Elgetako EAE-ANV

**GOBERNU OSAKETA** > EKAINAREN 16AN EGIN ZUTEN

## Oxel Erostarbe alkate gehiengo osoarekin

Lehenengo bozketan eta gehiengo osoarekin izendatu zuten Aralarko Oxel Erostarbe Elgetako alkate.

Erostarbek bere taldearen lau zinegotzien botoak jaso zituen, eta EAE-ANVren beste bat. Patxi Basaurik bere taldearen hiru botoak jaso zituen.

**LEHENENGO HITZAK**
Alkate karguan Oxel Erostarbek egindako lehenengo adierazpenetan pazientzia eskatu zien elgetarrei. "Aldaketa badator, baina gauzak ez dira egun batetik bestera aldatzen. Denbora behar dugu eta herritarrei pazientzia eskatzen diegu".



Agintaldi honetan bederatzi zinegotzik osatzen dute udalbatza.

> TXIRRINDULARITZA

### Oskar Askasibar eta Jone Muxika bikain gurpil gainean

Quebrantahuesos proba ospetsuan Oskar Askasibar izan da aurten lehenengo debagoiendarra. Haren denbora, 6:01:54.

Jone Muxikak, berriz, denboraldi bikaina egin du. Emakumeen Bira, La Grande Boucle Feminine, Espainiako Txapelketa eta Italiako Giroa jokatu ditu. Maila ona erakutsi zuen guztietan.

> ELGETAKO KATAIA

### Beste hamar urtez kultura etxea izaten jarraituko du

Gipuzkoako Foru Aldundiak erabaki zuenez beste hamar urtez egongo da Elgetako Udalaren esku Kataia etxea. Hain zuzen ere, eraikina kultura etxeak izaten jarraituko du gutxienez 2016. urtera arte.

Aldundiaren erabakiak aurretik zentzu berean hartutako bi erabakirekin bat egiten du, 1986an eta 1996an





Zentzumena Jatetxea
San Roke 26 ELGETA
Tel.: 943 78 91 07
Faxa: 943 78 91 06
www.casaruralelgeta.com
hotelrosena@terra.es
CASA RURAL Elgeta
ONDO IBILI GABONETAN!



# UZTAILA



**"Nafarroako iparraldean ez dira hain burugogorrak"**

**Ander Gillegi** > Elgetarra, bikarioa Lesakan



**"Ez nuen podiumean sartzea espero, uste baino hobeto ibili naiz"**

**Txomin de Vega** > Euskadiko mendi bizikleta txapelketan, 3.a

**HIRIGINTZA** > 58.000 EUROKO AURREKONTUA

## Hilerri ondora azkenean Uruburuko transformadorea

Buelta asko eman eta gero, Uruburuko transformadore elektrikoa hilerri ondora eramatea erabaki zuen udalbatzak.

Erabaki polemikoa izan zen; izan ere, Aralarrek leku aldaketaren kostua, 58.000 euro, zinegotzien soldatekin ordaintzeko proposamena egin zuen.

**DIRU PUBLIKOTIK**

Jendetsua izan zen bilkura, eta eztabaida piztu zen. Aralarren proposamenak ez zuen aurrera egin. Kontra bozkatu zuten EAJ-EA eta EAEko hautetsiek. Kostua, beraz, udal aurrekontuetatik ordaintzeko erabakia hartu zuen udalbatzak.

> IGERILEKU POLEMIKOA

### Maala parkean jarritako igerilekuak kritikak jaso zituen

Maala parkean uztail hasieran jarritako igerilekuak ere polemika piztu zuen herrian.

EAJ-EAk txapuzatzat jo zuen ekimena. Arriskutsua izan zela ere gaineratu zuen. "Osasun Sailaren baimenik gabe eta soroslerik gabe jarritako igerilekua" izan zelako. Udalaren hitzetan, "herritar talde batek" jarri zuen.

> FERIA NAGUSIKO JAIAK

### 95 abelburu eta 57 postu egon ziren ikusgai feria egunean

Lau egunez giro ederra izan zen Elgetan jaiak zirela-eta. Guraso eta umeak etxeko arropekin edo pijama jantzita mozorrotu ziren barikuan. Jaietan ospetsua den asto lasterketan bost lagunek hartu zuten parte, eta Beretxinaga nagusitu zen. Jan eta edan mordoa egin zen jaietan. Herri afaria, erretiratuen bazkaria, paella jana...



Jaietako asto lasterketan gazteak izan ziren azkarrenak.

# ABUZTUA



**"Pneumonia eragiten duen bakteria nahiko arrunta da eta txertoa jarriz gero, kasu gutxiago daude"**

**Iñaki Urgoitia** > Elgetako medikua eta Bergarako anbulatorioko burua

**ERREPIDEAK** > LARRABILTZEARRA AUZOKO BIDEA TXARTO

## Diputazioak aglomeratu txarra bota zuela-eta kexak

Udan egin zituen konponketa lanak Foru Aldundiak, baina auzotarrak kexu agertu ziren, botatako aglomeratua kalitate txarrekoa zela argudiatuta. Larrabiltzearra auzoko Enrike Ormaetxeak aldatzekoa zen errepidearen titularitatea ez onartzeko adierazi zion alkateari.

**ZORUA ALTXATUTA**

Zorua altxatuta agertu zen lanak bukatu eta gutxira. Arazoa auzoaren sarreran ikusten zen argien. "Pisu handiko ibilgailuak badatoz, berehala altxatzen dute zorua", zioen Ormaetxeak. "Diputazioak bidea behar den moduan lagatzea eskatzen dugu".

> HARATEGIA

### Betiko itxi zituen ateak Gorrotxategi harategiak

Miren Arantzetak eta haren senarrak 1948. urtean zabaldu zuten harategiak uztail amaieran itxi zituen ateak betiko. Harategia itxitakoan, 86 urterekin hartu zuen erretiroa etxeko amamak.

62 urtean, bi egunetan bakarrik itxi dute harategia: "Aitaita astelehen batean hil zen, eta martitzenean itxi genuen; baina eguaztenean berriro ere lanera".



Mikel eta haren amama Miren.

HIERROS NAPARRA

Hierros Naparra
eta Metales Bolinagaren izenean

Zorionak
eta urte berri on!

Labegaraieta z/g BERGARA Tel.: 943 76 57 28

# IRAILA



**"Oso gustura nago Elgetako Txirrindulari Elkarteak egindako omenaldiarekin"**

**Julian Gorospe** > Elgetako Txirrindulari Elkarteak irailean egin zion omenaldia

**AZOKA** > SAGARDO EGUNA ETA BASERRITARREN AZOKA

## 27 taldek hartu zuten parte tortilla lehiaketan

Gaztetxeak antolatuta irailaren 15ean egin dute aurten Sagardo Eguna. Patata tortilla lehiaketan 27 taldek hartu zuten parte. *Flori Poti* taldea izan zen irabazlea; *Erleak* taldeak jaso zuen tortillarik originalenaren saria, eta azkenak *i, i, i... gaztetxi* taldekoak izan ziren.

**BASERRITARREN AZOKA**

Eguna borobiltzeko, aurreko urtean bezala herriko baserritarren azoka izan zen goizez.

Herriko baserritarrek euren produktuak jarri zituzten salgai plazan. Jendea ibili zen; batzuk begira, eta erosketak egiten beste batzuk.

> HERRI ESKOLA

### Hamaika ume aurtengo ikasturtean bigarren mailako gelan

Irailaren 10ean hasi dute aurten ikasturtea Elgetako herri eskolan. Matrikulazioak igo egin dira; izan ere, iaz baino ume gehiagok eman dute izena ikasturte honetan. Hala, 11 ume daude bigarren urtekoen gelan.

Ordutegi aldaketak ere egon dira aurten. Goizetik 09:00etatik 12:30era eta arratsaldez 14:00etatik 16:30era.

> VESPA ETA LAMBRETTAK

### Arrakastatsua izan da 2007ko Vespa eta Lambretta topaketa

Irailaren 23an egin da aurten Lambretta eta Vespa motorren II. topaketa.

Txoko askotako motorzaleak etorri ziren Elgetara. Plazan elkartu ziren goizean eta ibilaldixoa egin zuten eguerdi partean. Elgetatik Elorriora egin zuten. Gero, Atxondo, Axpe eta atzera Elgetara. Arratsaldean, abilezia erakustaldia egin zuten.

# URRIA



**"Nire sekretua orduak zaintzea da, jateko, oheratzeko..."**

**Genoveva Villar** > 100 urte bete zituen urriaren 31n



**Elgetako gaztetxean egin zuen irailaren 28an lehenengo kontzertua**

**Ane Elortza** > Bakarlaria

**ZERGAK** > UDALAK %16,1 IGO ZUEN ZABORRAREN ZERGA

## Etxebizitza hutsei zerga berria aplikatzeko erabakia

Urriko osoko bilkuran onartu zituen udal gobernuak 2008ko ordenantza fiskalak. Oposizioak gogor kritikatu zuen zaborren tasaren igoera (%16,1) baita zerga hori baserritarrei lehenengo aldiz kobratzea eta etxebizitza hutsei tasa berri bat aplikatzea ere.

**IRITZI KONTRAJARRIAK**

Zaborren zergaren harira, Oxel Erostarbe alkateak esan zuen herritarrek sortzen dituzten gastuez kontziente izan behar dutela.

Oposizioak, berriz, beste iritzi bat zuen: zerga igoera "bidegabekeria" zela salatu zuen.



Udalbatza urriko osoko bilkuran.

> BEATIFIKAZIOA

### Aita Santuak Zenona Arantzabal elgetarra dohatsu aitortu zuen

Urriaren 28an 498 beatifikazio egin zituzten Erroman, tartean Arantzeta auzoko Zenona Arantzabal. Polemika handia eragin zuen ospakizunak; izan ere, errepublikanoen eskuetan hildako erlijiosoak soilik beatifikatu zituen eliza katolikoak. Jorge Iturricastillo, esaterako, ez zuten beatifikatu.

> PERRETXIKO IRTEERA

### Onak eta txarrak, denak bildu zituzten ikasteko

Egunean bertan jasotako perretxikoekin eta aurreko egunetan batutakoekin erakusketa ipini zuten plazan. Onak eta txarrak, guztiak jarri zituzten ikusgai. Lan handia egin zuten Jose Antonio Irazabalek, Alexander Arantzabalek, Alejandro Cristobalek eta Pello Gorrotxategik.



# AZAROA



**"Bi urte barru Euskal Herriko txapelketa dago eta gogotsu nago"**

**Ainhoa Agirreazaldegi** > Finalerdietan Gipuzkoako txapelketan



**"Oraindik ez nago sasoi onenean. Hobetu eta aurrean egon nahi dut"**

**Jone Muxika** > Nesketan txapeldun Osintxuko ziklo-krosean

**LANAK** > 383.182 EURO EUSKO JAURLARITZATIK

## Dirulaguntza garrantzitsua Salbador kaleko lanendako

Eusko Jaurlaritzak Elgetako hiru proiektu diruz laguntzeko konpromisoa hartu zuen azaroan. Diru sail handiena Salbador kaleko urbanizazio lanendako onartu zuen, 276.663 euro. Udalak lan horiek lehenbailehen hastearen garrantzia azpimarratu du behin eta berriz: "Ezinbestekoa da lan horiek egitea Torrealdeko etxebizitzendako ur hornidura ziurtatzeko", esan zuen Oxel Erostarbe alkateak.

Eusko Jaurlaritzak, gainera, 103.446 euro onartu zituen Artekalen egindako lanendako eta 3.071,25 euro Torrezahar urbanizatzeko proiektua idazteko.



Salbador kalea oinezkoendako jartzea da Udalaren asmoa.

> PILOTARI BATEN AGURRA

### Aitor Elkorok pilota uzteko erabakiaren berri eman zuen

Abenduaren 9an esan zion agur pilota profesionalari atzelari elgetarrak, baina albiste azaroan ezagutu genuen: "Uda partean hasi nintzen pilota uztearen gainean hausnartzen", esan zuen. "Jarraituko nuke, baina ez nago motibatuta bi edo hiru astean behin hirugarren partidua jokatzeko. Egin dut egin beharrekoa.".

> LAPURRETA

### Uruburuko obratik 30 galdara lapurtu zituzten

Etxebizitza familiabakarretako eta bi bizitzako etxeetako galdarak eraman zituzten azaroko azken asteburuan. "Torlojuak banan-banan aterata lapurtu dituzte", esan zuten etxe horiek egiten ari den Irualde Bat enpresa eraikitzailetik. Zapatu eguerditik astelehen goizera bitartean egin zuten lapurreta.

# ABENDUA



**"Taulak errez erabiltzeko formatuan etaratzia izan da helburua, guztioi sortzen jakuzen dudatxuok konpontzeko"**

**Iban Arantzabal** > Elgetako aditz taulen egilea

**UDALA** > ETXEBIZITZA BABESTUAK ASTE SANTURAKO

## Beste mailegu bat eskatu zuen Udalak gastuei aurre egiteko

Torrealdeko etxebizitza babestuak egiten dihardüen Murias enpresa-eraikitzaileari %19,41eko igoera onartu zion Udalak. Hau da, 296.659 euro gehiago ordaintzea. Polemika sortu zuen erabakiak, EAJ-EAk gehiegizko igoera zela salatu baitzuen.

**MAILEGU BERRIA**

Gastuei aurre egiteko, berriz, 185.586 euroko mailegu berria eskatu zuen. Udalbatzak aho batez onartu zuen erabaki hau eta mailegua Kutxari eskatu zitzaion 15 urterako. "Ez dugu beste irtenbiderik izan", adierazi zuen Oxel Erostarbe alkateak.



Torrealdeko babes ofizialeko etxeak Aste Santurako ematea aurreikusi dute.

GRUPO IFA
Supermerkatuak
UGARI
Beak Gabon zoriontsuak opa dizkizue!
Andra Mari 2 ELGETA Tel.:943 76 80 98

*Elena Elkorok zorionik beroenak opa dizkizue elgetar guztioi.*
*Zorionak eta urte berri on!*


BERGARAKO IKASTETXE PUBLIKOAK
anitza
integratzailea
euskalduna
dohaina
San Martin
HAUR EZKUNTZA (2-6 urte)
LEHEN HEZKUNTZA (6-12 urte)
Boni Laskurain 25
Tel.: 943 76 21 47
012265aa@hezkuntza.net
www.goieskola.net/SanMartinAgirreEskola
HHE-EPA
(18 urtetik gorakoentzako)
Alfabetizazioa (etorkinentzako)
Kultura orokorra
DBH
Unibertsitatean sartzeko kurtsoa
Alfa karneta
Euskara eta Inglesa
Barrenkale 33-2
Tel.: 943 76 44 52
012266aa@hezkuntza.net
M.Altuna
LANBIDE HEZIKETA
Erdi Mailako
Zikloak (16 urtetik aurrera) /Goi Mailako Zikloak (18 urtetik aurrera)
* Mekanika
* Elektrizitatea
* Administrazioa
Eskaintza partziala
Goi mailako zikloak egiteko sarrera frogaren prestaketa
Ibargarai 1
Tel.: 943 76 24 91/ 76 38 40
imaltuna@sarenet.es
www.imaltuna.com
Ipintza
DBH (12-16 urte)
BATXILERGOA (16-18 urte)
Giza eta Gizarte Zientziak Natur eta Osasun Zientziak Teknologikoa.
Boni Laskurain 17-19 Tel.: 943 76 31 42 / 43
012981aa@hezkuntza.net www.goieskola.net/ipintza/
Haurreskola
Haurreskola (0-2 urte)
Boni Laskurain 15
Martínez de Irala ikastetxea
Tel: 943762596
bergara.bergara@haurreskolak.net
goieskola
debagoieneko euskal eskola publikoa
San Martin - Ipintza - M. Altuna - HHE-EPA - Haurreskola

argazki zaharra



# Abenduaren 31n 40 urte beteko dira Vasco-Navarro trena kendu zutela

1967ko abenduaren 31n egin zuen azkeneko bidaia Vasco-Navarro trenak gure ibarrean barrena; hortaz, datorren abenduaren 31n 40 urte beteko dira Debagoienean trenik ez dugula. Trenak Bergara Gasteizekin lotzen zuen eta geltoki nagusia –Beheko Estaziñua– gaur egungo ertzain etxetik hurbil zegoen. Irudian ikusten da trena Labegaraieta auzotik igarotzen, Agirrebeña taberna pareko zubitik –gaur egun bidegorria–. Irudikoa, hain justu, merkantzia trena da eta ostean Altos Hornos lantegiko txatarrategietako bat ikusten da. Argazkiak datarik ez duen arren, irudiaren ezkerraldean etxebizitzarik ez egoteak pista ematen digu; izan ere, gaur egun *ekonomatoko* etxeak daude hor. Etxeotan bizitzera sartzeko baimena 1950. urtean eman zuten; hortaz, badakigu argazkia 1950a baino aurreragokoa dela.

**Argazkia:** Trenaren Euskal Museoko Artxibategia.
**Testua:** GOIENKARIA.

IRURAK MARGOAK
DISEINUAK, S.L.

Era guztietako lanak
Moketa eta sintasola
Iztuku esponjatua
Paper pintatuak
Harea zorrotada
Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara

Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

Zorionak eta urte berri on!

## Gal ezazu ordubete eta egun guztia pasako duzu bere bila.

Richard Wathely



Minutu bat bera ere galdu gabe, gaur egungo sukalde berritzaileenak zure etxeko beharretara egokituta aurkitu nahi badituzu. **Zatoz Bastida Sukaldeak-era.**

Hitzordua eskatzeko aukera eskeintzen dizugu, denbora aurrez dezazun. **8:45etik - 20:30era arteko ordutegi jarraia** benetan axola zaizkizun gauzetarako denbora izan dezazun.

Hitzorduetarako tfnoak.:

**azpeitia 943 150 510**
**zarautz 943 894 999**
**bergara 943 767 058**

www.bastidasukaldeak.com

bastidasukaldeak



Jean Louis David ile apaindegiaren izenean
Gabon jai zoriontsuak bergarar guztioi!

# Jean Louis David

## AUSART ZAITEZ!

**TRADITION**
Ibargarai 43 • 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 22 48

**DIFFUSION QUICK SERVICE**
Magdalena 16 • 01008 GASTEIZ • Tel.: 945 13 47 26

**DIFFUSION**
Garbera Merkataritza etxea 23 aretoa
20017 DONOSTIA • Tel.: 943 39 45 86

**DIFFUSION**
Urbil Merkataritza etxea B7 aretoa.
20170 USURBIL • Tel.: 943 36 08 17

**DIFFUSION**
Lakua Merkataritza etxea 05 aretoa
01010 GASTEIZ • Tel.: 945 17 91 50

**BULEGO ZENTRALA TRANING CENTER**
Gasteiz Etorbidea 84
01012 GASTEIZ • Tel.: 945 21 42 38

Jean Louis David-ek L'ORÉAL produktuak erabiltzen ditu




# LORTU DUGUNAREN SEINALE

Asko da egiteko duguna
baina 10 urte
hauetako emaitzak
begi bistakoak dira

ESKERRIK ASKO
LANA EUSKALDUNTZEKO
DINAMIKAN MURGILDUTA
ZAUDETEN GUZTIOI

10 URTE ...11 egun hartuetaEMUN

EMUN
LANA EUSKALDUNTZEKO
KOOPERATIBA

www.emun.com
www.lantalan.com

**Goienkaria**

Egubakoitza / 2007ko abenduaren 21a / **GOIENKARIAren ARGITALPEN BEREZIA**




ARGAZKILARIA: GOIENKARIA



*Eraman dotoretasuna zure etxera*

gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51

EGITARAUA

# GABONETAKO AGENDA

## Erakusketak

**MENDIA ETA NATURA** argazki lehiaketako lanen erakusketa dago kultura etxean, astelehenetik domekara, 18:30etik 20:30era, Aloña Mendi kirol elkarteak antolatuta. Abenduaren 24an, 25ean, 31n eta urtarrilaren 1ean itxita egongo da erakusketa.



BENITO LERTXUNDI

**LUIS LASKURAIN** Bergarako margolariaren erakusketa egongo da ikusgai urtarrilaren 9tik 20ra bitartean kultura etxean. Astelehenetik domekara ikusi ahal izango da, 18:30-20:30 ordutegian.

## Musika

**BENITO LERTXUNDIK** emanaldia egingo du hilaren 22an, zapatua, 22:30ean, Zubikoa kiroldegian. Sarrerak 10 euro balio du aldez aurretik eta 12 euro leihatilan.

**ORTOFUNK eta FUNKILL-JAZZ** taldeek kontzertua egingo dute 23an, domeka, gaztelekuan.

**'JOLASEAN' IZENEKO IPUIN MUSIKATUA** ikusteko aukera izango da abenduaren 27an eta 28an. Abenduaren 27an bi saio egongo dira: 17:00etan eta 19:30ean. Abenduaren 28an saio bakarra egongo da, 18:30ean. Saiook Santa Ana antzokian izango dira. Parte hartuko dute ikuskizun horretan: Ganbara Txiki Abesbatzak, Ganbara Txikitxoak, Ganbara Orkestrak eta antzerki taldeak. Narratzailea Xabi Ormazabal izango da eta zuzendaria, Aitor Biain. Sarrerak 5 euro balio du eta aurrez ere jarri dituzte salgai, kultura etxean.

**OÑATIKO MUSIKA BANDAK** kontzertua egingo du urtarrilaren 6an, domeka, Santa Ana antzokian, 12:30ean. Honako piezak joko dituzte: *Bosques de Bolonia* (martxa, M. Jimenez), *Rojales* (sinfonia, V. Cartagena), *Nere ume maitiak* (Peñafiel), *Suite on Russian dances* (Terry Kenny), *El Bateo* (aukeraketa, Chueca) eta *Marcha Radezky* (martxa, J. Strauss).

## Antzerkia

**PAKE LEKUKO IKUSI MAKUSI ANTZERKI TALDEAK** *Bidai bat egingo dugu* izeneko antzezlana egingo du hilaren 21ean, egubakoitza, 20:30ean, Santa Ana aretoan.

## Ongi etorri!

**OLENTZERO** Oñatira iritsiko da, herriko ume guztiak agurtzera eta gozokiak banatzera, etxez etxe opariak uztera joan aurretik. Etzi, Gabon eguna, irtengo da Otadui zuhaiztitik, 18:00etan. Herri osoan ibiliko da.

**EKIALDEKO ERREGE MAGOAK** herrira etorriko dira etxez etxe opariak banatzera; baina lehenengo, KABALGATA egingo dute Oñatiko kaleetan barrena. Agurtu gura dituzten umeek horretarako aukera dute urtarrilaren 5ean, zapatua. Parrokia ondotik abiatuko dira Meltxor, Gaspar eta Baltasar 18:30ean.

## Hitzaldia

**ASTRONOMIAREN** inguruko berbaldia egingo du Jesus Martin-Pintado CSICeko (Ikerketa Zientifikoetarako Kontseilu Orokorra) ikertzaileak. *La evolución del universo y el origen de la vida* du izenburua hitzaldiak. Abenduaren 27an, martitzena, izango da, 19:00etan, kultura etxeko zinema aretoan.

BITAONI S.L.
Zorionak eta urte berri on!
Mekanizatua
•
C.N.
•
CAD-CAM
Zubillaga industrialdea 20
Tel.: 943 71 60 44 • Faxa: 943 78 29 39 • Mobila: 639 659 446
bitaoni@telefonica.net

LIZARRALDE
KIROLAK
BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETAK


ARRASATE
Foruen Enparantza • San Andres auzoa
Tel.: 943 79 91 47
OÑATI
Olakua 16
Tel.: 943 78 29 86

**EGITARAUA**

# Umeendako

**EUSKARAZKO BI FILM EMANGO DITUZTE:** Abenduaren 23an, domeka, eta abenduaren 26an, eguaztena, *Doraemon eta dinosauro txikia* izeneko filma emango dute. Bietan ala bietan, 17:00etan izango da, kultura etxeko aretoan. Urtarrilaren 2ean, eguaztena, eta urtarrilaren 6an, domeka, berriz, *Nocturna* delako filma emango dute. Horiek ere 17:00etan izango dira, kultura etxeko zinema aretoan.

**UR JOKOAK** egiteko aukera izango da Gabonetako ur jolasparkean abenduaren 26an eta 27an, eguaztena eta eguena. Zubikoako igerilekuan izango da, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara bitartean.

**GABONETAKO JOLASPARKEA** ipiniko dute urtarrilaren 3an eta 4an, eguena eta egubakoitza, Zubikoa kiroldegian, honako ordutegian: 11:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 20:00etara. Egun osoko sarrerak 4 euro balio du; egun erdikoak, berriz, 2,5.

# Kirola

**SASKIBALOIKO** koadrilen arteko txapelketa jokatuko dute abenduaren 28an, egubakoitza. eta 29an, zapatua, Zubikoa kiroldegian.

**ARETO FUTBOLEKO** koadrilen arteko txapelketa jokatuko dute abenduaren 31n, domeka, Zubikoa kiroldegian.

**'2006 IXA 2007 SAN SILBESTRE'** herri lasterketa jokatuko dute abenduaren 31n, domeka. Herriko Plazatik abiatuko dira lasterkariak 17:00etan.

**AINHOA LAZKANOREN OMENEZKO** saskibaloi partiduak jokatuko dituzte urtarrilaren 5ean, zapatua, kiroldegian, 16:00etan.



SAN SILBESTRE LASTERKETA

# Eliza

**HERRIKO PARROKIAN** abenduaren 24an, GABON EGUNA, astegunetako ohiko mezak egingo dituzte 09:00etan eta 19:00etan. Bestalde, Urtezahar egunean, abenduaren 31n, gaueko gurtzaileek egingo dute meza, 19:00etan, urteari amaiera emateko eta Jainkoari eskerrak emateko.

**BIDAURRETAKO MONASTERIOAN eta BENEDIKTINETAN** Gabon gauean meza bereziak egingo dituzte, 20:00etan eta 00:00etan, hurrenez hurren.

# Zinema

**'LUCIO'** Aitor Arregi zinemagile oñatiarraren filma ikusteko aukera izango da urtarrilaren 3an, egubakoitza, 20:00etan, kultura etxeko aretoan. Urtarrilaren 4an, berriz, 22:30ean emango dute.

# Bertso saioa

**BERTSO JAIALDIA** egongo da urtarrilaren 5ean, zapatua, kiroldegian, 22:30ean. Honako bertsolariek parte hartuko dute: Andoni Egañak, Sebastian Lizasok, Jesus Mari Irazuk, Aitor Mendiluzek, Iker Zubeldiak eta Iñigo Manzisidorrek. Gai jartzaile Oñatiko bertso eskolako kide Egoitz Aizpuruk jardungo du.

# Ondarea

**TURISMO BULEGOAK** lehiaketa antolatu du Gabonetarako. Irudi baten gaineko galderari erantzutea da gakoa. Irudia eta galdera *www.oinati.org* helbidean ikus daitezke. Erantzuna webgunean eman daiteke edo Turismo Bulegora eroan abenduaren 30a baino lehen. Galdera zuzen erantzun dutenen artean bi lagunendako 20 bonu zozkatuko dituzte. Bonu horiek balioko dute Arrikrutz ikustera joateko eta herrigune monumentalean barrena bisita gidatua egiteko. Bisitok urtarrilaren 5ean izango dira.

**ARRIKRUTZ KOBA** zabalik egongo da Gabonetako oporraldian. Martitzenetik domekara egongo da zabalik, 10:00-14:00 eta 15:00-17:00 ordutegian. Abenduaren 5ean eta urtarrilaren 1ean itxita egongo da. Bisita ordua hartzeko deitu 943 08 20 00 telefono zenbakira.

# Gazte Asanblada

**KONTSUMISMOAREN AURKAKO ALDARRIKAPENA** egingo du Gazte Asanbladak abenduaren 31n. Bestalde, egun berean ospatuko den San Silbestre lasterketan ere parte hartuko dute eta gaztetxearen aldeko aldarrikapena egingo dute. Bestalde, gaztetxearen aldeko sinadura batzea ere egingo dute, hilaren 24an eta 31n.



OLENTZEROK HERRIKO KALE GUZTIAK ZEHARKATUKO DITU

miren barrena
arropa denda
neurri bereziak

Zorionak eta
urte berri on!

Kalezaharra, 12 B
20560 Oñati
628 526 265









BENITO LERTXUNDI

# Bost urte eta gero, berriz izango da Oñatin Benito Lertxundi

## Zubikoa kiroldegia mila bat lagunendako egokituko dute gaurko (zapatua), Benito Lertxundiren emanaldirako

MIRIAN BITERI

**Oñatira itzuliko da Gabon hauetan Benito Lertxundi abeslaria. 2003ko urtarrilean egon zen azkenekoz. Mila pertsonak entzun ahal izango dute oriotarra.**



Joan zen urtean Eskoriatzan izan zen Benito Lertxundi abeslaria. GOIENKARIA

Jende gutxi egongo da Debagoienean Benito Lertxundiren klasikoak sekula entzun ez dituena. Hamarkada asko daramatza abesten eta *Bizkaia maite, Maria Solt eta Kastero* eta halako abestiak edonon jartzen dira.

Bada, horiek eta beste asko zuzenean entzun gura dutenek aukera izango dute gaur, hilak 22, gauean. Oñatiko Zubikoa kiroldegian kontzertua eskainiko du, 22:30ean.

Kiroldegia egokitu egin beharko dute gaur gaueko ekitaldirako, mila bat lagunendako tokia egin behar da-eta han. Kultura etxean jakinarazi dutenez, kontzerturako sarrerak aurretik egon dira salgai kultura etxean. Hamar euro balio zuen bakoitzak.

Pozik daude kultura etxean izandako salmentekin: "Lehenengo egunetan asko saldu ziren eta gutxi batzuk baino ez dira geratzen leihatilan saltzeko", azpimarratu dute.

**Emanaldia Zubikoa kiroldegian izango da eta 22:30ean emango zaio hasiera**

**Kultura etxea inauguratu zutenean egon zen azken aldiz Oñatin, 2003ko urtarrilean**

### LEIHATILAN HAMABI EURO

Adineko jendea izango da gehienbat Benito Lertxundiren emanaldia ikusten. Sarrera aurretik erosi dutenek 30 urtetik gora dituztela azaldu dute: "20 eta 30 urte bitartean dituzten banaka batzuk baino ez dira etorri. Heldu asko etorri da", aipatu dute.

Orain arte sarrera erosi ez dutenek ez dira askorik arduratu behar: leihatilan eskuratu ahal izango dituzte horiek, hamabi euroren truke.

2003ko urtarrilean izan zen azken aldiz Benito Lertxundi Oñatin. Kultura etxea inauguratu zuten egun berean eskaini zuen, hain zuzen ere, azken kontzertua.








Urtea berri eske
nola hasi zaigun
garenaren oihala
berritu dezagun
ekinaren artilez
esperantza irun
eta hari horrekin
bizipoza ehun
Ehune
Apainketa
Garibai, 8 • Tel: 943 77 11 48 • 20500 ARRASATE

UMEENTZAKOJOKOAK

# Ur jokoak eta Gabonetako haur parkea kiroldegian

## Ur jokoak, igerilekuan eta haur parkea kantxa berdean

MIREIA BIKUÑA

**Abenduko azken egunetan eta urteko lehenetan, ur jokoez eta Gabonetako haur parkeaz gozatzeko aukera izango dute herriko neska-mutiko gazteenek**

Gabonetan haur eta gazteak oporretan izaten direla kontuan hartuta, haiei zuzendutako hainbat ekintza jaso dira Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuak osatu duen egitarauan. Hala, herriko etxe guztietara banatu den egitarauan, besteak beste, euskarazko zinema emanaldiak, haurrendako kontzertuak eta pailazo emanaldiak iragartzen dira. Edozelan ere, ez dira faltako herriko gazteenek espero dituzten bi hitzordu nagusiak: kiroldegiko kantxan egiten den Gabonetako parkea eta igerilekuan egiten diren ur jokoak. Bietan, jolasekin gozatzeko aukera izango dute neska-mutikoek.

**Ur jokoak urtarrilaren 3an eta 4an izango dira igerilekuan**

**Gabonetako haur parkea kiroldegiko kantxa berdean jarriko dute**

### UR JOKOAK

Eskoletako neska-mutikoek oporrak hartu ondorengo lehen hitzordua Zubikoako kiroldegiko igerilekuan izango da. Hala, ur jokoak abenduaren 26an eta 27an izango dira.

Bi egun horietan, kiroldegiko bi igerilekuetan, –igerileku handian zein txikian– jokoak jarriko dituzte: adin askotariko haurrendako puzgarriak, txirristak eta water-poloan jokatzeko ateak jarriko dituzte, besteak beste.

Adinari dagokionez, ur jokoetan parte hartu ahal izateko jarritako baldintza bakarra hauxe da: 8 urtetik beherako neska-mutikoek gurasoen laguntzarekin joan behar dute. Halaber, gurasoak ezin izango dute igerilekuan sartu. Ur jokoetan parte hartuko duten zaharrenak 2007an 13 urte bete dituz-



Aurten ere txikienendako trena eta ludoteka egongo dira jolas parkean. GOIENKARIA






ten neska-mutikoak izango dira. Zubikoa kiroldegiko bazkide guztiendako sarrera doan izango da. Hala, bazkide txartela erakustea ezinbestekoa da, edo bestela, hatz markarekin sar daiteke. Bestalde, bazkide ez direnek 2,50 euro ordaindu beharko dituzte.

Abenduaren 26an eta 27an egingo diren ur jokoetako ordutegia honako hauxe izango da: goizeko hamarretatik ordubatetara eta arratsaldez, lauretatik seietara. Hortaz, ordu horietan, igerilekua gainontzeko erabiltzaileendako itxita egongo da.

**HAUR PARKEA**

Urte berriarekin izango dute Oñatiko neska-mutikoek haur parkearekin gozateko aukera, Gabonetako parkea urtarrilaren 3an eta 4an izango da-eta.Bi egun horietan, Zubikoa kiroldegian zabalduko dute parkea.

Kiroldegiko kantxa berdean jarriko den haur parkean hainbat adinetako haurrendako jolasak egongo dira. Hala, txikienendako, bueltak egiten dituen trena eta ludoteka egongo dira. Azken horretan, bizikletak, zabuak, gazteluak, patineteak eta baloiak egongo dira, besteak beste. Eta txikienendako gunean bertan puzgarri berezi bat ere egongo da. Gabonetako haur parkeko gune guztietan begiraleak egongo dira.




Igerileku handian zein txikian askotariko puzgarriak jarriko dituzte; txirristak eta water-poloan egiteko ateak, besteak beste. GOIENKARIA

**Haur parkean egun osoko eta egun erdiko sarrerak erosi ahal izango dira**

**BESTE GUNE BATZUK**

Kantxa berdean, markagailu aldera dagoen zatian helduagoak direnendako puzgarriak jarriko dituzte; normalean, txirristak dituzten lau puzgarri jartzen dituzte. Era berean, salto egiteko ohe elastikoak ere egoten dira.

Urtarrilaren 3an eta 4an egongo den Gabonetako haur parkerako sarrerak egun erdikoak edo egun osokoak izan daitezke. Hala, egun erdiko sarrera 2,50 euro izango da eta egun osokoa, lau euro. Hortaz, egun osorako sarrera merkeagoa izango da.

Gabonetako haur parkea goiz eta arratsaldez zabalduko dute: 11:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 20:00etara. Horren harira, aurreko urteetako esperientzia ikusita, goizeko orduetan haur parkean lasaiago ibil daiteke; arratsaldean lagun gehiago egoten da.

# Haurrendako euskarazko bi film eskainiko dituzte

**Gabonetarako osatu den egitarauan iragartzen diren ekitaldien artean, marrazki bizidunetako euskarazko bi film eskainiko dituzte: *Nocturna* eta *Doraemon eta dinosaurio txikia*.**

**Hain zuzen, Doraemon eta Nobitaren istorioa kontatzen duen filmak emanaldi bikoitza izango du, abenduaren 23an eta 26an. Eta bi emanaldiak arratsaldeko bostetan izango dira, kultura etxeko zinema aretoan.**

***Nocturna* izeneko filmean, berriz, Imanol Arias eta Carlos Soberaren ahotsak dira protagonistei bizitza emango dietenak. Film horren emanaldia urtarrilaren 2an izango da, 17:00etan.**



'Nocturna' filmaren irudia. GOIENKARIA




'Doraemon eta dinosaurio txikia' filmaren irudia. GOIENKARIA




MUSIKALA

# Ganbara Txikikoen eskutik 'Jolasean' musikala

## Abenduaren 27an eta 28an izango da

ARANTZAZU EZKIBEL

**Gabonak girotu guran, Ganbara Txiki abesbatzak musikala eskainiko du Santa Ana aretoan; *Jolasean* izango da aukeratutako lana**

Ganbara Txikiko lagunek aurten ere musikala egingo dute, hirugarren urtez jarraian: *Jolasean* deitzen da aurtengo Gabonetarako prestatu duten ikuskizuna. Hilaren 27an eta 28an egingo dute ikuskizuna, Santa Ana aretoan.

**Orkestra eta koroa agertokitik kanpo geratuko dira**

Santa Anakoa estreinaldi musikala izango da. Josu Elberdinek egin du musika eta Andoni Morianok, berriz, istorioa idatzi du.

Guztira hiru funtzio egingo dituzte: lehenengoa hilaren 27an, eguenean, arratsaldeko 5etan izango da; bigarrena, egun berean, arratsaldeko zazpi eta erdietan; eta azkena, berriz, egubakoitzean, hilaren 28an, 18:30ean izango da. Emankizun guztiak Santa Ana aretoan izango dira. Sarrera bost euro da eta aurrez kultura etxean egongo dira salgai.

### ORKESTRA ETA KOROA

Hainbat lagunek egin dute posible *Jolasean* ikuskizuna; besteak beste, orkestrak, koroak, estrek, gurasoek... Guztira, 85 pertsona inguru ibili dira lanean buru-belarri. Behin lana eginda, jendearen aurrean erakusteko gogoz daudela esan digu Aitor Biainek, Ganbara Txikiko zuzendariak.

Gainera, orain arte ipuin musikatuak egin dituzten arren, aurtengoa musikala dela argitu digu Biainek. Orkestra eta koroa agertokitik kanpo egongo dira eta agertokira bakarlariak agertuko dira. Horiek Xabier Ormazabal zuzendari artistikoarekin ibili dira entseguak egiten. Parte-hartzaileak ondokoak izango dira: Ganbara orkestra, Ganbara Txiki abesbatza, Irene Agirre (protagonista), Itsaso Ugarte, Amaia Guridi eta Maider Barrena (animaliak), Amaia Biain eta Gorka Aranburu (gurasoak), Ander Zelaia (zuhaitza) eta Amaia Castañeda (denda-



Ganbara Txikiko gazteak Aitor Biain zuzendariarekin. Eurak dira *Jolasean* musikala egingo dutenak.



ria). Bestalde, narratzailea Xabi Ormazabal izango da eta zuzendaria Aitor Biain.

**IRAKASPENA DUEN ISTORIOA**

Haurrentzako izaten diren ikuskizun askok bezala, *Jolasean* musikalak ere irakaspen bat dauka: istorioko protagonista Jon umea da. Jonek gerlari famatu izan gura du. Egun baten, gurasoen errietak ahaztu guran, basora egingo du ihes abentura bila. Baina, gaua iristean, etxera itzuli gurako du Jonek; hala ere, arazo txiki bat izango du: Jonek ez du etxerako bidea ezagutzen.

Basoan dagoen zuhaitz batek, Jon negarrez ikusita, lezio bat emango dio: gurasoei kasu egin behar zaie.

Abenturaz jositako musikala izango dela esan digu zuzendariak; hala, guztiak animatu gura ditu lana ikustera.


GOIENKARIA

**ELKARRIZKETA** AITOR BIAIN ZUZENDARIA

# "Orkestra, antzerkia, koroa... Dena dauka"

A.E.

**Aitor Biain oñatiarra da Ganbara Txikiko zuzendaria; eta 'Jolasean' musikala zuzentzeko ardura ere hari egokitu zaio; bada, gustura dago egindako lanarekin.**


Aitor Biain. GOIENKARIA

**Hirugarren urtez jarraian egingo duzue musikala.**

Bai, aurtengoa hirugarren urtea da; lehenengoan *Horra Mari* egin genuen, David Azurtzarena; bigarrenean, Josu Elberdinen *Alami;* eta aurten ere Elberdinen obra bat antzeztuko dugu, *Jolasean*.

Ezberdintasun bat dago: aurtengoa musikala da eta beste biak ipuin musikalak ziren. Formatua ezberdina izango da: bakarlariak ditu, koroa, orkestra, antzeztu egiten da… Formatu musikala da.

**Noiz erabaki zenuten obra hori egitea?**

Enkargua izan da; iaz esan ziguten, urtarril inguruan, eta testua ekainerako bidali ziguten. Orduan, irakurtzen hasi ginen; gero, oporretatik bueltan berriro heldu genion lanari.

**Zer landu duzue?**

Taula gainean ez da koro guztia egongo; orkestra eta koroa agertokitik kanpo egongo dira. Hortaz, bakarlariak dira agertokian ibiliko direnak. Batez ere koroko zenbakiak landu ditugu; musika kontuak, afinazioa eta horrelakoak. Gero, antzezten ibiliko diren kideak, 20 inguru, zuzendari artistikoarekin ibili dira egubakoitz eta domeketan. Gorputzeko mugimenduak eta beste hainbat gauza landu dituzte.

**Zure ustez, zer izan da zailena?**

Oraindik ikusteko dago. Zapatuan proba nagusia izango dugu orkestrarekin batera. Umeak ez daude ohituta orkestrarekin abestera; hortaz, zailena hori izango da.

MEKANIZATUETARAKO
ZERBITZU OSOA

MEKALKI
S. Coop.

Urte berri on !!

Zubillaga industrialdea 13
Tel.: 943 78 19 11
Faxa: 943 78 29 90
e.maila: mekalki@mekalki.es
http://www.mekalki.es
OÑATI

ARGI APAINGARRIAK

# Gabonetako argiek hiru astez apainduko dituzte kaleak

## Herriko hainbat txoko apainduko dituzten argiak urtarrilaren 7ra arte egongo dira piztuta

JASONE ZABALA

**Gabonetan ohikoak diren zuhaitza eta argiak jarri dituzte Oñatiko kaleetan Gabon jaietarako. Gainera, aurten berrikuntza moduan, herriko bi kale gehiago argiztatu dituzte**

Iritsi dira Gabonak, eta horiekin batera, jaiok iragartzen dituzten argi, apaingarri, zuhaitz eta beste. Aurten jarri dituzten argiak, beste urteetan moduan, Gabon gaiak dituzten argiak dira.

**ARGIAK JARTZEKO ARDURA**

Azken urteetan, plazako zuhaitzaz gain kaleak ere argiz berotzeko ohitura hartu dugu.

Hala, aurten, azken urteetan moduan, Astigarragako Maykolux enpresak izan du Oñatiko kaleak argiztatzeko ardura. Gabonetako argiteria abenduaren 15ean piztu zuten, eta urtarrila 7ra arte egongo da hala. Herria argiztatzeko aurtengo aurrekontua 18.000 euro izango da.

**APAINGARRI MOTAK**

Hainbat argi arku jarri dituzte herriko kaleetan: hain zuzen, herrirako sarrera biak, Olabarrieta eta Zubillaga auzoak . Eta kale nagusiak ere apainduko dituzte, hala nola Kale Barria, Kale Zaharra eta Atzeko Kalea. Kale bakoitzean, argiek askotariko irudi eta koloreak hartzen dituzte. Euskadiko etorbidean eta San Juan kalerako sarreran bi arku jarri dituzte. Aurten, berrikuntza moduan, Errementari plazan bi arku ipini dituzte. Modu berean, lehen aldiz, Otadui zuhaztia ere argiztatu dute. Udaletxeko fatxadan ere jarri dituzte argiak. Postetxearen parean eta Olakua auzunean ere beste bi arku jarri dituzte. Aurten, urtero moduan eta aurrez aipatu dugunez, Herriko Plazan zuhaitza ipini dute. Bertan, hiru kolore nagusitzen dira: gorria, berdea eta zuria, hain zuzen.


Gabon giroa, besteak beste, argiek ematen diote herriari, eta aurten ere halaxe izango da. GOIENKARIA

**Guztira 18.000 euro gastatu dituzte aurtengo Gabonetako argi eta apaingarriak ipintzen**

**Astigarragako Maykolux enpresa arduratu da herriko kaleak ondo argiztatuta egoteaz**

OREKA belardenda
Kale Barria, 9B - OÑATI
Tel.: 943 53 34 93





• Kontsulta naturista
• Dietista
• Diafreo terapia

Gabonetarako opari berezi eta orekatuak gurean dituzu

Gabon zoriontsuak!

BATUAK S.A.

• MEKANIZAZIOAK ETA KONPONKETAK ORO HAR
• TORNUAK ETA FRESATZEKO MAKINAK - CNC
• ARTEZTEKO MAKINAK

Urte berri on!

Zubillaga industrialdea 12
Tel.: 943 78 11 15
Faxa: 943 71 82 50
e-maila: batuak@batuak.com
www.batuak.com
OÑATI

**BERTSOLARIAK**


Sebastian Lizaso eta Aitor Mendiluze, Gipuzkoako txapelduna. GOIENKARIA

# Sei bertsolari, Errege Magoen opari

## Urtarrilaren 5eko saiorako sarrerak kultura etxean ipiniko dituzte aurrez salgai

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Oñatiko Udalak eta Bertso Eskolak elkarlanean antolatu dute ohiko bertso saioa urtarrilaren 5erako.**

Zubikoa kiroldegian izango da bertso saioa, ohiturari jarraituz Errege egunaren bezperan, urtarrilaren 5ean, 22.30ean.

Gehienetan kantxan bertan inolako taularik gabe egin izan dute jarduna bertsolariek, baina aurten taula txiki bat ipiniko dutela aurreratu digute.

Taula gainean, Erregebezperako saioan ohikoak diren bertsolariak izango dira: Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Jexux Mari Irazu eta Aitor Mendiluze. Eta eurekin izango dira Gipuzkoako txapelketako finalean azken biekin jardun duen Iker Zubeldia eta finaleko atarian geratu den Iñigo Manzisidor *Mantxi* bertsolariak ere. Gaiak Bertso Eskolako kideek gertatuko dituzte eta haietako batek egingo ditu aurkezle lanak. Bertso Eskolakoek esan digutenez, ohiko bertso jaialdien haritik joango da aurtengoa ere.

Sarrerak zazpi euroan erosi ahal izango dituzte helduek eta bost euroan gazteek. Saio aurretik Zubikoan bertan egongo dira salgai, baina aurrez kultura etxean ere eskuratu ahal izango dituzte zaleek.

### ESKOLAREN URTEURRENA

Mende laurdena beteko du Oñatiko Bertso Eskolak 2008an. Horren harira, bertsoen inguruko hainbat ekitaldi antolatuko dituzte urtean barrena. Errege bezperako saioa izango da lehena eta Oñatiko bertsolarien txapelketa ere ez da faltako.


**Andoni Egaña**
Zarautz


**Sebastian Lizaso**
Azpeitia


**Jexux Mari Irazu**
Larraul


**Aitor Mendiluze**
Andoain


**Iker Zubeldia**
Zegama


**Iñigo Manzisidor *Mantxi***
Zarautz

Guztizeder
Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu!

GABONETAKO ESKAINTZAK AURPEGIAN:
o Azala berritzeko "dermoabrasión" teknika
o Garbiketak
o Hidratazio handia

GORPUTZEKO ESTALKIAK:
o Limoa: indarra hartzeko
o Algak: bolumenarentzat eta zelulitisarentzat
o Spirulina: tinkatzailea
o Peelinga: azala gorputz osoan berritzeko
BEREZIAK:
o Enplastua bizkarra erlaxatzeko
o Drenaje linfatikoa gorputz osoan

DELICATESSEN:
o Harri bolkanikoekin egindako masajeak

GAINERA:
o Mediku estetiko baten kontsulta
o Laser bidezko depilazioa
o Tatuajeak, botoxa, mesoterapia…
o Eskuaren irakurketa: Alberto Alcubierren eskutik
o Feng Shvin: Estherrekin
o Eta abar luze bat.

kalebarria 26 behea. 20.560 OÑATI
(Orbea etxea, parke aldetik) Tel.: 943 78 01 46
www.goiena.net/blogak/guztizeder

Urtaza
Lentzeria • Mertzeria • Kortsetegia


Gabon zoriontsuak!
Kale barria 14. Oñati • Tel.: 943 78 01 89

OLENTZERO ETA HIRU ERREGEAK

# Olentzerok eta hiru erregeek ez dute hutsik egingo aurten ere

## Olentzero astelehen arratsaldean izango da Herriko Plazan eta errege magoak urtarrilaren 5ean iritsiko dira Oñatira

EDU MENDIBIL

**Gabonetan, umeen pozak goia joko du Olentzeroren eta hiru erregeen etorrerarekin. Opari mordoa banatuko dituzte aurten ere. Umeak zain izango dituzte, nerbioei eutsi ezinda.**

Olentzerori ongietorria egingo diote astelehenean, abenduaren 24an. Ibilbidea honako hau izango da: Arboleda, Kale Zaharra, Euskadi etorbidea, Etxaluze, Kalebarria eta Herriko Plaza. Musika Eskolako txarangaren, soinu-joleen eta trikitilarien eta Oñatiko Abesbatzaren laguntza izango du Olentzerok herriko kaleetan. Udal Musika Bandak ere emanaldia egingo du plazan eta ondoren, ohi denez, Olentzerok Oñatiko ume guztien gutunak jasoko ditu. Eta aurten ere opariz beteta ekarriko du zakua Olentzerok; makina bat lan egin beharko du Oñatin.

**HIRU ERREGEAK**
Ekialde Urrunetik datozen Meltxor, Gaspar eta Baltasar erregeak urtarrilaren 5ean iritsiko dira. Oñatiko ume guztiak haiei harrera egiteko zain izango dira. Zaldi gainean etorriko dira erregeak, eta Saltoka kolektibokoek jaiotza eskainiko diete. DBHko ikasleak arituko dira *antortxero*, danborjole eta morroi lanetan. Gaztelekuan egingo dute lehen geldialdia eta herri barruan ibiliko dira, plazan bukatzeko.

Udaletxeko osoko bilkuren aretoan batuko dituzte umeen gutunak erregeek.

**Aurten ere opariz beteta ekarriko du zakua Olentzerok, astelehen arratsaldean**


Erregeak umeen gutunak jasotzera eta opariak banatzera etorriko dira Oñatira. GOIENKARIA

### Martinola taldea

Martinola kultura taldeak antolatzen ditu Olentzeroren etorrera eta erregeen kabalgata. 1990eko hamarkadaren hasieran sortuta, gaitari taldea zen hasieran eta zortzi bat lagunez osatutako musika taldea geroago. Martin Iñurritegi *Martinola*-ren omenez jarri zioten izena taldeari. 1879an jaioa, Oñatin artista ezaguna izan zen *Martinola*. Lanbidez igeltseroa, erromeria, festa eta ezkontza ugari alaitu zituen gaitarekin. 1964an Atzeko Kaleko Jai Batzordeak omendu zuen eta 90 urte betetzean, 1969an, Txantxiku Txokoren omenaldia jaso zuen. Martinola musika taldeak orain dela sei bat urte utzi zion jotzeari. Hainbat ekitaldi antolatzen jarraitzen du.






## ELEKTRIZITATEA, KRISTALDEGIAK ETA ITURGINAK

**ARGISOUND**, Arantzazuko Ama 9. Tel.: 943 71 63 54
**EGAÑA**, Zubibarri 2. Tel.: 943 71 64 28
**TXINTXURRETA**, Kale Barria 5 Tel.: 943 78 0 54
**LETE,** Kale Zaharra 38. Tel.: 943 7814 78
**FELIX ARREGI**, Kale Barria 53. Tel.: 943 78 02 63
**RTV BELAR**, Olakua 1C. Tel.: 943 78 06 57
**ZELAIA**, Patrue kalea 5-10. Tel.: 943 78 04 04
**ELKORO** Kristaldegia, Kazarraga 1. Tel.: 943 78 24 06
**GELATZU**, Zubillaga 1. Tel.: 943 71 63 22

## OPTIKAK ETA ARGAZKIAK

**ITZIAR Optika** Kale Barria 32. Tel.: 943 71 82 88
**ARKAUZ Optika** Lazarraga 2. Tel.: 943 71 60 63
**ION ARZUAGA Argazkiak** Kale Barria 28. Tel.: 943 78 24 81
**PLAZAOLA Argazkiak** Kale Barria 2. Tel.: 943 71 61 65

## BITXITEGIAK ETA OPARI DENDAK

**ARANBURU**Bitxitegia, Kale Barria Tel.: 943 53 45 34
**SUA**, Kale Zaharra 7. Tel.: 943 71 80 12

## ESTANKOAK, PAPERDENDAK ETA INFORMATIKA

**ALTUNA**, Kale Barria 19. Tel.: 943 78 00 03
**IRIZAR**, Foruen enparantza 6. Tel.: 943 78 00 15
**URZELAI**, Kale Zaharra 4. Tel.: 943 78 11 63
**HIRUKAR**, San Lorentzo 1. Tel.: 943 78 08 21
**HARITZA.** Kale zaharra 4. Tel.: 943 78 23 96
**URZAI**, Portu kalea 4. Tel.: 943 71 64 49

## JANARI DENDAK

**SUSTRAI** Kale Barria 1. Tel.: 943 78 00 90
**ANTXON** Harategia, San Lorentzo 5. Tel.: 943 78 25 83
**BIXAIN** Harategia, Arantzazuko Ama 4. Tel.: 943 78 27 47
**GARAI** Harategia, Maiatzaren 1a plaza 2.
Tel.: 943 78 02 59
**JESUS ODRIOZOLA** Harategia, Arantzazuko Ama 2.
Tel.: 943 71 62 11
**EGAÑA** Okindegia, Kale Barria 35. Tel.: 943 78 14 67
**GOIZTIRI DIETETIKA,** Ramon Irizar 2 Tel.: 943 7 63 00
**SAN MIGUEL KOOP.**, Kale Barria 8. Tel.: 943 78 12 17

## MERTZERIAK ETA LENTZERIAK

**ANE**, Kale Barria 54. Tel.: 943 08 14 09
**ARANTZA**, San Lorentzo 5. Tel.: 943 78 13 90
**BEGOÑA**, Atzeko kalea 4. Tel.: 943 78 21 14
**KUTTUN**, Bidebarrieta 19. Tel.: 943 78 34 44
**URTAZA**, Kale Barria 14. Tel.: 943 78 01 89
**URZELAI**, Kale Barria 26. Tel.: 943 78 03 14

## ZERBITZUAK ETA BESTE

**ALTUBE** Zerbitzuak, Portu kalea 5. Tel.: 943 78 12 65
**ARABA BIDAIAK**, Lazarraga 3. Tel.: 943 71 62 16
**URISU**, Foruen enparantza 6. Tel.: 943 71 67 66
**OÑATI GARAJEA**, Goribar auzoa 9. Tel.: 943 78 13 50
**MAGDALENA GASOLINDEGIA**,
Santxolopetegi auzoa. Tel.: 943 78 21 05

## OINETAKOAK ETA POLTSAK

**OLALDE**, Kale Barria 38. Tel.: 943 71 61 36
**PATXI, San Lorentzo 9B.** Tel.: 943 78 10 25
**KONTXI**, Foruen enparantza 11. Tel.: 943 78 25 61
**VIKY**, Kale Barria 30. Tel.: 943 78 05 41

# KALITATEZKO PRODUKTUAK ETA ZERBITZUAK GERTU-GERTUAN

TXANDA

# OÑATI, ZURE ZENTRO KOMERTZIALA

**Txantxiku Dendarixen Alkartian partez,**

*Zorionak eta urte berri on!!*

## BURDINDEGIA, LOREAK ETA PENTSUAK

**ELORZA**, Kale Barria 17. Tel.: 943 78 07 80
**JUANITOSA, Kale Barria 24.** Tel.: 943 78 04 62
**KIMU loradenda,**
Kale Barria 17. Tel.: 943 08 16 07
**URTXIN loradenda,**
Portu kalea 5. Tel.: 943 78 22 41
**BELLOTZA-UGARTE PENTSUAK**,
Bidebarrieta 19. Tel.: 943 78 03 04

## DEKORAZIOA, ALTZARIAK ETA ETXEKO EHUNGINTZA

**BARUE**, Santa Marina plaza 4. Tel.: 943 78 36 80
**HEGOIA**, Ramon Irizar 2. Tel.: 943 78 33 43
**ARANBURU,** Kale Zaharra 21. Tel.: 943 78 11 60
**PAKITA,** Santa Marina plaza 6. Tel.: 943 78 02 21
**MAIBI**, Mendiko kalea 2. Tel.: 943 78 14 80
**LANTZEN**, Kale Barria 57. Tel.: 943 78 36 79

## JANTZIAK

**MB**, Kale Zaharra 12. Tel.: 628 52 62 65
**CHIC**, Kale Barria 54. Tel.: 943 71 62 69
**LETAMENDI**,
Foruen enparantza 8. Tel.: 943 78 10 82
**MARKU,** Kale Barria 6. Tel.: 943 78 03 19
**N.I.**, Ramon Irizar 2. Tel.: 943 71 62 40
**URRUTIA** Gizonak,
Kale Barria 54. Tel.: 943 78 14 24
**ELORZA AHIZPAK**,
Euskadi etorbidea 5. Tel.: 943 78 05 14
**IGARZABAL** Ume jantziak,
Moiua 10. Tel.: 943 78 16 92

## LURRINDEGIAK, DROGERIAK, MARGOAK

**JASONE**, San Lorentzo 10. Tel.: 943 08 14 62
**LAKET**, Lazarraga 3. Tel.: 943 78 30 84
**ARANBURU**, Kale Barria 47. Tel.: 943 78 19 99
**PICO** Errotulo eta Margoak,
Berezao 8. Tel.: 943 71 64 03

## KIROLDENDAK

**ALZU S.L.**, Arantzazuko Ama 2. Tel.: 943 78 30 67
**LIZARRALDE** Kirolak, Olakua 16. Tel.: 943 78 29 86
**MENDIZABAL** Kirolak,
Kale Barria 39. Tel.: 943 78 11 26
**OSI** Mendi-Kirolak,
Mendiko Kalea 10. Tel.: 943 78 35 09

## OSASUNA ETA EDERGINTZA

**AMAIA DIAZ DE MONASTIOGUREN**,
Kale Zaharra 5. Tel.: 943 71 65 48
**Mª CARMEN**, San Lorentzo 4. Tel.: 943 78 08 86
**LAMIAK**, Euskadi etorbidea 15. Tel.: 943 78 20 50
**NIKOLAS ETA IGONE**,
Kale Zaharra 2. Tel.: 943 78 06 78
**Mª JOSE JAUREGIALTZO**,
Motxon 5. Tel.: 943 78 00 69
**D'OR ESTETIKA**, Errementari 5. Tel.: 943 53 36 47
**GOIZTIRI DIETETIKA**, Tel.: 943 71 63 00
**OREKA BELARDENDA**, Tel.: 943 53 34 93

## OSTALARITZA, KAFE DENDAK ETA GOZOTEGIAK

**ARKUPE**, Foruen enparantza 9. Tel.: 943 78 16 99
**KOROSTI** Kafeak,
Bidebarrieta 13. Tel.: 943 78 04 20
**GORROTXATEGI**,
Kale Zaharra 24. Tel.: 943 78 03 30
**KIKU** Gozoki denda,
Kale Barria 7. Tel.: 943 53 34 93
**MIZKE** Gozoki denda,
Kale Zaharra 3. Tel.: 943 78 28 14

2007 IXA 2008 XVI. SAN SILBESTRE KROSA

# Urtea korrika egiten agurtzeko aukera San Silbestre krosean

**Abenduaren 31n egingo dute 2007 ixa 2008 San Silbestre krosa; 17:00etan hasiko dute 8,3 kilometro dituen herri krosa**

XABIER URTZELAI

**Azken hamasei urteotan moduan, herritar askok korrika egiten esango diote 2007ari agur. Urtero ia 200 lagun inguruk hartzen dute parte kros horretan, gehienak oñatiarrak.**

Abenduaren azken egunean San Silbestre krosak girotuko ditu Oñatiko kaleak. 17:00etan hasiko dute herri krosa, eta antolatzaileek, urtero moduan, parte-hartze handia espero dute: "Ez dugu kros handirik antolatzeko gaitasunik, eta ia-ia publizitaterik ere ez dugu egiten, badaezpada ere. Gure asmoa ez da puntako lasterkariak erakartzea, nahiz eta herrian maila oso ona dagoen. Gure asmoa jendeak urtea kirola egiten agurtzea da, eta egun horretan kaleak apur bat janztea", adierazi du antolatzaile lanetan dabilen Jesus Zabaletak.

Krosean izena eman gura dutenek Arkupe tabernara gerturatu beharko dute lasterketa hasi baino ordubete lehenago.

**SARIA, BI SASKI**

Zabaletaren ustetan, proban egoten diren sariek ere animatzen dute korrikan egitera: "Irabazleendako garaikurrak baino ez dira egoten, kopak. Baina, parte hartzen duten korrikalari guztien artean Gabonetako bi saski zozketatzen ditugu, eta horrek ere lagundu egiten du jendea animatzeko. Aipatu behar da, baita ere, Codorniu etxeak urtero laguntzen digula proba antolatzen".

**"Helburua ez da puntako lasterkariak erakartzea; urtea kirola egiten amaitu gura dugu"**



Argazkiko Ekaitz Osa izan zen iaz helmuga gurutzatzen azkarrena. GOIENKARIA

## Areto futbol eta saskibaloi txapelketak

Gabonetarako hainbat kirol hitzordu antolatu dituzte herrian; besteak beste, saskibaloi eta areto futbol txapelketak.

Abenduaren 28an eta 29an koadrilen arteko areto futbol txapelketa egingo dute eta hilaren 30ean eta 31n saskibaloi txapelketa. Horrekin batera, urtarrilaren 5ean egingo dituzte Ainhoa Lazkanoren omenezko lagunarteko partiduak (16:30ean hasita).

Era berean, urtarrilaren 4an eta 5ean jokatuko dituzte 12 eta 17 urte bitartekoendako areto futbol txapelketak. Taldeko 15 euro ordaindu beharko dituzte, eta abenduaren 26a, 27a eta 28a dira izena emateko egunak, Zubikoan.

M a d i n a
A g i r r e
a b o k a t u a k
Amaia Madina Agirre
Abokatua
Goretti Madina Agirre
Abokatua-Ekonomista
Motxon kalea 3, behea
Tel.: 943 78 14 27 • 943 78 14 57
Faxa: 943 78 02 45
20530 Oñati
naagob@euskalnet.net

urrats 943533637
Podologia Zentroa

• Kiropodiak
• Azazkal inkarnatuak
• Oin diabetikoen ultzerak
• Garatxoak
• Miaketa biomekanikoak
• Neurrira egindako plantillak
• Oinetako onddoen aurkako tratamenduak
• Silikonazko protesiak
Bidebarrieta 20 • Oñati
Ordutegia: 09.30etik 13.30era / 15.30etik 20.00etara.

POSTAL LEHIAKETA

# Postal lehiaketak baditu irabazleak

## Sei lagunek jaso dute saria

MONIKA BELASTEGI

**Laixan euskara elkarteak postal lehiaketa antolatu du aurten ere. Aurreko domekan eman zituzten ezagutzera aurtengo sei irabazleen izenak.**

Pozik daude Laixan euskara elkarteko kideak, aurten ere erabateko arrakasta izan duelako Gabonetarako antolatzen duten postal lehiaketak.

Laixaneko kideek azaldu dutenez, 611 postal jaso dituzte eta horietatik sei irabazle aukeratu dituzte: adinaren araberako hiru talde zeuden eta talde bakoitzeko bina gaztek jaso dute saria –7 eta 15 urte bitarteko neska-mutikoei zuzenduta dago lehiaketa–. Saria, gainera, ez da nola-halakoa izan: 30 euro jaso du euretako bakoitzak materialean. Hain justu, aurreko domekan, abenduaren 16an jaso zuen irabazle bakoitzak zegokion saria, gaztelekuan egindako ekitaldian.

### GABONAK ZORIONTZEKO

Postalok erabilera jakina izango dute: Laixan euskara elkarteko bazkideei Gabon onak opatzeko eta urte berria zoriontzeko erabiliko dituzte postalok.

**Laixaneko bazkideei Gabon onak opatzeko erabiliko dituzte postalok**



**Ander Biain / 8 urte (A taldea)**
Lehen saria




**Maddalen Arenaza / 7 urte (A taldea)**
Bigarren saria




**Olatz Zabarte / 11 urte (B taldea)**
Lehen saria




**Maddi Milikua / 11 urte (B taldea)**
Bigarren saria




**Joseba Egaña / 14 urte (C taldea)**
Lehen saria




**Ander Mantxola / 13 urte (C taldea)**
Bigarren saria

LIZKER
ZERBITZU INFORMATIKOAK
Tel.: 943 78 08 90
e-posta: informatika@lizker.com

- Salmentak
- Instalazioa eta mantenua
- Konponketak
- Aholkularitza informatikoa enpresa eta partikularretan

Lizker
aholkulariak
asesores
Tel.: 943 71 80 52

- Aholkularitza fiskala
- Lan aholkularitza
- Kontabilitatea
- Zerga aitorpena

Zorionak eta urte berri on!

Errementari plaza 2-3 behea • Oñati

ZELAIA

OÑATi

www.zelaia.net

1970ean sortua







# Zorionak eta urte berri on!



## Erreforma integralak

Kalitate handiko eta estilo ezberdinetako bainugelak.

**Sukalde eta bainuak**

**Santa Marina 3 • 943 71 62 81**